# Sagastiberri



URRUZUNO literatura-lehiaketa

2009

# irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

## literatura-lehiaketa 2009

LAN SARITUEN BILDUMA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>.

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2009ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 2.600 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Prestatzaileak | Maite Artabe, Iñaki Iturain, Iñaki Artola,<br>Miren Jule Azurza eta Santos Izagirre |
| Azala: | Jesus Iturriza |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposizioa eta inprimategia: | R.G.M., S.A.<br>Polígono Igeltzera Pab. A1 bis - 48610 Urduliz-Bizkaia |
| ISBN: | 978-84-457-2977-9 |
| Lege-gordailua: | BI - 2028 - 09 |

# AURKIBIDEA


**Hitzaurrea**. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7

**Zergaitik gustatzen zait txokolatea?** *Katixa Agirre Miguélez* . . . . . . . . . . 11

**Prosa: A maila**

| | | |
|---|---|---|
| Errepide bazterreko izotza . . . . . . | *Iraitz Ugalde Pikabea* . . . . . . . | 19 |
| Valerianen kondenapean. . . . . . . . | *Nerea Eizagirre Telleria* . . . . . | 43 |
| Canzone triste . . . . . . . . . . . . . . . . | *Josu Narbarte Hernandez* . . . . | 57 |
| Hamaika aldeko prisma . . . . . . . . | *Mikel Larzabal Aperribay* . . . . | 75 |
| Gogo goseberak . . . . . . . . . . . . . . | *Nerea Eizagirre Telleria* . . . . . | 83 |
| Igande arratsaldetako paseoan paperezko hegazkinetan . . . . . . . . | *Mikel Mancisidor Iztueta* . . . . . | 97 |
| Musutruk. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Nerea Irastorza Landa*. . . . . . . | 113 |
| Etorkizunean islada. . . . . . . . . . . . | *Maite Carreras Orobengoa* . . . | 127 |
| Simon . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Kepa Matxain Iztueta*. . . . . . . . | 141 |

**Prosa: B maila**

| | | |
|---|---|---|
| Estu-estu . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Amaia Iturriotz Etxaniz* . . . . . . | 151 |
| Hiru. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . | *Amaia Iturriotz Etxaniz* . . . . . . | 161 |
| Gau zoro bat besterik ez! . . . . . . . | *Irati Oregi Belaustegi* . . . . . . . | 167 |

Izango al du udaberririk negu honek? *Unai Alduntzin Egizurain* .... 175
Old town .................... *Beñat Irastorza Ugalde* ...... 189
Gizakiok aska gaitezen! ........ *Anastasia Ainhoa Atucha Zamkova* ..... 199

**Poesia: A maila**

Balantzaren aurka ............. *Iraitz Ugalde Pikabea* ....... 213
Beranduegi zen nabigatzera irteteko ..................... *Mikel Mancisidor Iztueta* ..... 221
Olatuek kartzelaturik daroaten olerkia ...................... *Blanca Garcia Cengotitabengoa* ..... 229
Erokerian ................... *Ugaitz Agirre Zapirain* ...... 237
Itzal ilunaren beldur ........... *Maialen Artetxe Maiztegi* ..... 245
Harearik gabeko itsasoa ........ *Ainhoa Atxabal Arrasate* ..... 257

**Poesia: B maila**

Musu bat .................... *Amaia Iturriotz Etxaniz* ...... 269
Nahi nuke… behar nuke ........ *Estitxu Cruz Oliden* ......... 277
Amets ...................... *Iker Lizeaga Indart* ......... 283
Lau urte baino gehiagoz ........ *Amaia Iturriotz Etxaniz* ...... 289
Sentipen gatzituak. ............ *Uxue Odriozola Madinabeitia* . 295

**Urruzunotarrak 1986-2009** ................................ 305

# HITZAURREA

Urruzuno literatura-lehiaketak hogeita lau urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Bostehundik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetakoa lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatura-izenetan. Kimu loratuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte-hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori

kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea "saiatu berriro", eta topiko erdiarekin nahikoa da "saiatu" besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Castillo Suarez
Urtzi Urrutikoetxea
Yolanda Arrieta
Miren Agur Meabe
Katixa Agirre

Parte-hartzeari dagokionez, 2009. urte honetan 421 lan jaso dira: A mailan 136 prosan eta 52 poesian; B mailan, berriz, 209 hitz lauz eta 24 olerkian; bestalde, parte-hartzaileetako 284 neskak eta 122 mutilak.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:
- Irailean 10 egun inguruko bidaia (Andaluzia-Portugal)
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 300 €.

– Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
– Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.
Liburua eskola guztietara eta parte-hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurten Igorreko Arratia institutuari eta Zumaiako Zumaia institutuari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2009ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Katixa Agirreri.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**

# ZERGATIK GUSTATZEN ZAIT TXOKOLATEA?

Katixa Agirre

Ume batek, edozein umek, papera eta margoak eskura izanez gero, margotzeari ekingo dio zuzenean. Horregatik guraso abilek beti daramate boligrafo bat eta paper-mutur batzuk, umea deskontrolatzen den une makur horietarako. Eta umeak ez du zalantzarik izango: margoak hartu, kasketa ahaztu eta margotzeari lotuko da. Eta margotuko du etxe bat, margotuko du txakur bat, margotuko ditu ama eta aita, bata bestea baino handiagoa. Eta inork ez dio galdetuko: baina, ume, zertan zabiltza? Zergatik margotzen duzu? Zertara dator hori?

Hain ume ez den bat, edozein, idazteari lotu eta, lehenago edo geroago, norbaitek galdetuko dio: baina, aizu, zertan zabiltza? Zergatik idazten duzu? Zertara dator hori?

Gauza segurua da: zuei ere galdetuko dizuete (ez badizuete dagoeneko galdetu). Eta erantzun xelebre baten zain bezala geldituko dira. Haurtzaroko trauma batek, edo neuronen konexioetako matxura batek zuen idazteko grina azalduko balu bezala.

Zergatik idazten duen galderaren aurrean, hitzik gabe gelditu ohi da idazlea. Idazleak idazten du idazteko gogoa

duelako. Ez dago beste esplikaziorik. Edo baldin badago, ez du garrantzirik. Idazten du gorputzak eskatzen diolako, eta gorputzak eskatzen diguna jarraitzea komeni delako (mediku guztiek diote hori). Niri, adibidez, zergatik gustatzen zait txokolatea? Ez daukat ideiarik ere. Eta gainera, berdin zait. Txokolateaz disfrutatzearekin nahikoa zait. Armairuan gordeta dudan kutxatilan tableta topatzerakoan sentitzen dudan emozioarekin. Urdailera ailegatzen denean eragiten didan ongizatearekin.

Noski, beti egongo dira zientzialariak esango dutenak hormonek zerikusia daukatela nire txokolate-zaletasunean. Ondo da. Estrogenoengatik izango da, ez diet ezetz esango zientzialari horiei, baina horrek ez ditu gauzak aldatzen, ez dio txokolateari zaporea aldatzen, ez ditu bere efektuak apaltzen.

Eta idaztearen inguruan seguru psikologoek edo soziologoek edo neurologoek edo… beren teoriak izango dituztela. Grafiko txukun edo entzefalogramekin frogatu daitezkeenak, gainera. Baina horrek ez du ezer aldatzen. Grinak hor jarraituko du. Misterioak ere bai.

Misterio bat delako berez grinaren zergatia. Zientziak ere deskribatu ditzake mundu naturalaren nondik norakoak, esango digu big-banga nola gertatu zen, eta nola sortu zen bizitza proteinek eta aminoazidoek bat egitea erabaki zutenean, eta hiruki zuzen baten katetoen karratua hipotenusaren karratuaren berdina dela, baina ez digute esango zergatik. Zergatik egin zuen bang unibertsoak, zergatik sortu zen bizitza, zergatik diren hirukiak diren modukoak. Hori ere, misterioa da.

Baina misterioa aipatu eta oraindik egongo da norbait galdetuko dizuna: bai, ondo da, ondo da, misterio bat da, baina zergatik idazten duzu zuk? Pertsona horrekin alferrik da: esaiozu haurtzaroko trauma bat daukazula, bestela ez zaitu bakean utziko.

Buelta gaitezen orain arte isilik eta kontzentratuta egon den ume margolariarengana. Umeak bere marrazkia bukatu du. Marraztu du suge bat, edo kanpin-denda bat, edo ferrari gorri bat. Eta zer egin du orduan? Gurasoei, edo ahizpa nagusiari, edo irakasleari bere marrazkia erakutsi. Begira zer egin dudan. Eta gurasoek, edo ahizpak, edo irakasleak marrazkia txalotuko dute (baina ze polita atera zaizun!) eta, benetan ona bada, baliteke horma batean zintzilikatzea ere. Umea pozik egongo da orduan.

Idazlea ere pozik dago bere lana argitaratzen denean. Idazle gehienen helburua hori da. Egin duena erakustea. Ez da nartzisismoa (bakarrik). Ez da harropuzkeria (bakarrik). Beste zerbait da. Konfirmazio moduko bat da. Ez erlijiosoa, baina ia. Besteen begiradaren beharra. Norberarentzat gordetzen dena errealitate kutsua galduz doalako. Sekretuak, kontatzen ez badira, fantasia hutsa bilakatzen direlako. Inork begiratzen ez bagaitu, ikusezin bihurtzen garelako.

Argitaratzea, gure lanak lehiaketetara aurkeztea, besteen begirada bilatzea da, besteen begiradak egiten gaituelako errealagoak, gu eta guk sortzen duguna.

Honen inguruan ere galdetuko dizute, jakina. Baina zergatik argitaratu nahi duzu zuk? Ez al da harropuzkeria hutsa? Eta zertarako lehiaketetara aurkeztu? Sariagatik bakarrik?

Prestatu erantzun konbentzigarri bat. Nik nirea daukat, aurkeztu berri dizuedan ume hori erabiliz. Ume margolaria bezalakoa naiz. Nire marrazkia bukatu ostean gurasoek, edo lagunek, edo irakurle anonimoek “baina ze polita atera zaizun” esaten badidate poztu egiten naiz.

Jakina, jada ez gara umeak: inork ez du zuzenean zure lana paretan zintzilikatuko edo karamelu bat emango, sari moduan. Irakurle batzuekin konektatuko duzu, besteekin ez. Batzuetan lehiaketak irabaziko dituzu, gehienetan ez. Hala ere, merezi du arriskatzea.

Eta honekin ere zure interlokutorea konbentzitzen ez baduzu, esaiozu baietz, harropuzkeria hutsa dela, edo sariagatik egiten duzula.

Katixa Agirre Miguélez
(Bilbo, 2009-04-20)

# PROSA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Errepide bazterreko izotza

Iraitz Ugalde Pikabea
Koldo Mitxelena institutua
Errenteria

Lurrera jausi eta mila eta bat zatitxotan apurtu den edalontziak gudu-zelai bilakatu du salako zorua. Bien arteko besarkada apurtu du. Beira-printzazko itsasoa sortu zaie oinetan. Supituki banandu dira. Ez zuen uste, Martinek, hatz bihurriaz gerria inguratu hutsak halako eragina izan zezakeenik neskarengan. Indarra sentitu du zainetan. Botere sinplea berea, neskaren beroaldiekin jolastearena. Zein ez da ahula zirrarazko une horietan?

– Utzi, bihar jasoko dinagu.

Halaxe esanen lioke Evari halako egoera baten aurrean. *Utzi, bihar jasoko dinagu* eta ohera joanen ziren segidan. Izarak bustitzera –apur bat gehiago–. Neguko hotzak epeltzeko edota udako beroak irakiteko.

Evaren irribarre bihurria bilatu du aurrean duen emakumearengan: katu begirada, neskato gaiztoarena, harria jaurti eta eskua ezkutatu duen horrena. Jasoneren begi urduriekin egin du topo, ordea. Eta azpikeriazko erantzunen baten ordez, lotsa doinuzko hitzak esan dizkio neskak:

– Barkatu, nik ez nuen nahi, sentitzen dut…

Neskak galduta dirudi. Tira, egia esan, gau horretan ezagutu denaren etxean ezinbestean egoten da bat deseroso. Barkazio eskeak neskarekiko urruntasuna areagotu dio Martini. Hotz-hotzean pentsatuta, Evak ere halaxe jokatuko zukeen, ziurrenik, euren lehen gauean. Eta gau hartan oraindik ez zuten elkar maitatuko Martinek eta Evak, Jasonek eta biek elkar maite ez duten gisara. Bere baitarako pentsatu du: "Gezurretan dabil lehen gau horretako maitasunaz mintzo dena. Animaliegiak gara horretarako." Ez da oroitzen Evarekin lehenengoz larrutan egin zuen egunaz. Ez zen bereziegia izan beharbada, halakorik sekula Evari aitortu ez bazion ere, lizun hutsa zela pentsatuko baitzuen, haragizalea. "Badira kontuak gizonak beretzat gorde beharrekoak" pentsatzen zuen Martinek. Esplikazioa sinplea zen oso, eta horixe erantzungo lioke Evari inoiz azalpenik eman behar izan balio: "Haragizaleak gara, laztana, haragia soilik ezagutzen dugun artean.". Eta horraino ezagutzeko beta ematen du –normalean– larunbat gauak. Eta horregatik badakite biek, Jasonek eta Martinek, hitzek lekurik ez dutela gaur gaueko elkarrizketan.

Edalontziaren gorpu zatitua jasotzen tematu da neska. Programatuta baleude bezala, hogeita hamahiru minuturen buruan biluzik zeuden ohean, deserosotasunak arropekin batera erantzita, animalia-senak eragindako egarria ase asmoz.

* * *

Sexu usaina dago oraindik izaretan. Ez diote pasioari goizaldera arte eutsi. Tira, gorputz-gosea agerian geratu zen bart eta ez zuten hitz goxoetan denborarik galdu. Ho-

rregatik, agurtu du neska ohetik, bere gorputza erakusteko gogo handiegirik ez baitzuen. Ajearekin batera etorri baitzaio neska arrotzaren aurrean biluzik azaltzeko lotsa.

Emakume usaina dutxako uraz garbitu duenean etxetik irten da. Orduan izan da jende uholdeak irentsi duenekoa, ibai ondoko harri koskorraren gisan. Egunkaria erostea beste planik ez balu bezala, kioskorantz abiatu da. Zigarro bat piztu du. Bart Jasoneren ahotik edandako kea etorri zaio gogora lehen zupadan. Tabakozko musu haiek, ahoa belzteko modukoak. Absurdoa iruditu zaion arren, isilean onartu du Martinek, oheratuko zituen neskek erreko ez zutelako ustea izan duela beti. Izan ere, ohitura kezkagarria du Evarekin eten zuenetik hark egiten ez zituen gauzak beste neskek egingo ez dituztela sinestekoa. Ez erretzearena, adibidez.

Horregatik egin zitzaion arraroa atzo Jasonek balkoian konpainia egin izana ohe jolasaren ondoren. Egia esan, elkarbanatzeko sosegu-une ederra da jolastu osteko zigarroarena. Elkar apur bat ezagutzeko beta eman zien horrek. Neska atsegina zen Jasone, ahots marrantatsua zuen, Evarenaren oso antzekoa. Bere gainean dantzan ibili zituen titi handi haiek ez ziren, hala ere, Evaren bular ttipiak bezain ondo mugitzen, hain lotsati, bere ibileren bila. Jasone plastikozkoa iruditu zitzaion Evaren haragiaren alboan. Intziri ozen haiek ere antzeztuak ziruditen, baina ezin uka oso berotzen zutenik. Jolas egoistan aritu ziren, elkarri plazer dosi txikiak lapurtuz bezala, elkarri plazera oparitu ordez.

– Aio!

– Gero arte, bai!

Ohetik agurtu du. *Gero arte*az segundo gutxitara damutu da. Berandu baino lehen abiatu da kioskora. Estreinakoz egin dio kalte goizeko lehen zigarroak. Estreinakoz eman zizkioten atzo kezko musuak ere. Lehen aldiek ez dute sobera alaitzen. Baliteke urteetan Evari tabakozko listu hori edanarazi izana ohartu ere egin gabe, eta beste emakume batekin oheratu behar izana horretaz konturatzeko. Hala ere, beti esaten zion Evak ez zitzaiola ardura tabako hatsa. Horixe esan zion, bai, berak ere Jasoneri atzo gauean. Zein faltsuak bilakatzen garen albokoaren onuraren aitzakian.

Egunkariak ez dakar elurtearen berria besterik. Pena da Madril inkomunikatuta geratu ez izana. Badirudi eguraldiak ez dizkiola Martini opor txiki batzuk eskaini nahi. Bakardade apur baten beharra sentitu du ia nahi gabe. Bitan pentsatu barik nagusiari hots egin dio:

– Bai?

– Cesar?

– Nor da?

– Martin.

– Zer dugu?

– Ez duzu sinetsiko… Badakizu badudala izeba bat gaixorik Somosierra inguruko herrixka batean… Bada, behin etorriko bera bisitatzera eta hara, elurteak harrapatu nau. Ezin naiz bueltatu, errepide guztiak etenda daude…

– Baina, ondo al zaudete?

– Izeba oso urduri dago, herrian argindarrik ere ez dugu eta…

– Eta koberturarik baduzu sakelakoan?

– Ez, tira, orain bakarrik… ee… Hara, hori esateko soilik deitzen nizun… ez dizut ondo entzuten… Cesar?...

– Esan.

– Cesar, hor zaude?

– Bai, hemen nago.

– Cesar?

– Martin…

– …

Botoi gorriari eman eta autoko ispiluari so egin dio. "Izeba! Telefono deia eten da, inkomunikatuta gaude!!!" esan dio bere irudiari irri eginez. Eta, nagusiari gezurra esatea gaizki dagoenez, gaixorik duen izebaren baten bila abiatu da autoa hartuta, mendi inguruven batean inkomunikatuta geratzeko.

Semaforoek zentzua galtzen dute behin ziutatetik aterata. Horregatik, eta hiru kilometroko periferian inor ez dabilela ondo egiaztatu duelako, argi gorriak paso eman balio bezala, aurrera jarraitu du larre nabarrek biltzen duten errepidean. Badirudi leku aproposera doala bila dabilen bakardade apurra topatzeko; zalantza guztien erantzunak, bere erantzun propioak; bere nahien izenak eta abizenak;

benetan Evarekin maiteminduta jarraitzen duen, edota apaiz sartzeko ordua iritsi zaion; zakilarekin gutxiegi pentsatzen ote duen, edo buruarekin gehiegi; gaixotasuna ote den edota maitasuna... Bere burua ezagutzeko ordua iritsi zaiola soilik daki, baina ez du Martin delako horren arrastorik ere.

*   *   *

"Errazagoa zunan zakil zintzilikari soilak zirenean…" pentsatu du Bertak bere baitan. Hamasei urte zituenetik, bart izan da gizon batek izutu duen lehen aldia. Beti leporatu izan die gurasoei bere haurtzaro labur eta kaskarraren errua. Ez da oroitzen haien musuez, zigorrez, errietez eta antzeko gauza ederrez. Izan ere, gazterik galdu ziren biak Madrilgo kale usaintsuenetan. Mojek zioten bere onerako utzi zutela aterpean, eurek bera zaintzeko lain diru ez baitzuten. Bertak ezin zuen ulertu emakume haiek ume-ipuinetan halako ustea izatea. Bazekien, ondo jakin ere, gurasoek bizio garestiak zituztela eta haiekiko kateak estuegiak zirelako baztertu zutela alabatxoa etxe handiren baten atean, hura mojen aterpea zenik ere jakin gabe.

– Zergatik ez duzu janzten gabonetan erregalatu genizun kamiseta?

– Urdina gorroto dudalako!

– Beti ez zara bada, beltzez jantziko…

– Zuek ere beltzez janzten zarete eta inork ez du arazorik horrekin…

Halakoak izaten ziren Bertaren eta mojen arteko elkarrizketak, haren janzkera beti arazo baitzen. Ilunegi jantzi ez bazen, gona motzegia zeraman, edota, bestela, bularrak ageriegian… Mojak ez zebiltzan hain oker, hala ere. Lizun andana hurbiltzen baitzitzaion kalean berandu arte eta bakarrik promenatzen zenetan.

– Neska ona da, baina, konpainia txarretan ibiltzen da…

Halaxe mintzatzen zitzaion moja nagusia poliziari, neskato nerabea erdi mozkortuta etxeratzen zuenetan. Azkenean aterpetik alde egin zuen, hiru bat urtez mojak erotu beharrean ibili ondoren. Urte luzeak igaro dira haienganako esker ona sentitu duen arte, eta, ziurrenik, moja haiek guztiak euren zeru horretara joanak dira honezkero.

Bertaren mundua urrunegi geratzen da, ordea, zerutik. Ostatu bateko ohean esnatu da gaur ere, izara erabilien kiratsetan. Bart ohean izan duen mutila ez da gainerakoak bezalakoa izan. Normalean goseak agresibotutako agureak izaten dira gaueroko ogibide. Auto dotoreetan igarotzen dute parkea eta gona laburrena duten neskak jasotzen dituzte gauerako jostailu. Bertak laster nekatzen ditu piztia izerdituak eta ordu gutxitara irteten da gaueko bigarren biktimaren bila. Errazagoa egiten zaio dena biktimak eurak direla pentsatzean. Azkenean, beretzat da dirua, haiek lanabesak baino ez dira. Ile urdindun bular puztuen gainean mugitzen da ia sistematikoki eta ez die begietara so egiten. Objektuak dira. Langilea da. Norberak bere *roll*a betetzen du eta giza-abereak emaztetxoengana bueltatzean, bera parkeko errepide bazterrera itzultzen da.

Atzokoak ere gau arrunta zirudien. Intziriak frantsesez ahoskatzen zituen gizon harekin amaitu ondoren, parkeko farola baten azpian ezpainak margotzen ari zela, mutil gaztetxo bat begiztatu zuen ilunetan. Garaia zen, itxura onekoa. Ziurrenik, inoiz mutilen bat aukeratu behar izango balu, haren antzekoa izanen zen. Baina, ordura arte bera izan ohi zen aukeratua. Farolaren argi horiak itzala koloreztatu zuen. Poliki hurbildu zitzaion:

– Zer moduz doa gaua?

– Zer nahi duzu?

– Hizketarako gogoa izango zenuela pentsatu dut…

– …

– Gauero ikusten zaitut urrutitik, Betty zara ezta?

– Nork eman dizu nire berri?

Ez zuen atsegin Betty deitzea. Nolabait ezkutatu beharra zuen benetako identitatea eta film amerikarretako emakumeen izena jarri zion bere buruari, duintasuna galtzen zuen uneetarako soilik.

– Gaur ez duzu lan askorik izan…

– Ez dut uste behar adina diru baduzunik.

– Zure musu batengatik dudan guztia emango nuke, ederra…

– 50 dira.

– Goazen autora.

– Autoetan ez dut lanik egiten.

Ostatu batean amaitu zuten, papereztatutako hormek bildutako gela hartan. Betiko prozesua jarraitu zuen Bertak. Gaztea agureak baino gehiago kosta zitzaion nekatzen. Goxo laztantzen zuen mutilak, haragia alboratuz, mantso-mantso musukatzen zuen eta horrek Bertaren ordena apurtu egiten zuen. Bukatu aurretik mutilaren besoetan aurkitu zen, haren hitz ederren sarean.

– Esan dizut gauero ikusten zaitudala urrunetik. Auto horietan sartzen zarenetan, nire mina, ez duzu imajinatzen…

Sekula entzun gabeko hitz goxoek babestuta sentiarazi zuten hasieran. Negar egiteko gogoak estutzen zion eztarria. Baina, ezin zuen negar egin, panpina izateko unea baitzen. Eta panpinek ez dute negarrik egiten.

– Azkenean niretzat zara, maitea…

Haren soak hipnosi bereziaz harrapatzen zuen, begiak kliskatzen zituen bakoitzean eztizko amarauna jaurtikiko balute bezala armiarma biek.

– Zure ilearen usaina, zure azalaren zaporea… Betty, zure gorputzeko atal bakoitza…

Ohetik altxa zen. Asaldatuta. Larrugorritan.

– Zoaz, alde hemendik!

– Baina, laztana…

– Alde! –esan zion malkoak garrasi bilakatuz.– Alde! –mina zerk eragiten zion oso ondo jakin gabe– ALDE HEMENDIK! Ospa…

Gelako atea giltzaz itxi eta ohearen gainera jausten utzi zuen bere gorputza, mutilaren izerdiaz kutsatutako izaren gainera. Burkoak isiltzen zizkion negar zotinak. Masailak berotu zitzaizkion segidan, arnasa azkartu… Garrasika, lurrera jaurti zituen mesanotxean zeuden lanpara eta mutilaren blusa. Ohatzean uzkurtuta, beldur den haurtxo baten antzera egin zuen negar, amets gaiztoari amaiera eman ezinik, mutilaren hitzak behin eta berriro gogoratuz. "… niretzat zara, maitea…". Maitasun hitzak, munstroak! Ez gurasoek, ez mojek, ezta kale bazterretan igurzten zuten gizon esku-luzeek ere sentiarazi ez zioten berotasuna zen hura. Eta kutsu amerikarreko kulebroietan irensteko errazagoak ziruditen gisa hartako hitzek, ezten bakoak.

Bart ez da ohartu noiz hartu duen loak, noiz erabaki duen malkoak amets bihurtzea. Zorabiatuta esnatu da. Ohe aurreko ispiluari so egin dio, oraindik hazita dituen masailei erreparatuz. "Errazagoa zunan zakil zintzilikari soilak zirenean…" esan du isilean, hasperen eginez. Negarrak lasaitu zuen atzo eta gaur hobeto sentitzen da. Gauekoa ez oroitzea erabaki duenean etorri zaizkio mutilaren begi distiratsuak gogora. Bederatziak dira. Sekula ez zuen horren luzaro lo egin, horren goiz lotaratuta, esan nahi dut. Goizeroko begi-zuloek ez dirudite hain ubelak gaurkoan. Makillajea garbitzea erabaki du, haren gainean kolore gehiago eman ordez, eskuarki bezala. Betileei tintazko presondegia arindu die eta ezpainak zurizkatu ditu karmina

eta haren usaina erantziz. Begietara begiratu dio ispiluko Bertari.

– Aspaldiko!

Ordura arte inoiz ez bezala, egun onak eman dizkio bere islari eta irri egin dio. Ez da mutilaren izenaz oroitzen. Ez du haren aurpegia gogoratzen. Soilik izara bustiak geratu zaizkio; eta haren begiradaren irudia, hezetasunean lo oraindik; eta hitz gozoak, hurrenkera pozoitsuan esanak, bart gaua apurtu diotenak.

– Alde egin behar dun, Berta, hire burua ezagutzera, izan nahi dunan horren bila…

Ispiluko neska ilegorriak baietz egin dio buruaz. Poltsatik diru-zorroa atera du. 50€. Gauak ez zuen gehiagorako eman. Ahal bezain urruti joatea erabaki du, bere burua ezagutzetik hurbilago egoteko edo. Inork maitatu aurretik berak bere burua maita dezan, horrela izua arinduko zaiolakoan.

* * *

Abiadura mantsotu du *Guardia Civil* jartzen duen furgoneta berdearen ondotik igarotzean. “Orain txorimalo hauek egingo al didate konpainia?”. Furgonetaren argiek erantzun diote: “Bai”.

– Documentación…

Betikoa. Eta guanterak magoren baten hondorik bako kapelua dirudi. Zortzi bat untxi zuri eta bi usoren ondoren autoko paperak eta gidabaimena atera ditu.

– ¿De dónde me ha dicho que es, joven?

– De Madrid, bueno, vivo en Madrid…

“Nafarra naizela esateko moduan…” pentsatu du ironiaz Martinek. Ederra pagotxa poliziarena, mutil gazte bat autoan, ergel xamarraren aurpegiarekin eta nora doan ez dakiela esanez.

Igaro dira 30 minutu. Martinek biluzik imajinatu du polizia jauna, belar koloreko aurpegiarekin eta haragi koloreko arroparekin.

Pasatu dira 40 minutu. Polizia biluziak ez du hotzik, ez presarik, ezta egiteko garrantzitsuegirik ere antza. Eta ia ordu bete geroago Martini ironia guztiak eroriak zaizkio lurrera, eta milaka zatitan apurtuak aspalditxo.

– Ya le he dicho que soy navarro… –enegarren aldiz.

Datu guztiak txukun-txukun izkiriatu ditu blok batean *goroldio jaunak* eta joateko esan dio azkenean. Aurrera jarraitu du eta beste *goroldiozko* pertsona bat ikusi du furgoneta barruan loak hartuta. “Hobe huke hik ere lotaratu, besteak izorratzen jardutea baino…”. Eguerdi berandua da eta eguzkia hotz ari da zeru-erditik lotarako bidea egiten. Neguko eguzkia zuria izaten da horia baino gehiago. Horrela, egunak zuri eta gauak beltz izateraino sinplifikatzen dira gauzak neguan.

Errepide izkinako izotz pusketa artean neska baten ibilera topatu du Martinek, Somosierrara bidean desfilatzen. Arrastakako pausoa. Geldoa, baina konstantea. Ahula, baina jarraitua. Autoa gelditzea baino ez zaio bururatu, ba-

dira eta makina bat ordu inor ikusi ez duela mendi inguru hartan.

– Mila esker autoan hartzeagatik.

– Ez da ezer, neska, badakizu zer hotz dagoen hor kanpoan?

– Bai… sinets iezadazu, ederki dakit. Lau ordu neramatzan ibilian, tren geltokitik honaino.

– Eta, nora zoaz, bada?

– Ez dut jomugarik, egia esan…

– Nola?

– Tira, luzea da istorioa…

– Lasai, ni ere azalpen luzeegia duten istorio horietako batetik ihesi nabil.

Eroso sentitu da Berta, berehala ohartu baita mutil honen aurrean eta minutu batzuez bada ere, izaera berri bat asma dezakeela. Beste norbait dela sinetsi eta sinetsarazi, gezur leun batean murgildu. Martinek ere ez du bere burua aurkezteko gogo handiegirik agertu.

– Gaizkilea zara? –galdetu dio Bertak.

– Zer?

– Ea gaizkile bat zaren, badakizu, espetxetik alde egina-edo…

Martin algaraka hasi da. Begi borobil eta orlegiak marratxo fin bi bilakatu zaizkio aurpegian. Masailak erabat zimurtu ditu. Bertak ere irri egin du.

– Badakizu nik ere gauza bera pentsatu dudala…?

– Gaizkile aurpegia al dut, ba?

– Ez… politegia zara horretarako…

Berta ile kizkurraren atzean ezkutatu da disimulu handiz. Ez du eragin dion irri txikia ikusterik nahi.

Autoa bazterreratu eta Martin atera egin da. Berta ere irten da, haize freskoa hartzera. Mutilak txiza egin du zuhaixka baten oinetan. Bertak atzetik begiratzen dio. Mutil garaia da, bizkar zabalekoa, beltzarana oso… Eta oso azkar egiten du txiza. Izan ere, begira-begira harrapatu du bukatu eta burua biratu duenean. Berriro baliatu da ile adatsaren ezkutalekuaz masail gorrituak estaltzeko.

Gaua pixkanaka hedatu da eta Martinek ez du besterik buruan: Neska eroso dago antza, baina, ostaturen bat bilatu ezean, autoan egin beharko dute lo. Eta horrek planak majo zapuztu dakizkioke.

– Ez dut manta bat besterik.

– Berdin dio, berokiarekin aski dut…

Ebidenteegia: Manta bakarra gaua pasatzeko, neskak tapakirik ez, hotz dago eta mutilarengana hurreratzen da epeltasun apur baten bila. Telebistan ikusia du berrogei bat aldiz. Baina, ez, ez da halakorik gertatu. Egunsentia jaio da eta Bertak geldirik darrai, gorputza uzkurtuta, bere

eserlekuan. Martinek azala laztandu dio begiradaz. Zuria, oso. Sudur borobila poliki higitzen du arnasaldi bakoitzean. Ezpainak geldirik ditu, ez alai, ez goibel, lotan. Bera baino gazteagoa delakoan dago. Ederra komeria, nesken jira-biretatik ihesi zorabiarazten duen neska bat sartu du bere autoan bertan.

Kilometro gutxiren buruan esnatu da.

– Nora naramazu, *taxista*?

– Zerura hurbilduko zaitut apur bat… ikusiko duzu.

Ordu biren buruan, muino baten oinetan utzi du kotxea bikoteak. Aldapan gora ibili dira, izotz artean, muinotxoa Everesten lehengusua zela ondorioztatu arte. Izerditan, gailur izendatu dute mendixkaren estrataren pausaleku bat.

– Gora begiratzen ez badugu, gailurrean gaudela sinets genezake…

Barre egin dute biek.

– Askotan egiten duzu hau?

– Zer, mendira igo? Sekula ez naiz hemen izan… Nafarroan bizi nintzenean bai, baina hiriko egunerokotasunak ez du belarretan etzateko abagunerik ematen.

– Ez, gailurrei bizkarra emateaz ari naiz… Halako errealitate handiei ezikusiarena egiteaz.

– Tira, denok ditugu bizkarra eman nahi diegun kontuak, eta haiei ez begiratzen ahalegintzen naiz. Ez dut uste hori delitua denik –dotore geratu zaio mendi gailurraren

eta Evarekiko hausketaren arteko metaforatxoa. Bere baitan harrotu da Martin– Hala ere gutxitan lortzen dut halakorik, buruhausteek buruak hausteko betebeharra baitute, ez itzalean eta isilik egotekoa. Zuk ere izanen duzu halakorik…

– Ez pentsa… –erantzun dio Bertak– ez naiz zuk uste bezain gaizkilea. –barre egin du zoruari so– Tira, egia esan, geroz eta nekezago ematen diet bizkarra nire tontorrei.

Luzaz egon dira belardi orlegiei begira. Belar artean lurperatu du Bertak, irudimenaz, ohean izandako gizon bakoitza. Lehenik inurri forma eman die, gero, hobitxo bana egin eta goxotasun gutxirekin etzan ditu banaka, betikotasunean horrela egoteko eroso dauden edo ez galdegin gabe.

Martinek zigarro bat piztu du. Ahotik botatako ke uhinak urruneko zelaietan etzaten ikusi ditu, eta esertzen, belaunikatzen, jaikitzen… eta berriro etzaten. Hurrengo zupadan apur bat hipnotizatu duen ke hodeiaren azpian, lurrean jesarrita, Berta ikusi du.

– Zertan zabiltza halako paraje ederra izanda lurrera begira?

– Uste dut hemen inurrien hilerri bat dagoela. Baina, ez penarik sentitu, inurri gaiztoak ziren, pozoia sartzen dizuten horietakoak.

Martinek atsegin ditu Bertaren kontuak. Belarretan etzan eta haizearen musika entzun dute. Gero, begiak itxi eta ikusten dutenaz mintzatu dira. Laguna erdi lotan zegoela ikusita, Bertak kolkotik izotz puska bat sartu dio Martini hau ustekabean harrapatuz. Urduritu egin da mutila

eta berokia kendu du. Bertak, orduan, tripa ondotik atera dio ia guztiz urtu den izotzezko tanta. Martinek neskaren atzamarrak sumatu ditu zilborpean, leun eta ausart.

– Bero duzu azala…

Eva sentitu du bere aurrean. Ez ote dio ezertarako balio izan horraino joan izanak. Soilik Eva emakume guztietan ezkutatzen dela ohartzeko. Beharbada, atzerapausoa izan da Berta ezagutzea. Agian, berreraikitze lanak teilatutik hasi ditu. Ez daki Jasonerekin beste gau bat elkarbanatzeak on egingo liokeen. Ziurrenik bera da halako emakume batekin larrutan eragiteak frustrazioa eragiten dion gizaseme bakarra. Eta Bertaren hatzek Evarenak burura ekartzen dizkioten memeloa ere bera da.

– Goazen kotxera, hotz dago hemen…

Ezpain diktadoreen menera autoko atzeko aldean sartu da Martin. Berta bere gainean etzan da irribarrez. Ezpainak igurtzi dizkio eta musu eman dio lepoan. Gero, lepoa igurtzi dio eta musu eman ezpainetan. Martinek begiak itxi ditu, beroaldiak ondoratu dio gorputza eta Evaren azpian balego bezala sentitu da.

Mantso gozatu du Bertak Martinen gorputzaz. Goxotasunez egin dute txortan, unean uneko izerdia ezti bihurtuz. Ohiko protokoloa ahantzi balu bezala, bide berriak bilatu ditu mutilaren azalean. Haren masail sutuak eta aurpegian marra biren antzera ezkutatzen diren begitxoak. Ezpainek mamitsuagoak dirudite eta mihiak hamaika tokitan batean egon nahi luke bihurrikeriatan. Arnasestuak haize ufada epelak dira eta igurtziak eguzkiaren laztan sargoriak. Bidean barna, han nonbait, Martinek inork inoiz zapaldu

gabeko belardi nerabea topatu dio. Gora eta behera jostatu da gauaren jabe den azeriaren azpikeriaz. Gozokitan bildu du azkenean, epeltasunari une batez gehiagoz eutsi nahian. Bertak maitasuna egin duen lehen aldia izan da.

Ileko barraskilo gorriak orraztuz lokartu du Berta Martinek. Ume aurpegia du. Kosk egin dio ezpainean. Irri lotiaz erantzun du. Lekutik altxa gabe koaderno bat eskuratu du Martinek eta autoko argi ahulaz letra batzuk zirriborratu ditu. Marra barrabasez betetako orrien gainean hartu du loak.

Goizak ekarri du argia, eta ametsak korapilatuta esnatu dira Martin eta Berta. Oso gose dira eta Cercedilla delako herrian gosaldu dute, hiru egunen ondoren munduak bizirik dirauela egiaztatuz. Martinek nagusiari egin zion deia kontatu dio Bertari.

– Gaurtik aurrera Cercedillakoa da nire izeba gaixoa.

Barrez lehertu dira.

– Benetan, ez dakit zer esango diodan nagusiari itzultzen naizenean. Ez genuen inolako eskubiderik halako oporralditxoa egiteko. Erokeria izan da.

– Nirea ez da oporraldia izan. Aldaketaren beharra nuen eta honela baizik ezin izan dut lortu. Orain, hutsetik hastera noa.

– Inoiz ez da ezer hutsean gelditzen. Soilik iraganaren mendi tontorrari begiratzea ahazten dugu. Baina, tira, badakizu… hori ez da delitua…

– … hori pribilegioa da…

Autoa hartu dute berriro. Solasak bidaiak bezain luze jo du Guadarramaren ibilerei jarraika. Atzokoaz hitz egin dute, baina ez biharkoaz. Eta badakite bihar ez dutela atzokoaz hitz egingo. Baina, horrek ez du unea garrazten. Are gozoago bilakatzen du. Ordu batzuen buruan ziutateko munstroaren ahora hurbilduak direla adierazi die bost karrileko errepideak.

– Eta… nora eramango zaitut?

– Tira, utz nazazu parkean… uste dut aurkituko dudala etxerako bidea.

Gauean *señoritaz* beteta egoten den kalean bazterreratu du autoa. Begirada jasoz Bertari so egin dio. Kiribil gorriztek lepagainean deskantsatzen dute, neskaren haurtxo aurpegia bilduz. Mantso hurreratu zaio Martini eta musu eman dio masailean.

– Asko pozten nau zu ezagutu izanak…

– Martin, Martin da nire izena.

Beste musu bat eman dio. Eta *gero arte* batentzat ere betarik utzi gabe atera da autotik. Ibilera mantsoaz aldendu da parkean barna, Martini, autoari, *señoriten* kaleari eta inguruko katu beltz guztiei atzea emanez. Zuhaitz artean galdu da azkenean neskaren irudia.

Etxera itzulitakoan ohean sartu da Martin. Izarek besarkatu dute eta begiak itxi ditu. Berehala konturatu da, azken hiru egunetan ondoan izan duen neskaren izenik ere

ez dakiela. Soilik oroitzen du Evarenak bezalako zirimolak zituela; Evarena bezain azal leun eta zuria; harenaren antzeko usaina isurtzen zuela jostatu artean; bereak bezain bular txikiak zituela… eta Eva bera zirudiela izotz artean mendatean gora desfilatzen zihoan irudiak eta baita minutu batzuk lehenago parkeko zuhaitzen artean desagertzen ikusi duenak. Telefonoa hartu eta Evari deitzea pentsatu du. Ez da ausartu. Berokiaren poltsikotik autoko koadernoa atera du eta isilean irakurri du bart idatzitako hitz zirriborratuen multzoa.

*Ez haut ezagutu,*
*kapelu horren azpian,*
*berokiaz estalita,*
*azal arrotz horrez bilduta,*
*begi estrainio batzuez begira,*
*doinu ezezagunaz mintzo…*

*…laztandu eta zirrara hori sentiarazi didanan arte.*

*Orain bazakinat hi haizela,*
*inoren gorputzean ezkutatuta.*

Izara artean Evaren usainak bilatu ditu gero, gaueroko usadioari jarraituz. Fantasiaren pozoiari gustua hartua dio dagoeneko. Irudipenak toleratuak ditu, ametsak egiaren ondoan ederrak baitira. Eta hain erraza da amestea neskato lirain bat alboan duzunean… Narrasti uzkurtuaren antzera kiribildu da tapakipean. Hiru egun luzeren ondoren arropari izerdi kiratsa dario eta gizon usain homogeneoa jabetu da izarapeko haitzuloaz. Ez dago izotz puskarik errepide bazterrean, ez dago errepide bazterrik, ez eta neskarik ere, bidertzean oinez. Hobe luke irudimenari hegoak moztea. Egunaren argiak begiak mindu dizkio. Sabaiari so, lau

besoko lanparari tristezia kutsuz aitortu dio zoriontsuagoa dela egun guztia lanean igaro eta arratseko telesaioko bikotearen maitasun istorioa ustekabean bere egiten duenetan.

Eta atzera begiak itxi ditu.

# Valerianen kondenapean

Nerea Eizagirre Telleria
Zumaia institutua
Zumaia

Iragarki bat, beste bat, ditxosozko telesailaren esperoan, bazkalostero suertatu ohi zaion lez. Amerikar ahaztuen azentu beroak janzten du gela, eta han, higatutako sofaren gainean bere gorputz axolagabe jesarria. Beltzaran hitzontziengan iltzatu du soa, baina gogoa ez dio telenobela madarikatuak, ez beste ezerk, lapurtu; gogoa beregan du, jesarrita, aspaldion bezalatsu. Orain amodio sutsuenak, orain haserrerik bizienak, garrak ez du etenik. Jesarrita zeukan gogoak galde egin dio ea noiz berotu zitzaion odola azkenekoz, baina berak ezin izan dio erantzunik eskaini.

Paretetan zintzilikatzen diren orratzek ez dute gupidarik, eta ohartarazi diote gibel-masailak iratzartzeko ordua badela, bazkalosteko atsedenak berea egin duela alegia. Aseguru-etxe aurretik igarotzean, jabetu da gaur ez duela lankidearen esperoan egon beharrik; pentsamendu horrek irriño txiki bat marraztu dio aurpegian, eguneko lehena. Gaur ez du telesailari buruzko kronika zorrotzik aditu beharko, gaur ez du "bost axola Maria Fidela eta Rosauroren arteko liskarra" bere baitarako esan beharrik. Ezta bere buruari aitortu ere, euren etxean telebista piztuta egotearen

arrazoia isiltasun herabeen erailketa dela. Telebistak irrintzi, isiltasunak ulu: etengabeko lehia.

Izan ere, haurtzaroan adituak ezin uxa, eta ordudanik die beldurra iluntasun eta isiltasunei. Horregatik ordeztu ditu gaurkoan ere lankidearen hitz-aspertuak esatariarenekin. Aspaldi jabetu baitzen bere izuez, baina eginahalak eginahala, alferrik. Atmosfera bera zalapartaz betetzeak ez baitio jesarrita daraman gogoaren isiltasuna baretzen.

Eta lankideei eguneko milagarren, mila eta batgarren, eta mila eta bigarren irribarre zuriak eskaini ostean, jesarri da. Orain telefonoa orro betean, orain ordenagailua dizdizka, gibel-masailak aitzinera eta atzera, orain nagusiaren bulegora, orain fotokopiagailu ondora. Baina gogoa, beti bezala, jesarrita, gupida bako orratzen dantzaldiaren esperoan.

Bueltakoan ez du esatariaren beharrik izan, hura gabe ere nahikoa hitz-aspertu aditu baitu automobil koitaduak. Azkenean, aseguru-etxeko izkina, eta eguneko mila eta hogeigarren irribarrea hankadun aho horrek lapurtu dio, ezinbestean.

Sarrailak eguneroko lez "onki xin" xuxurlatu dio maitekiro. Berak gonbitea bere egin, eta lotsagabe-lotsagabe sartu dio giltza. Sarrailari azken musua eman ostean, arnasa sakon hartu du, datorkionari aurre egin ahal izateko, ea gaur zer panoramarekin egiten duen topo!

Zaharrenarengana hurbiltzeko parada hartu du lehenbizi, baina horren zaunkek ez diote sobera gerturatzen laga. Zaunken oihartzunaren eztenkada uxatzen ari delarik, etxeko ttikiak etorri zaizkio arrapaladan. "Gure txirripristiñ, ba al duzu txokolatezko musurik? Izango ez

du ba! Ai, *txirripristiñek* txokolatezkoa, nola *ipurterrek* marrubizkoa, biak ala biak inozentziaz zipriztinduak. Eta giza bihotzak ekiteko nahitaez behar duen eztitasun dosiaren ostean, begirada telebistan iltzatua duen gorpu(tz) aren musua, izotzezkoa azken hori.

Iluntzeroko usadioak buruturik, eguerdian garbituriko sukalde zikina du zain, iluntzero lez. Orain patatak zuritu, *txirripristiñek ipurterreri* hozka egin omen dio, gero arrautzak irabiatu, i*purterrek* mendekua hartu ez du ba, jarraian orea frijitu, “nork lagunduko dit mahaia jartzen?”, azkenik, afaria egina dago, mahaia jarria, eta gogo jesarri hori orroka, “afaltzeraaaaaaaaa!”.

Etxeko ttikiak berriketa bizian dabiltza, gaur bere lagun-minak estropezu egin eta hanka zauritu omen du, beno, eta bitartean beste lagun-min batek barre egin honen baldarkeriari, baina eskerrak han beste lagun-min bat zen bere lagun-minari laguntzeko. Bai, berak ere lagunduko zuela ingurumariotan ibili izan balitz, baina beste lagun-min batzuekin ezkutaketetan zebilela, eta ez omen da jabetu, bada. Hori, ordea, ahuntzaren gauerdiko eztula baino ez omen, beste aho ttikiak bizi izan duen egunarekin, txangoa egin baitute gaurkoan. Eta aho ttikien jarioak jesarria zuen gogoa iratzarri dio, zeinak galde egin dion ea noiz elkartu zen azkenekoz bere lagun-minekin. Halaber, oraingoan ere ez du erantzunik topatu; eta zoritxarrez, aho ttikien solasaldiak ez dio gogo jesarriak dabilkion oihartzuna isilarazi: “ba al duzu bada lagun-minik, minik, minik, nik, nik, nik, nik, nik, nik, nik”.

Berak bere eguneroko eguna kontatu ostean, beste bi zokormazo haiei galde egin die, euren egunaz. Batak, sor-

baldak jaso (zaunkarik gabe, apartekoa txo!), eta besteak, “egunero lez”, izotzezkoa hori ere.

Bi ttikiak euren atsekaberako estu oratu, eta ohera eraman ditu erdi hegan. Segidan, hirurek hain atsegin duten eguneko mementoa, gaueroko ipuina. Gaurkoan “Matxinbentako Joxerena” kontatuko die, mila eta bat bider errepikatua dien arren, euren kuttunena baita. “.... eta atera dadila Matxinbentako plazan, amets goxoak izan ditzazuela”. Egunero lez, umeen logelako atea begi hezeez hertsi du, haurtzaroko oroitzapenen itsaso gazian murgildurik. Oraindik ere hain irreala suertatzen baitzaio aitaren hutsunea, “Noiz bueltatuko da ba aitona?” galdetzean errealitateak gainezka egiten baitio. Gaueroko ipuina kontatzean ere antzera jazo ohi zaio, aitaren ahots leuna hain iltzatua baitu bere gogo noizbehinka itzarrian, ezen usadioen transmisioak pott eginda lagatzen duen. Gaur, gainera, ohi baino gehiago iratzarri zaio gogoa, gure Joxeren peskizen erruz. Eta hain ahul dirudien gogo noizbehinka jesarriak galde egin dio ea nolatan zuen matxinbentar aldrebesaren ipuina kuttunen. Baina, beste behin, ezin izan dio erantzunik luzatu.

Ondoren eguneroko madarikazio berbera, “oraindik lar goiz da ohera joateko!”, “zu ez zara etxe honetako agintaria!”, eta azkenik egundoko ate hotsa, kank. Kank, itzarri zaio gogoa. Eta beronek ohartarazi dio gaur ere zaunkek eta kankek ez diotela odola berotu. Orduantxe jabetu da, euren arteko amorrazioak ere agendan programatu beharko lituzkeela.

Hasperen sakon batek suntsitu du egongelako isiltasuna. Berton, bi gorputz jesarri ageri dira, bi gogo jesarri. Baina gogo bat noizbehinka bederen itzartu ohi

da, eta uneotan ere halaxe dabil galdezka-galdezka, noraezezean. Gero eta maizago datorkion sentipena gailendu zaio gaurkoan ere, “behingoz iritsi zait lasaitasuna”. Halaber, gaueko lasaitasuna alegiazkoa da bere etxean, kume bakoitza lotaratu ostean okerrenarekin egin behar izaten baitu topo. Gaurkoa ere halakoxea izango den susmoa du berak, isilune herabeak bat bestearen segidan.

– Eta zer, zelan? –galde egin dio alboko gorpu(tz) horrek.

– Ba betiko martxan –ihardetsi dio automatikoki.

Eta berriz isilune dantzaria gelako atmosferan, bi gorputz jesarrien arteko harreman izoztuan. Baina berari azken aldian maizegi suertatu ohi zaion lez, gogoa desizoztu zaio, eta galdezka hasi zaio, ea zergatik galtzen zaizkion hitzak bihotzetik ahorako bidean. Halaber, hain dugu xaloa, ezen mojek erakutsia praktikatzen jarraitzen duen, “las coletillas las tragais, como buenos ciudadanos”. Ba horixe, “majo izorratuta” izeneko arantza bihotzak irentsi diola, gauero lez.

– Lurreratu e!

– Barka nazazu, zer zenion?

– Ez ba, oporraldia ere berehala datorkigula, eta ez legokeela txarto ihesalditxoa egingo bagenu; errutinaren hatzaparrak ahazteko bederen.

– Ez, ez legoke gaizki -ahoskatu du automatak.

Beste behin eleak uxatu zaizkio bihotz-aho bidezidorrean. Eta taupadatik taupadara, “Kar, kar, errutinaren

hatzaparrak, kar, kar", aditzen omen zaio. Berriz ere ditxosozko gogoa izkina batetik galdezka, bihotza beste ertzetik kristorenak eta bi botaz, eta azkenik, izotzezko automata hori berriketan. Berak jada ahaztua du hiruretatik nor den, ahaztuak ditu automatarik existitzen ez zen sasoi haiek, eta ahaztua du bihotza ahoraino iristen zitzaion aroa.

– Ei, hau ospatu beharra dago!

– Ospatu, zer?

– Egingo dugun oporralditxoa -dio errutinaren hatzaparrak beraren gibel-masailetan pausatzen dituen bitartean.

– Bai, bai, bai noski! –ihardetsi du automatak.

Martxan jarri automatikoa eta kitto, gainerakoa bakarrik doa. Gaurkoan sofan, bihar ohean, nola etzi hoteleko ohe tzarrean. Hasperenak, saltotxoak eta ferekak; 3x1 delako botoia zanpatu eta voila! "Baita nik ere, hori, maite zaitudala". Eta bere burua aditzean barregura sortzen zaio, zeinen ergela den daramaten bizitza. Oroitzen baititu automatikorik gabeko ferekak, monotoniarik gabeko hasperenak eta errutina ezagutu ere egiten ez zuten egunsentiak. Eta gogoak "zergatik amaitu zen?" galdetu dionean, "ba lana eta nekeagatik, nik uste" erantzun dio, gogoari azalazalean gelditu zaion harrabotsa.

Bere oheko ezker aldean sartzean oroitu da ohea bat bakarra zen sasoiez. Bai, izan ere egun fantasia dirudien arren, euren ohea halako anarkia bat izan zen. Lehen eskuinaldean zein ezkerraldean esnatu ohi baitziren, ez zuten inolako jabetza partikularrik. Denborak, ordea, Palesti-

nakoa baino astunagoa den hesia eraiki die; eta eurek aldiz, denbora-andereari jazarri beharrean, lasai egiten dute lo, norberak bere aldean, beti ere.

Eskuinaldetik zurrunka hotsak iristen zaizkio, patxadaren seinale. Baina tamalez, patxada urri iristen da hesiaz bestalde. Berriro ere, hirukote madarikatua! Automatak dagoenekoz oin eta hanka-zuztarrak lokarrarazi dizkio, bihotza "berarekin hitz egin behar duzu", eta gogo zalantzatia gauero lez ernatzear. Ez da posible halako galdutasunek gidatzea bere bizitza, eta noraezak irautera makurraraztea. Izan ere, azken urte hauek halaxe bizi izan ditu, gupida bako orratzen dantzaldiei begira, esperoan. Eta gogo malapartatu horrek mirariren baten zain edo ote den galdetzean, betikoa, erabaki gabezia. "Ba ez dakit, nik uste, hala ote, omen, iruditzen zait..." eta lakoak erabili bakoitzeko mihia garbitu beharko balu, urratuaren urratuaz, mihia disolbatuko luke. Baina akaso, bere arazoak ere asko du garbitasunetik edo beronen faltatik. Izan ere, mihia aratzegi du, bihotzak zikinduko duen beldurraz; eta automata, aldiz, lanpetuegi eta zikinegi, gogo dantzariak noizbait garbitzeak seko izutzen baitu.

Eta egunaren akabantza iritsi da, nekeak gorputza lapurtu dio, eta orduantxe kink entzun da bere baitan. Eta supituki, arrapaladan datozkio irudiak, erantzunak, oroitzapenak, eginbeharrak, eta ez, inolaz ere ez dira "ez dakit, nik uste..." eta gisakoak aditzen. Bera hasiera batean apurtxo bat larritzen bazen ere, egun, patxadaz hartu ohi duen errituala. Izan ere, gauero-gauero, gorputza loak hartzen dionean, gogoa pizten zaio. Baina, gauekoa ez da itzarketa soila izaten, zeinetan gogoa galdezka aritzen zaion. Ez horixe, gauetan, gogoa ernatzean, ez du zalantzarako parada-

rik hartzen, eta ez ei du gupidarik izaten benetan sentitzen duena adierazteko.

Gaurkoan mila eta bi bota dizkio: irribarre zuriak direla, sarrailarekin izaten dituenak baino sartu-atera hotzagoak, etab., betiko martxan. Baina beste zenbaitzuk oihartzun ozenagoa sorrarazi diote. Gogoak errukirik gabe esan baitio, lanak eta nekeak ez dutela inolako errurik; eta bukatu bazen eurek gura izan eta burutu zutelako izan zela. Txarrantxa madarikatuarekin ere paretsu, nola suge-mihiaz esan dion, paretari "Berlingo paretaren" patua desiratzea alferrikakoa dela denborak kokatuko dituen harrien zamalana egiten duten artean. Hainbeste pozoi irenstea zaila suertatu ohi da, baina are eta nekezagoa da errealitate direnean. Bera hain gelditu da akituta, ezen gogoari berari ere errukarri iruditu, eta gogo dantzaria bere kabuz itzali den.

"Trinnnn trinnn" –oihukatu du iratzargailuak.

"Egun berri bat dun aurretik" esan du kolkorako, eta ezinbestean, ohetik jaiki da. Bihotzak hitzok aditzean, sekulako algara egin du, "berri zion txolin honek, bere bizitzan berritasunik ba al da, bada! Kar, kar". Baina gogoak ez du paradarik hartu bihotzarekin kalakan aritzeko, asko baitago egiteke.

Lehendabizi nerabea itzarrarazi, segidan gosaria prestatu, ttikiak jaikiarazi, jaten eman, etxea jaso, eta jarraian lanera. Eguna ekintza betean bizi ohi du, eta beretzat duen aldi apurretan daraman bizitzari zentzua hartu nahian aritu ohi da, *total, patatas*!. Agüero, aldiz, ohera sartzean pentsatu ohi du biharamuna iraulia argituko dela, edo biharamuna ez bada etzidamua edo udako oporrak, edo zer esanik ez neguko oporraldia! Bai, izan ere, eguberria iritsi

bezain pronto, urteko nekeak eta ezbeharrak 7 zentimetro karratuko paper zati batean pilatzen ditu, honek behingoz uxatuko dizkion itxaropen faltsuan. Baina zoritxarrez, eguberri orotan gertatu ohi zaion lez, zenbakiek traizionatu egiten dute estatu horren mesedetan, eta nekeak eta ezbeharrak bere baitan irauten dute, gizenago gainera.

Eta gauetan kink hotsaren ostean, gogoak ohartarazi ohi dio, “esperoan irauten dun, hasi hadi behingoz bizitzen”. Berak sobera daki itxaroten bizi dela, baina ez da kontu berria. Izan ere, ttikitatik egin izan duena da, zain eta zain iraun. Eta zergatiaz galdetzean, berak badaki erantzuna. Oraindik oroitzen baita nola zioten “10 urtera arte itxaron beharko dun”, nola, “ez esan txorakeriarik, gazteegia haiz”, nola “Et, et, et, et, ezkondu arte, *ni pensar*”, nola itxoin behar hori erraietaraino sartu zioten. Hortik aurrerakoan ere, urteetan hain ondo adituagatik, bere burua aski zen esperora makurrarazteko: “Etxetik joatean orduan bai!”, “ikasketak amaitzean”, “lana topatzean” , beti geroaldi horretan zoriontasuna aurkituko duelakoan.

Duelakoan duelakoan, baina azkenean, itxaropen faltsu horren morrontzapean. Eta berak errua gizarteari bota ohi dio, jan duenagatik sentitzen baita hala. Baina izatez, ez da inoiz saiatu aske izaten. Egun baino gehiago izan da, bai noski, baina berak ere badaki borrokatzeari aspaldi utzi ziola. Izan ere, oraindik oroitzen da egun alboan duen gorpu(tz) hotz horrek nola zin egiten zion sekula ez zirela ezkon-epailearen paretik pasako, nola ez zutela sekula santan haurrik munduratuko. Baina euren ametsak, euren desioak kakatzan. Ezkontzearena ere, pentsatu gabe egin baitzuten, inguruko denak banan-banan erortzen ari zirelaeta beraiek bat-batean zirko haren erdian ikusi zuten elkar.

Jarraian, hiritar onak bezalaxe, 3 haurtxo, eta kitto; gizarteak diotsu zeure betebeharrak txukun beteak dituzula, jada beste hamabost bat urte lanean iraun dezazula, eta gero erretiroa oparituko dizutela. Eta bizitzaren aldi honetan, bere buruari galdezka hasi da ea benetan nahi ote duen egin zuena, baina berak ere badaki beranduegi dela.

Aspaldion sentipen latz hori du, ez ote den “moldearen bizitza” bizitzen ari, bere bizimolde propioa sortu beharrean. Izan ere, umeak maite ditu, mundu honetan beste ezer ez bezala, baina badaki eurengatik bizitza eman duela, eta benetan barrenak eskatu gabe egin zuela, ezinbestean. Gorpu(tz) hotz horrekin ere antzera, elkarri bizitza oparitu diote, baina zeren truk? Euren artekoak ez al du zorigaiztotik onetik baino gehiago? Azken batean, berak ondotxo daki bizitzan ez duela behar beste ausardiarik izan diktatutakotik ihes egiteko.

– Bai, oraintxe noa, laztana!- dio berak, arrats gozoaren ahotsaz.

Dilin, dalan, dilin, dalan. Eta ohartu da, ez dagoela dulunik ez dolonik. Soilik dagoela dilin, eta soilik dalan. Segidan jabetu da, ttikitatik sartu izan diotela gizartean soilik daudela dilinak eta dalanak. Soilik daudela kristau onak, eta ateo moral bakoak. Ez daudela pertsona aldian gaiztoak aldian onak, ezta txinatar alturik ere. Gizarteak zuriari eta beltzari bakarrik ematen diola kabida. Alegia, grisa alegiazkoa dela. Alegiazkoa, alegiazkoa ez, baina zuria ez den oro da beltza.

Eta horregatik sartu zioten izua iluntasunari. Horrexegatik esan izan diote ezkontzeko, eta haurrak izateko, molde horretatik ihes egiten duena grisa baita, beltza.

– Gehiago, gehiago, eguzkia ukitu arte!

Eguzkia? Existitzen al da ba argirik? Eta albora begiratu du erantzun eske. Berak parkean dauden pertsonen irriñoak ikustean, galdetu du ea pertsona horiek argiak epeltzen dituen. Eurak ziur aski lasai biziko dira, berea egina baitute, eta euren gabezia txikiak 7 zentimetro karratuz estaliaz zoriontsu biziko dira, ongizate osoan. Orduantxe ohartu da, akaso, argia izatez badela, zuriontzat bederen. Alegia, gizarte honetan, gogoa jesarririk mantenduz gero, ongizatearen morrontzan, patxadan eta argipean iraungo dugula. Arazoak, aldiz, gogoek kink egitean sortu ohi direla. Tamalez, azken aldian sarriegi egiten dio gogoak kink, iluntasunak aspaldion seko bereganatua dauka, eta zoritxarrez, iluntasunean bizitzen ikasi baino, argi bila irautera mugatzen da.

– Berandutzen hasi da, bagoaz etxera!

Baina berandutzen zertarako? Dena popatik bota eta aske bizitzen hasteko? Berak badaki beranduegi ohartu dela, automatari baino bihotz eta gogoaren arteko txalapartari kasu egin beharraz. Beranduegi izango zaio akaso. Baina halaber, beranduegi da automatari eman eta aseguru-etxepeko izkinako pertsona bailitzan bizitzeko. Beranduegi da, gogoak kink bortitza egin baitio.

Horrexegatik, deliberatu du farmaziarako iparra zehaztea, baina, kaka zaharra, beranduegi da, itxia dago. Noraezean hartu du etxerako bidea, bi itzal ttikiak alboan dituela. Bere baitarako dio, gaur gaupasa kilikagarriarekin duela zita, eta tamalez hori ez dela sekula berandutzen.

– Nik aspaldi esan ninan- algaraka bihotz lotsabakoak.

– Barka nazan, tamalez beranduegi iratzarri naun- diotsa gogoak apalki.

Automata, aldiz, mutu da. Gaur beste bi hauek txalapartaren jardunean ikusteak seko beldurtu baitu, eta badaezpada ere bere leizean gorde da. Baina lasai dago, bai baitaki bera bihar farmaziara begizuloz josita baina garaiz helduko dela, eta orduan txanda helduko zaiola.

Berak ere badaki bihar farmaziara garaiz helduko dela, eta badaki, jakin ere, astelehenero garaiz iritsiko dela, 15 pilulako kaxan bakarra gelditzen dela ikusteak seko izutuko baitu. Ondotxo daki beranduegi dela, eta beranduegi bada berak nahi izan duelako dela. Horrexegatik, ez da kondenaz kexatzen. “Finean, kink hotsa sekula santan gehiago ez aditzearen prezioa bada, gora kondena!”

Etzi ere, aseguru-etxepean itxarongo du...

# Canzone triste

Josu Narbarte Hernandez
Pio Baroja institutua
Irun

*(1922)*

PRIMO TEMPO

– Signor Angelo Polo!

Berrogeita hamar urte inguruko emakumea zen karrika erdian oihuka ari zena, eta ez inork ere ez entzuteko moduan, hain zuzen ere. Eskuak aldaken gainean pausaturik, gizena, garaia, bilo beltza buru atzeko motots mardulean bilduta, pikaroena ere izutuko zuen haren begirada hiratuak. Bere haserreak, alabaina, morroi bakarra ikusten zuen zorionez; izan ere, gazte beltzaran bat baitzetorren bi neskatila politekin solas alaian. Emakumea, mantala zuria soinean, atarian bere zain ikustean, haren ezpainek irrifar bihurria marraztu zuten, apaltasun osoz agurtu aitzin:

– Aspaldiko partez, *signora* Rossini. Pozten nau zu berriro ikusteak. Egun zoragarria gaurkoa, ez duzu uste?

– Utzi xaboia besterentzat, bizizale herabegabe halakoak!, enekin ez baitu deusetarako balio. Lau hila-

bete, eta bakar bat gutiago ere ez, desagerturik, eta alokairua ordaindu gabe bistan dena! Jakin daiteke non arraioa ibili zaren, ala oraingoan ere ez duzu azalpen ziztrin bat ere emateko asmorik? *Mamma mia*, eta bizkitartean ni bizitzekoa halamoduz ateratzen... lotsa behar zenuke. Eta, gainera, orain bat-batean azaltzen zara daitekeenik kopeta handienarekin, zer eta badaezpadako izeneko bi... bi kaskarinez lagundurik! *Madonna!*

Angelok ez zuen zirkinik egin *signora*ren erretolika gupidagabeak iraun artean. Guztiz alderantziz, zuzenean beha zegokion ezpainetan irrifarra dantzatuz, eta aldi berean argi erakutsiz zeinen guti axola zitzaion maizterraren haserrea.

– Zinez sentitzen dut, *madonna,* baina halabeharra izan da hain denbora luzez hiritik kanpo izan nauena, ez ene nahia. Gustora kontatuko nizkizuke orain ene gorabehera eta abentura interesgarri guztiak, baina… ez zaitut aspertu nahi. Buruan duzuna dirua baldin bada, berriz, hurrengo hilean bikoitza... ez, hirukoitza ordainduko dizut. Badakit ez duela azken hilotako... larrialdiak konpontzeko balio izanen –eta hau esatean ezin izan zuen irri sarkastikoa saihetsi–, baina gutinaz larruzko txamarra bat, edo beste zerbait erosten ahalko duzu. Enekin datozen bi *signorina* xarmant hauen izen onari dagokionez, ez iezaiozu otoi buelta gehiagorik eman buruari, nihaurk erranen baitizut argi eta garbi: putak dira, eta nirekin datoz. Zera... Gilda eta Magdalena, *signora* adeitsu hau Ursula Rossini duzue, etxekoandrea. Olagarroa inork ez bezala prestatzen daki. Tira bada, neskatila eder hauen ‘badaezpadako’ izenari buruzko zalantzak argiturik, eta ez baldin baduzu deus gehiagorik, etxekoandre, *scusa*... barnera goaz, akiturik bainago izan ere... Egun ona izan, Ursula –baina oraingoan ahantzi egin zuen ‘*signora* Rossini’ deitzea, nonbait.

Rossini andreak etxean sartzen ikusi zuen. Gero, burua astinduz, pareko eraikinerantz bideratu zen, bere etxebizitzarantz.

– Sinesgaitzena zure izena Angelo izatea da, *golfo*. *Un vero angelo!*, bai, alafede! *Mamma mia,* egungo gazteak. Ezin ukatu, hala eta guztiz ere, berezkoa duela nornahi liluratzeko gaitasun hori...

* * *

Angelo ohantzean etzan zen, biluzik. Hasperen egin zuen, leihotik eguneko azken eguzki izpiak hiriko teilatu gainetan alfer herrestan ikusten zituen artean. Urrunean, Hadrianen mausoleoa ikusten zen gainerako eraikinen gainetik harro.

– Sant'Angeloren gaztelua –murmurikatu zuen, bere aldamenean Gildaren adatsa laztanduz. Patxadaz, pipa tabakoz betetzeari ekin zion–. Nik abizena dut faltan, ordea. Angelorena soilik balitz, ez nintzake ni kexu –eta irri garratza atera zitzaion zintzurrean goiti–. Baina ez nintzen duke izateko jaio. Betiko kontua, batzuek hainbeste eta besteok batere ez.

Erromara natorren bakoitzean berdin harritzen nau. Hain zaharra izanagatik ere hain bizia. Ikusi duzu Ursula. Egunen batean, esnatu eta bere burua errietan nori egin gabe kausituko balu, seko erotuko litzateke ziur. Hain bizia da Erroma, bai, baina handia eta ohoragarria aldi berean.

Baina utz ditzagun alde batera ene kabala erromantikoak; badugu gauza garrantzitsuagorik orain egiteko. Lehenik eta behin, zure entrega. Zuek biona, zehatzago esateko.

– Entrega? –neskaren begiradak harridura zerakusan. Angelok pipari putz egin zion ihardespena eman baino lehen.

– Bistan dena, *cara*. Nik sinatu kontratuan ez zen zuek Genoatik Erromara ekartzea baizik. Afera garrantzitsuak ditut orain buruan, gainera, eta ezin izanen nuke zuetaz kezkatu, nahi izanda ere. Gizon bakartia naiz, kar, kar, kar...

Jantzi beraz. Croce zain izanen dugu Santa Barbaran. Emakume ona da... apur bat pitzatua, ezin uka, baina ongi zainduko zaitu. Nik haren semea ezagutu nuen, mutil fina inongo zalantzarik gabe, baina ama bera baino txoriburuagoa... Sarri garbitu zuten alabaina, negozio arriskutsuegitan sartzen diren bihotz onegiko gizarajo gehienak bezala, eta orain Croce gaixoak ez du Piazza Vitoriako zapatadendan lan egitea besterik, ala puta. Gogorra da bizitza, bai, badakit topikoa dela, baina halaxe da...

Baina non da Magdalena? Erraiozu bere gauzak jasotzeko. Berandu gabiltza, eta Crocek ez du bere denbora galtzea maite.

Croce irrifar gozoko andre ximurra zen. Santa Barbarako ostatu bateko mahai aitzinean eserita topatu zuten haien aiduru, ostalerarekin blagan. Begia kliskatuz agurtu zituen.

– Ez da izango? *Angelo caro!* –indarrez besarkatu zuen. Zutik jartzean, begibistan gelditu zen bere tipitasuna–. Bizirik baina! Noiztik...? Ene, gazte, alditik aldira ziratsago ikusten zaitut!

Angelok irri egin zuen hortz artean, kapela kendu eta mahai inguruan eseri bitartean, Croceren parean.

– *Buona sera*, Croce. Pozgarria da zu berriz ikustea, eta oraingoan bai, zinez diot.

– Pirata horrek! *Ma, contami*... non ibili zara denbora honetan guztian? Sarri, kontatu dena! Guztia jakin nahi dut.

Oraingoan algara lotsagabea atera zen Angeloren zintzurretik.

– Ulertzazu, xehetasun guztiak ez dizkizudala kontatzen ahal... Sekretu profesionala, badakizu. Erranen dizut, nolanahi ere, jende bitxia eta anitz leku, biziki interesgarriak, ezagutu ditudala... Marseilla, eta Padua eta Venezia. Diru mordoxka ere lortu dut, zorionez. Zertan ibili naizen eta norekin, gorde egingo dut.

– Ongi eginda, gainera! –emakumeak, begia berriz ere kliskatuz–. Ez nuen zugan halako interesik hartu izanen beti inguratzen zaituen misterio hori gabe...

– Afera garrantzitsuagoei loturik –gazteak lehenbait lehen finitu nahi zuen bere eginbeharra–, eta zuk dendarako laguntzaile bat behar zenuela esan zenidanez... hemen dituzu bi *ragazza* eder hauek. Genoan ezagutu nituen, zera... ostatu batean zerbitzari –begirada esanguratsua zuzendu zien, isilik egon zitezen aditzera emanez, nahiz eta argi izan dena ongi kalkulaturiko antzerki-tramitea baizik ez zela.

Croce, bizkitartean, luze egon zen pentsakor eta isilik, berari so, eta gero burua astindu zuen hortz artean irri eginez.

– Banengoen ba ni ez zintzaizkidala besterik gabe, bisita hutsean etorriko. Ez zara inoiz aldatuko, *angelo mio*.

Benetan uste duzu ni bezalako atso maltzur bati gezurra esan eta ziria sartzea lortuko duzula? Kar, kar, kar! Tolesgabea... Zure mundu horretan sarturik bizi zara, mundu zabala korrituz ezinezko ametsen baten gibeletik, eta ahaztu egiten zaizu denok ez dugula zu bezalakoak izatearen zortea. Bihotz zabalegia, zure buruaz baino kezkatzen ez baldin bazara ere.

Angelok ez zuen zirkinik egin; huraxe zen, hain zuzen ere, atsoarengan eragin nahi zuen erantzuna. Gora begiratu zuen, zertaz ari zitzaizkion ez baleki bezala.

– *Nostalgico, sognatore; ma non troppo. Sono giovane, è tutto...* –ihardetsi zuen gero irrifarrez, begirada eskuetara jaitsita.

Andreak bi neskei erreparatu zien orduan.

– Zuk –esan zion eztiki haietako gazteenari–. Nola duzu izena, *cara?*

– Gilda, *signora*.

– Gilda... genoarra?

Burua astindu zuen.

– Florentziakoa.

– *Fiorentina!* Eta zenbat urte duzu?

– Hamazazpi, *signora*.

Emakumearen bisaia ilundu egin zen, errukia eta hiraren artean. Angelori zuzendu zitzaion:

– Ongi da, gazte. Ez dakit zertan aritu zaren, ezta bi neskato hauek nondik atera dituzun ere... Hala ere, lepoa jokatuko nuke egoera kaskarretik ateratzen lagundu diezula, ez da hala?, eta bejondeizula, baina... ziur izan ote naiteke bi hauek etxean harturik?

Bestalde, argia izan zara nigana jotzean, ongi baitakizu ez nagoela uko egiteko egoeran... Ene adineko emakume batek ezin du bakarrik bizi. Zapatarigintza astunegia da dagoenekoz enetzat; eta airetik ezin bizi. Beraz...

Baina bietan gazteena baizik ezin dut hartu, dendak ez baitu gehiagorako ematen. Dena den, zu ere etor zaitezke gaurkoz –gaineratu zuen Magdalenari begira–. Ikusiko dugu zer kokapen topa dezakegun zuretzat. Eta Jainkoak lagun gaitzala.

Angelo ostatutik ateratzera zihoanean, atsoak besotik heldu eta, musu ematen zion aldian, xuxurla larria utzi zuen bere belarrian.

– Argi ibili, Angelo, *caro*. Dantza deabruan sartua zaren susmoa dut; ez ezazu estropu egin.

(STACCATO)

TEMPO DI VALZER

Angelok kolpe basa jo zuen mahai gainean.

– Erranen didak zer dakien atsoak?

Bere aitzinean, Arno Cornarok ufa egin zuen, keinu batez ahotsa apal zezan erregutuz.

– Jaitsi botza! Hemen inguruan jendea bizi duk, konturatu ez baldin bahaiz ere. Eta lasai hadi, bai? Erran diat: sorgin zahar horrek biziki maite dit mihia dantzatzea; ez denean hostia milikatzen, berriketan... baina ez zakik deus ere, hago ziur. Nola jakinen zian, ba?

Angelo, jaikirik, tinko beha gelditu zitzaion. Arnoren bisaiak keinu hormatua itzuli zion. Erromatar beltzaranen artean berehala erakartzen zuen Arnok arreta; denek galdetzen zioten euren buruari zer arraiotan ari ote zen iparraldeko mutil kozkor hura, lanbide ezagunik gabe hirian bueltaka, izan ere ez baitzuen, buru horail eta bizkar zabal haiekin, benetako erromatarren antzarik; eta hala nabaritzen zen bere izaera isil eta lasaian ere.

Hala ere, gazteak nornahiri zuzentzen zion irrifar ahalgetua bistan, gutxik pentsatuko zuten afera ilunetan nahasirik ibili zitekeenik, eta ez horretarako arrazoirik ez zutelako, pentsatzen zuen Angelok ironiaz. Orain, kandelaren argi eskasaren gainean, haren begi berdeak dirdira hotzaz dardaratzen ziren; hura zen ia gelako mugimendu bakarra.

Arnok berak hautsi zuen isiltasuna. Begitartea lasaitu eta aulkia atzera botaz, giharrak luzatu zituen, lagunari bera bidaiari zebilen artean hirian agitua kontatzeari ekin baino lehen.

– Gure lagun Benito harroturik ibili duk azken aldian.

– Ez da izango! –trufatu zen Angelo keinu lizun batekin.

– Badakik, agintea erdiesteko ahaleginetan zabilek, eta paparra ateratzen dik oilarren gisan, erregearen arreta

bereganatzeko... Ez gaitik maite bistan dena, gorriegiak haren gusturako, kar, kar, kar...

– Harrapa ezak hori! Nork eta berak erran behar halakorik, ala puta.

Bada ni iparraldean izan nauk Gennarok agindu ‘afera’ bat garbitzen...Giroa nahasirik zabilek han goian: Genoan egunero aditzen dituk borrokaren baten inguruko zurrumurruak, eta Turinen gazte bat hil ziaten orain hiru egun.

– ...eta Venezian?

Angelo algara batean hasi zen.

– Hago lasai. Hire Venezia maitea kontu guztiotatik aski apart mantendu duk. Fascioetan sarturiko bizpahiru gazte hortzak zorrozten, eta kitto; gainerakoan, denek deus ere agituko ez balitz bezala egiten ditek. Hire etxean izan ninduan, hain xuxen ere; Clara haurdun zagok berriro.

Ihardespen sarkastiko honen ondotik isiltasuna nagusitu zen berriro, Arno zer esan jakin gabe gelditu baitzen, etxekoak gogoan. Angelo leiho irekira hurbildu zen, laguna bere oroitzapenekin bakarrik uztearren. Ilargirik ere ageri ez den gau beltz itogarri horietako bat zen, eta ez zebilen beraz aire apurrik ere. Leihotik begira, han-hemenka argiztaturiko leiho bakan batzuez gain, deus guti ikus zezakeen, apenas alde zaharreko monumentuen argiak urrunean.

Baina Angelok maite zituen Erroma eta urteen zamaren azpian makurturiko bere gauak, aire estatiko epel hartara elkitzea eta momentu horretan beste inork ikusiko ez zituen gauzak ikustea. Kalekantoian katu beltzaren an-

tzera ibiltzea, aske eta isil. Eta toki gutxi aurki daiteke horretarako Erroma bezain erakargarririk, non kausitzen ahal baita istorio hilezkorren bat harri bakoitzaren azpian...

Sforzando. Forte subito.

– Zer arraioa?

Mugimendu bat iluntasunean, txinparta bat eta danbateko lehor bat. Segundu erdiz, Angelok ez zuen jakin zer ari zen gertatzen; bere bizkarrean Arnoren oihua aditu zuenean, berriz, kolpean ulertu zuen dena, eta, Crocek ohartarazi bezala, dantza mutu haren erritmoa bat-batean bizkortu zen. Atzera bueltarik gabe.

Tiroa kaletik etorri zen, Angeloren belarri ondotik xistuka pasaz; gazteak bi aldiz pentsatu gabe egin zuen jauzi leihotik kanpora, lurrean kolpe batez erorita. Eskuin aldean norbait korrika nabaritu eta gibeletik joan zitzaion. Ez zitzaion asko kostatu haren parera iritsi eta zangotraba batez lurrera botatzea.

– Sasikumea! Koldarra, emak aurpegia bederen!

Mugimendu bortitz batez altxatzera bortxatu zuenean, hamasei urte ere izango ez zituen mutiko izutu baten begiak topatu zituen. Eskuan pistola zatxikien, harekin zer egin ez baleki bezala (noski, ez baitzekien zer egiten ari zen harekin, pentsatu zuen Angelok berehala). Paparrean berriz, fascioen ikurra. Angelok madarikazioa bota zuen.

– *Merda!* Ume ergela... nork igorri hau? Erran!

Baina mutikoa, dardara batean, ez zen hotsik ateratzeko gai. Amorruak eta inpotentziak janda, Angelok garrasi

egin zuen. Mutikoari sabelaldean ostikada basa jo eta, han utzirik, Arnoren etxera itzuli zen lasterka. Atarian aurkitu zuen, aurpegia erabat zurbil, sorbalda gaina zapi batekin estutuz. Balak besoan jo zuen antza, eta odola galdu eta galdu ari zen. Hurbiltzen ikustean, korrika etorri zitzaion.

– Angelo, Angelo!

– Ala puta, Arno, hator... ibiltzeko gai haiz?

– Bai... Bai. Zer egin behar diagu orain?

Beste aldera begiratu zuen agunari heldu eta oinez hasten zirelarik. Ez zen Arnori hala aitortzeko kuraia izan, baina ez zuen ideia izpirik ere.

## TEMPO FINALE

Trastevere auzuneko etxe polit batean zeuden; itxura lasaia eta garbia zuen inguru osoak, eta inork ere ez zuen pentsatuko deus interesgarririk gerta zitekeenik pareta haien gibelean.

Gela handia zen, paretak liburuz jositako apalategiek estaltzen dituzten horietakoa. Mahaiaren inguruan lau pertsona zeuden, besaulki erosoetan eserita. Angeloren ezkerrean eta parean ezagutzen ez zituen Alderdiko gizon bat eta emakume bat zeuden, zurrun eta isilik, laugarren gizonaren hitzei adi. Gennaro adineko gizon lodia zen, betaurrekoak jantzita eta puru handi bat erretzen azken hilabeteetako gertakarien berri ematen ari zena.

– Egoera okerrera doa. Atorra beltzak Livornon, Trenton, Parman eta Genoan sartu dira, bortizkeria handiz.

Genoan Alderdiko hainbat agintari hil dituzte azken egunotan. Angelo bertan izan da.

Angelok baietz egin zuen buruaz.

– Gainera –gehitu zuen–, Mussolini Erroman indarrez sartzeko asmotan dela jakin dut. Zergatik ez duten deus ere egiten, ez dakit, baina ziur naiz erregea eta gobernua jakinaren gainean daudela. Bart, gainera, mutiko batek tiro egin dit Salario inguruan, Cornaroren etxean. Arno zauriturik dago.

Beste hiruak isilik gelditu ziren. Haien begiek ikara gordina, larria zerakusaten. Jakina, Angelok hobe zuen gogoratu izan balu Alderdiko kide garrantzitsuekin ari zela, intelektualekin alegia. Erraz izutzen zen jendea.

– Nork?

Angelok irri egin zuen.

– Zalantzarik, ala? Fascioek, bistan dena. Mutikoa harrapatu dut. Paparrean zeraman alderdiaren ikurra, denek ikusteko moduan...

– Eta zergatik ez diguzu ekarri?

– Aske utzi dut –eta, espero bezala, haien bisaiak haserrez piztu ziren. Antza, eurek askoz hobe egingo zuten–. Ume bat besterik ez zen, eta une hartan lan aski nuen Arnori laguntzearekin. Lehena beti da lehena, baita ni bezalako bihozgabe batentzat ere... Sentitzen dut, beharbada gehiago espero zenuten nigandik –gehitu zuen, sarkasmoz.

Azkenean, zaharrak arrazoia eman zion keinu batez, eta beste biak ez ziren kontrakoa esaten ausartu.

– Non dago orain? –galdegin zion Gennarok, autoritate-doinua erakusteko ahalegin negargarri batean. Ala puta, pentsatu zuen Angelok, hain zaila ote zen zetorrenerako prestatzen hastea?

– Ongi zainduta. Croceren etxean utzi dut, zauria garbi diezaion.

– Ados –agureak baiezkoa egin zuen buruaz–. Ez gara horretaz sobera kezkatuko beraz. Orain Gobernuarekiko zer jarrera hartu erabaki behar genuke...

– *Perfetto* –arrapostu zuen Angelok, jaikiaz batera–, ez duzue ene beharrik gehiago izanen orduan. Banoa. Aski izan dut honezkero.

Eta inongo erantzunik itxaron gabe alde egin zuen higuina sortzen zion etxe hartatik.

Eguna Tiber inguruan bueltaka eman zuen denbora pasan. Arnok egin ohi zuen bezala. Ez zuen Forura hurbiltzeko adorerik izan, ez baitzuen uste Erroma bezalako hirian bizitzea merezi zuenik. Ez berak ez inork, egia esan; ez ziren garai bateko handitasunari eusteko gai izan, eta zentzurik gabeko borroka traketsetan galduak ziren, ibaiaren alde batean Alderdi Komunistako intelektualek hurrengo urratsa zein izanen zen erabaki artean, beste aldean aski zutelarik, alokairua hilero kobratuz, hurrengo hilera kezkarik gabe heltzearekin.

Horregatik ez ziren orain harri andana bat besterik garai batean munduaren erdigune izanikoa.

Ibaiaren gaineko barandan bermaturik, Angelok esku bat nabaritu zuen bere sorbaldan pausatzen. Bira eman eta

Gilda, Genoatik ekarritako neskatila ikusi zuen, izu aurpegiz berari so. Bazirudien orain ez zekiela zer esan edo zer egin. Bere ondoan Arno zegoen, besoa zapi zuriz lotuta; zurbil zegoen oraindik ere, baina erdi-irrifar batez agurtu zuen.

– Ez genekian non hintzen –esan zion–, eta ni ez nengoan etxe hartan sorgin zahar horren eleketa etengabea luzaroago pairatzeko prest...

– Gennaro ikustera joan nauk.

– Eta?

– Betikoa –ihardetsi zion Angelok ufaka–, eta fitsik ere ez, biak gauza bera.

– Hori ez duk berria.

– Bazakiat, Arno, bazakiat, baina... Ezin diat saihetsi, deus ere ez egite honek barrutik jaten naik. Hain zaila ote duk zerbait... edozer, baina zerbait egitea? Bestenaz Genoan agitua agituko duk Erroman ere, eta sinets iezadak, ez zuan gozoa izan.

– Ni ere han nintzen –Gildaren ahotsa ezin zen aditu abantzu–. Ikaragarria izan zen. Basa. Urde horiek... urde horiek etxean sartu zitzaizkigun.

– Aski da –eten zuen Angelok–. Utz dezagun gaia. Aski izan dut dagoeneko.

Croceren etxera bidean, merkatariz betetako enparantzetan eta karriketan etxekoandreei erreparatu zien leihoe-

tan, karrikaren ertz batetik bestera kalapita itzela sortuz oihuka kalakan, behean haurrak xixtuan pasatzen ziren bitartean oinezkoen artetik. Angelok bere patrikak atxiki zituen, badaezpada ere.

Eta, bizitasun haren aurrean, ezin izan zuen pentsamendu bat ezkutatu; eta, izan ere, hiriak bere izaerari eutsi baldin bazion ia hiru mila urtez, agian ez zen hain larria izango orain zetorkiena. Beste urrats bat besterik ez gurpil amaigabe batean. Eta, ondoren, berriz argituko zen eguna. Betiko gisan. Erromaren madarikazioa izanen zen apika; ez zen hari ihes egiterik.

Ez zegoen zer egiterik, beraz.

# Hamaika aldeko prisma

Mikel Larzabal Aperribay
Xabier Zubiri-Manteo institutua
Donostia

## Txokolate orbana

Eskua altxa, eta txokolate egin berria isuri zuen bere alkandora zurian Francois Pignonek. Hura bai kuxidadea. Txurroa plateraren izkinean dantzan utzi, eta ur hotzez orbaina igurtzi zuen. Artean, emaztea sukaldean sartu zen. Astebete zeraman bere ahizparen ezkontzara zer eramango. Francois larritu egin zen emazteak bota zuen oihuarekin. Umea ematen zuela, eta ez zuela beste jantzirik. Berak soberan zekien hori gezurra zela, baina hobe zen momentu hartan defentsa isilean mantentzea. Emaztea purrustaka irten zen etxetik, ezkongaien ibilgailua izango zen Ford-ari azken ukitua ematera. Handik gutxira, Francois alkandora urdinarekin irten zen terrazara eta bere emaztea lurrean konorte gabe ikusi zuen. Ederrago zegoen horrela. Telebista piztu eta grabatutako futbol partida ipini zuen.

## Ez, jaun-andreak, ez

Ez zen ez Praga, ez Viena baizik eta Londres. Ez zen ez sprinterra, ez triziklodun ume baldarra, baizik eta bizikletan zebilen postari goiztiarra. Ez zen ez kuluxka

erosoa, ez eskale baten deskantsua, baizik eta emakume konortegabea. Ez zen ez errepidean, ez parkean baizik eta etxe atarian. Ez zen ez negarra, ez kanta, baizik eta laguntza oihua nik botatakoa. Ez zen ez, polizia, ez medikua baizik eta bizilagun kontakatilua agertu zena. Ez zen ez harridurazkoa, ez kezkak sortua, baizik eta lasaitasunezkoa, konorte gabearen senarraren espresioa. Ez zuen ez telefonoz hots egin, ez zen sikiera altxa; telebista aurrean jarraitu zuen.

## Niri bost

Emaztearen ahizparen ahotsa entzutean damutu egin nintzen telefonoa hartu izanaz. Haserre zegoen, zotinak hartuta, ezkontzara joateko, autobusa hartu behar izan zuelako seguruen (hori beranduago jakin nuen). Zer egun den badakidan? Larunbata; gainontzekoak niri bost. Ea ez al nuen zerbait ahaztu? setati berak. Beharbada, ezin naiz denetaz akordatu- nik axolagabe.

Horrela jarraitu genuen ordu erdi luzez. Katxondeoz eta ardura gutxiz erantzuten nituen galderak. Niri berdin, autobusez, taxiz edo astoz joan bazen. Egun hartan gutxi axola zitzaizkidan gauzak; edo bestela, galdetu nire emazteari.

## Zalantzak

Argi bizi batek esnatu ninduen. Ez, hura ez zen nire logela. Parean gizon bat eseri zitzaidan galdeketa zorrotzean. Polizia itxura zuen. Ea nire emaztea hil nuen? Ea zertan ibili nintzen atzo? Baina, zertaz ari da? Gogoratzeko errepikatu zidan, eta zaplazteko zakarrak guztiz esnatu ninduen. Esfortzu bat egin nuen. Txokolatea zetorkidan

burura. Bai, txokolatea. Baina zer demontre? Horrek ez du inor hiltzen. Egundoko zaplaztekoa eman zidan orduan. Zerbait gaizki esan nuen, antza. Oihuak gogoratzen nituen. Bai, liskarra izan genuen. Baina, zergatik? Ez nintzen oroitzen. Zutik eta ukabilez jo ninduen. Kolpearekin batera irudi bat etorri zitzaidan burura: emaztea konorterik gabe. Zer ari zen gertatzen? Hura jasangaitza zen.

**Gorroto ditut kuxkuxero horiek**

Eguzkia baino lehenago jaiki zen François Pignon, eta bere burua madarikatu zuen hain emakume zatarraren ondoan lo egiteagatik. Baina, zer gertatu zitzaion? Gaztetan bera zen sasikoadrila hartako neskazaleena, berarentzat ziren ederrenak. Ume koadrila hartan beti izan zen gizonena, ergelen artean bizkorrena. Eta orain, foka hura ohean eta etxeko zapatilak ezin aurkiturik. Baina, non ostia utzi ditu alu honek? Galtzerdiak arrastaka jaitsi zen sukaldera. Leihoaz harantzago, bizilagun kirtenaren begirada gurutzatu zuen. Bizitza pribatua ezin eduki auzo mierda honetan. Espioiak, goizeko zortzietan, falta zena!

**Zer oparituko diot?**

Egunerokotasunaren garratzean murgildu da “Txokolaterua” idazlea bere azken eleberrian. Berak dioenez, “nire lan pertsonalena izan da”. Bizitzaren konplexutasuna ikustarazten du ezkondutako gizon baten bitartez. Solasak nahastu egiten dira gogoeta eta hausnarketekin. “Mundua den bezala erakutsi nahi izan dut, apaingarriak kendu eta gordinenak azaleratu”. Horretarako estilo desberdinak landu ditu, ikuspuntu kontrajarriak batuz. Emaitza; dudarik gabe, paregabea.

**Izorra hadi!**

To! Ziplo zegok! Ahobero bat gutxiago. Arnasa badik behintzat... Eskerrak! Hi! Ezkontza hastear egongo da! Hau duk zortea! Aguanta dezala meza bere amak! Hori! Izorra dadila astapito zikina! Kritika dezala beste baten alkandora! Sorgintzarra... Ostia! Ezkongaiak kotxe gabe geratu dituk! Eta, eguraldi honekin gainera! Katiuskak hartu ditzatela! Hori, hori! Gasolina garesti zegok, hobe oinez! Jaja. Lokaztu daitezela! Andregaia traje horrekin... hura bai estropizioa! Dirutza zaborretara! Honen ondoren, bukatu dituk Gabonetako afariak! Busti daitezela gogoz! Memeloak!

**Non ibiliko ote da?**

Han datoz erizainak. Gelan sartzen diren bakoitzean hortz ilara bikoitza begi-bistan. *–Poztu zaitez, emakumea–* betaurrekodunak, eta *–badaude gizon gehiago–* hankamotzak. Eta nik, gainera, amorruz, buruaz baietsi behar. Behatz puntetan eta kostata piztu du telebista hankamotzak. Kanalak pasatzen hasi da, eta une hartaraino hilda zirudien agure kirasdunak pilota partidua, mesedez, uzteko eskatu dio. Hankamotzak niri, – inporta zaizu?– eta nik, berriz ere amorruz, ezetz. Putasemea. Falta zitzaidana. Senarra desagertuta eta pilota, hala ere, ikusi behar. Konortea galtzen dudan azken aldia dela erabaki dut.

**Di-da!**

Kotxea brrmm martxan jarri dut, Clerckwell kalea atzean utziz. Ez dut ezer pentsatuta gaurko. Um, um lan erraz bat eta etxera, pi-pla. Ezkerretara biratu eta dapla, hantxe aurkitu dut gaurko harrapakina; arlote itxurako

emakumea. Gertuagotik aztertu dut, tipi- tapa. Kotxea, rirra dabil garbitzen. Zzzzink labana aukeratu eta atzetik gerturatu natzaio tiruliruli kale bat bilatzen ari denaren antzera tirulirula. Orduan gerritik heldu eta labana lausoki giltzurrun xamurretan pausatu diot. Hotzikara txikia uiiiii nabaritu diot, baina zuhurki ez du oihu egin. Soilik, hasperen txiki bat: ahh!. Orduan, konortea galdu eta danba nire besoen gainera erori da. Nik ez nuen arazorik nahi, eta di-da alde egin dut.

**Hiztegigileak tartean sartzen direnean**

Lau gurpildun ibilgailu automobila, erleek sortzen duten substantzia solido zuriz igurzten nenbilela beste herrietara bisitan joaten diren pertsona horietako bat ikusi nuen. Bi eraikin arteko bide zehatz bat bilatzen zirudien, hiri bateko xehetasun guztiak irudikatzen dituen orri zabal batean. Buruko poroetan hazten diren harizpiak, arduraz zituen orraztuak. Kristal beltz tindatuak zituen begiak estaltzeko gailu bat zeraman belarrietan eskegita, ikusmenaren organoa, gure planeta sistemako ardatz den izar erraldoitik ezkutatuz. Elikagaiak hartzeko erabiltzen den barrunbeak, irribarre okerra marrazten zuen, gorputza estaltzen duen mintz lodi ilunarekin kontraste beldurgarria sortuz. Orduan, metalezko eskuarma zorrotza, sorbaldatik gerriraino doan gorputzaren atzeko atalean jarri zidan mehatxuz. Tenperatura handitze itogarria nabaritu nuen, eta beheko gorputz adarretako bakoitza lurrerantz aldarotzen ikusi nuen. Gainontzekoa atzetik, noski.

**Den-dena jakin nahian**

– Zerbait susmagarria nabaritu al duzu Cleveland kaleko 34.ean azken aldi honetan?

– Ez da azken aldi honetako gauza. Gizonak urteak daramatza etxera emakume arrotzak eramaten. Auzo guztiak daki hori.

– Emazteak ba al zekien?

– Ez dut uste. Senarra oso diskretua zen emazteari zegokionez.

– Ezagutzen al zenuen?

– Gizona ez. Emaztearekin noizbehinka trukatu izan ditut hitz solte batzuk, baina ezer gutxi.

– Zer gertatu zen zehazki?

– Txokolatea prestatzen ari nintzela, oihuak entzun nituen. Kalera irten nintzen eta postaria ikusi nuen laguntza eske.

– Zer egin zenuen?

– Harengana hurbildu nintzen, eta emaztea konorterik gabe ikustean anbulantzia bat eskatu nuen.

– Non zegoen senarra?

– Egongelan, grabatutako futbol partida ikusten. Harrigarriena, zera da: emaztearen egoeraren berri eman genionean, berak buruaz baietsi, eta begirada telebistatik kendu gabe, bazekiela onartu zuen.

– Drogen edo alkoholaren menpe zegoen?

– Ez dut uste. Lasai zirudien, eta guztiz zentzuzko. Nire ustez, ez zion axola. Besterik gabe.

# Gogo goseberak

Nerea Eizagirre Telleria
Zumaia institutua
Zumaia

– Egun on, printzesa!

– Jode, jaikitzeko ordua al da?

– Bai, agudo, ordu laurden barru medikua dator-eta!

Gelako pertsianak igo, eta han igarri dut pausoz pauso gelako aterantz hurbiltzen. Plost-plost aditzen ditut pausoak hipopotamo baten ibilera baldarraz, plost-plost, eta azkenean iritsi da ateraino. Gupidaz begiratu dut, egunen batean uniforme arrosapean ezkutatzen dituen izteeerrrrak hortxe, atean kateatuta geldituko baitzaizkio, ez aurrera eta ez atzera.

Okerrenak ez dira bere izter bikainak, edo izterrak diruditen bere besoak, okerrena da, hurbiltzean igartzen diodan kafesne usaina, edo hortzetan gelditzen zaizkion txokolate arrastoak. Halakoetan ikaragarrizko pena ematen dit, eta imajinatzen dut atean ez aurrera ez atzera geldituko den egunera arte jarraituko duela gorputzean azukre kamioikadak txertatzen. Gajoa, egundo ez baita ohartu azukrea dela hiltzaile zitalenetan zitalena.

Ni duela hiru urte jabetu nintzen horretaz, bai, jada nire heldutasunera iristean, hamahiru urterekin. Eta eskerrak, ordura arte, goizetan *cola-caoa* lau gailetarekin, atsedenaldian bi madalena, bazkalorduan makarroi platerkada, askaritan txorizo ogitartekoa eta afalorduan patata-tortilla irentsarazten baitzidaten. Puff, arma suntsigarriak nire gorputz mamitsuegiarentzat.

Baina oraindik ere lar mamitsua bada, zer esanik ez garai haietan. Oroitzen dut Afrika bera baino handiagoa zen ipurtaldea, eta sabelaldeak, ene!, basamortuko duna bailitzan, dantza soltean ibili ohi zen hamaika tontorreko erliebea zirudien.

Horrexegatik nire buruak esan zidan: *maja, horrela ezin dun segi, bakarrik eta sekula maitatua izan gabe bukatu nahi ez badun!*

Eskerrak zentzua garaiz iritsi zitzaidan. Bestela auskalo, izterrak uniforme arrosapeko urdaiazpikoak adinakoak izango nituzke honezkero. Kontuak kontu, garaiz nengoen nire gorputza hiltzen ari ziren, eta gerora nire patua akabatuko zuten, jaki nazkagarri horiek zokoratu eta metamorfosiari ekiteko.

Izan ere, haurtzaroan etengabe aldatu ohi gara, eta jolas-parkeetan apenas dagoen *minielefanterik*. Baina denborak aurrera egin ahala, bizitza zenbatzeko hatzak nahikoa ez diren aroa iritsi ohi da. Eta ordutik aurrera, zer esan, eskolaosteko ogitartekoak hilgarri bilakatzen direla baino.

Hilgarri diot, izan ere, *tximeletagai* zen, kotoizko azaldun, sabel liraindun neskatoa (badakit mutikoak ahaztu

zaizkidala), asko jota *kakalardogai* bihurtzen da. Ni ere halakoxea nintzen, biribil-biribila, kakalardo gai soila. *Zer, azukreak hire etorkizuneko tximeleta nola akabatzen duen begira gelditu behar al dun?*

Eta orduan utzi nion irensteari. Arma suntsigarriak murtxikatzeari, koskadatik koskadara neure pinpilinpauxa akabatzeari. Ordutik aurrera, kakalardoa zanpatzen hasi nintzen adimenean, neure isla biribil mamitsuari ultimatum-a joaz. Bizitza berriari ekin, ala kakalardo miserable bihurtu, atean ez aurrera ez atzera geldituko den kakalardo errukarri.

Nik bide egokiaren hautua egin nuen. Ordu luzez dirauten tripa-zorrien gainetik, ordu luzez gurasoekin izandako liskarren gainetik, lagun deitzen diren horien erretoliken gainetik, diot aukerarik onena egin nuela. Horiek guztiak bideko oztopo malapartatuak baino ez baitira.

Baina arraioa!, batzuetan etsitzear ere egon izan naiz, ez pentsa. Izan ere, bizitza berriari ekin nionean, hasieran jatorduak oraindik jolastxo baino ez ziren. "Azken aldian gero eta gutxiago jaten duzu, platera bukatu!" eta halakoak aditzean gelara ihes egin ohi nuen, eta kitto. Baina denborak dena okertzen du. Okertzen du, jatordua eguneko zorigaizto izateraino.

Izan ere, gurasoak ez dira ohartzen beraiek inposatutako kakalardo patuari ihes egin nahi diodala. Ezin konpreni dezakete zein zorigaiztoko sentitzen naizen euren gerribueltak ikustean, eta barruan eurak bezalaxe bukatuko dudanaren eztenkada dudanik ere. Beraiek egoskor jartzen dira, gogor, inposatzaile, baina alferrik ari dira, ez baitidate tximeleta izateko jomuga ostuko.

Jatorduak, edo jatorturak, aipatu baditut, aipatu ditut. Izan ere, denborak aurrera egin ahala, nola esan, jatorduak bilakatzen dira gustagarriaren antonimo, infernuaren superlatibo. Eta eguna bera mugatzen da eskola-bueltako bazkari-arratsaldera. Izan ere, denbora galdu ohi da ama eta bion artean, orduak joan egiten diren bezalaxe bolborak plater gainean baitirau. Hasiera batean, amaren oihuak harrokeriaz isiltzen nituen, amaren desesperazio oihuak isiltasunaz gero, baina iristen da mementoa, ezen amaren eskuak sentitzen ditudan matrailak eutsiaz, eta azkenean, amaren malkoek 5.6 kaloriako haragi zati erraldoi hori jaurti ohi didate urdaileraino.

Izan zen unerik, ordu luze horietan hamaika une kabitzen baita, hurrengo haragi zatia neure kabuz irenstea erabaki nuenik. Amak esandako, “jatea bizitzeko beharrezko dugu”, “nik jaten dut, eta zoriontsua naiz” horiek guztiek, ia-ia kakalardo izateko bidera lerratzea lortu zuten unerik. Baina tximeletaren itzalak, zorionerako, burua hartua zidan, eta horrexegatik, ozta-ozta saihestutako amore emateagatik, neure burua zigortzen nuen, *24 ordu mokadurik gabe*. Bueno, zigorra esan dut, baina baraua beharrezkoa soilik jatea bideko tramite hutsa da, besterik ez.

Oraindik ere larba soila naizenez, perfekzioa egundaino eskuratu ez dudanez, badira ahulezia uneak. Halakorik sentitu bezain pronto, telebista piztu ohi dut. Espero luzeegirik gabe, moda-desfileren bat, pelikuletako izarren bat-edo azaldu ohi zait. Eta orduantxe, gogoan iltzatzen zaizkit tximeleta izatera heldu diren isla eder horiek, isla txit osasungarri eta jarraitu beharreko horiek. Orain ere halaxe egin dut, gehiegi nekatu gabe azaldu zaidan jainkosen desfilean hatzak kieto egin dit. *Medikua eta gurasoak iristear zauden, beraz hobe dun kemena indartzea!*

Begiak zabal-zabal, takoi gaineko irudia dakusat. Punta zorrotzeko Everesten gainean, bi makila luzeeeee sortzen dira, zeinak bizia sortzen den inguruotan hiltzen diren. Bai, hortxe, sabelean. Tximeletena, esango nuke, itsaso barea bezalakoxea dela, zapal-zapala, lau-laua. Goian, bi tontortxoak, bata zuridun baten maisu-lan. Hortik gorakoak, ez dakit nola esan, ez du berebiziko garrantzirik. Alegia, edozein buruk betetzen du adatsa eustearen funtzioa, eta aurpegiari buruz ere, pinturek konpondu ezin dizuten kaosik baduzu, bata zuridunari bisitatxoa, eta kitto!

Tximeletarik miresten dudan aldiro izaten dut halako sentipen berezirik. Iruditzen baitzait hegan egiten dutela, haien saihetsak hegal bilakatzen direla, saihetsak hegan, gorputzetik ihesi. Dilindaka, halaxe darabilt belarrian kilimaka pinpilinpauxen hegal lirainen balada.

Nire atsekaberako ordea, nahi baino arinago bukatu da tximeleten dantzaldia, aurrera jarraitzeko indar dosia, ea ba zer topatzen dudan gainontzeko kanaletan! Ene, Palestinako Gaza, hauteskundeak, ekonomia-krisia … ezin taxuzko ezer aurkitu. Aibala, honek interesgarria dirudi!

Gaztetxo ñimiñoenetan ñimiñoena ageri da, kamerak gertu-gertutik harrapatu izanagatik telebistako pantailan txikiegi, estuegi nabarmentzen den neskatoa. Hankak ditu, nola esan, oilaskoen parekoak, meheak eta behatz luzexka, biluzi horiegaz. Gerri aldekoak seko harritua nauka, dituen beso-hanka ihar horiekin alderatuz, haren sabelak neurriz kanpokoa baitirudi. Gainera, ez dakit, baina puxika baten tankera hartzen diot, haizez betea egongo balitz bezalaxe. Eta puxikaren gainean, saihestxoak, tximeletenak bezalakoxeak, hegalariak. Hortik gorakoa, ez nuke asmatuko

deskribatzen. Izan ere, ahoan inuiten erreinua gordea duela dirudi, eta horien goian, bi ilargi lapa eder. Horiexek kamara begiratzen dute lehenengo biderraz begiratzen denaren kolorez, sorginkeriak begiratzen direnaren usainaz.

Han doa neskato txikia hareazko bidean barna. Badirudi eguzkiak gogor jotzen duela, izerdi ttanttoek ihes egiten baitiote kopetatik behera. Han doa, eta aldian-aldian pausalditxoa egin behar izaten du, nekeak garaitzeko. Neskato ederra da, ni baino askoz ere argalagoa, sabeleko puxika kenduta, tximeleta totala. Bueno, neskatxa esan beharko nuke, sei urteko baten gorputza izanagatik ziur bainago hamar bat edo izango dituela.

Bat-batean ohartu naiz zer zorioneko den neskatxa alu hori. Izan ere, hor dabil eguzkitan beltzaran beltzarana jartzen, Naomi Campbell bailitzan. Hor dabil eguna hara-hona igaroz, ariketa eginez, kaloriak errez. Gainera, ez du ikasi beharrik izango, ez du libururik irakurtzen ere jakin beharko, ez du 1884. urtean Berlingo konferentzian egindako pastel-banaketaz ezertxo ere jakin beharko, ez du denbora alferrik xahutu beharko. Eta batez ere, garrantzitsuena, izan ere ez du arma suntsigarririk irentsi beharko, ez du inork jatera behartuko. Jakina, orain ulertzen dut bere irribarrea, begietatik irtengo zaiola dirudien bozkarioa.

Halaxe, bekaizkeriazko enbatak astindu dit barrena. Zergatik tokatzen ote zaie batzuei horrenbeste, eta beste batzuoi horren gutxi?! Zergatik egon behar ote dut nik hementxe, ospitaleko 1567. gela zuri zabal honetan bakar-bakarrik, bera familiako bederatziak elkarrekin bizi diren etxolan dagoen bitartean? Zergatik joan behar ote dut hemendik irtetean duela 9 hilabete zapaldu ez dudan es-

kolara? Zergatik behartzen ote naute ni jatera, eta berak, hala, lasai asko, mokadurik jan gabe ere, medikurik ikusi beharrik ez, ospitalerik zapaldu beharrik ez.

Bueno, baina orain ezin etsi dezaket. Niri zoriontasunerako bidea askozaz ere gogorragoa tokatu bazait ere, jada ailegatzear baita helmuga. Iritsiko da, berehalaxe gainera, eta inork ez dit oztopatuko bidea. Ez gurasoek, ez uniforme arrosapean ezkutatzen den ipurdi horrek, ez eta mediku purtzilak. Bai, nire ametsa zapuztu nahi duen areriorik zitalena baita bata zuridun hori. Gainera, azkenaldian, lelokerien gailurra zanpatzen ari da! Izan ere, gurasoek ospitalerat gogoz kontra ekarri nindutenetik hasi bazen ere nire metamorfosia ekidin nahian, txorakeriak bat bestearen atzetik esanaz, azken hiru asteetakoa izugarria da! Ez zidan ba esan hilzorian egoteko gutxi falta zitzaidala, eta bazekiela otorduetan ziria sartzen nionaz, hortaz, sueroak eta beste mila zerrikeria jarriko zizkidala! Guztia ni izorratzeko, sekula perfekziora irits nadin ez uzteko. Hurrengo astean, berdin, bueno, okerrago, herio hurbiltzen ari zitzaidala esan zidan, nire gorputz-larbak ez zuela luzaro iraungo. Gaur ere halako pellokeriaren bat esango dit, ni beldurtu nahian, nire tximeleta bilakatzeko ametsa zapuztu nahian. Baina oker dabil, gero eta iheskorrago baititut hegaltxoak, gero eta hurbilago baitago perfekzioa.

---

Eguzkiak jada apalago jotzen du 1567. gelako kristaletan, apalago Etiopiako, Nairobiko, Ruandako-edo ahaztutako lur beltz, lur idorren gainean.

1567.ean, hezurdura bat etzanda ageri da ohe gainean. Ohe punttatik bi lastotxo hasten zaizkio, zeinak sabelal-

dean, desagertua dagoen haragi zati horren pean bukatzen diren. Gorago, bi pazientziatxo bailiran, bularrak. Eta burkoaren gainean, piraten banderetako zera horien antza duen matrail-hezur, begi-irten, kopetako-hezur, garezurra. Horri lotuta, ilaje hori, distiratsua, burkoan patxadaz dirauena, Pariseko edo Milaneko kamerinoetan noiz orraztua izan itxaroten ari dena. Ohe gainekoa, azkenaldiko otorduetan erabilitako trikimailutxoa goraipatzen ari da bere baitarako, eta horrek zorionik sortzen badio ere, gaur ez dago pozik. Goibel eta ahul sentitzen da, bereziki gainontzeko egunetan baino gehiago.

Bitartean, lur erre, beltz horietan, gaur estreinakoz kamera bat ikusi duen neskatxa eta beste hamaika neska-mutiko ageri dira. Oilasko-hankak dituzte, horien gainean puxika huts-huts puztu horiek. Aurpegian, masailetatik tenka egiten dietela dirudi, nahita ere ezin ezkuta baitezakete irribarrea. Eta gorago, ilargi lapa biribil dizdizari horiek, aurpegitik irtetear daudela dirudienak, irtetear kabitu ezinezko pozagatik. Baina gaur neskatxak eta beste mordoska batek etengabe gelditu behar izan dute ur bila joateko bidean, eta arratsaldean anai-arrebekin partekatzen duten lastozko ohean etzan behar izan dute. Gaur ez die inork masailetatik tenka egiten, gaur begiak itzaltzear dituzte, ahuleziak jota baileuden.

1567. gela horretan ohi baino giro goibelagoa dago. Goizean medikuak aipatutako patuan du ohe alboko aulkian eserita dagoenak burua, eta medikuaren hitz beltzak dantza-dantzari dabiltza amaren belarrietan. Bitartean, ahulezia pausatzen ari da maindireetan, pausatzen burkoan. Eta goibeltasun horren erdian intziri xume bat sortzen hasi da. Hag, hagg aditzen da maindire artetik. Hasieran, ge-

lako goibeltasuna hausteko baino ez dena izan. Baina, pixkaka-pixkaka, intziritxoa larritzen doa, burko gainean norbait arineketan ariko balitz bezalaxe. Ama hurbildu da burko albora, izara artetik atzamar hezurtsuak oratu ditu, eta arnasa lasaitzen saiatu da. Baina intentzioak intentzio, hatsak berearekin jarraitzen du temati, hagg eta hagg. Izara artekoak ez daki zer gertatzen ari zaion, ahul dago, burua lanbroak hartua, eta gorputzetik ihesi dabilzkion saihestxoen artean arnas zoroa sentitzen du. Ez daki zer ari zaion gertatzen, baina ezin du hatsik otzandu, eta hala, oharkabean, gorputz-hezurdura hartua dion lanbro horrek begiak hertsi dizkio. Begiak hertsi ditu, eta amets egiteari ekin dio. Amets egingo du jatekorik ez eta inori axola ez zaion neskatxa beltzaran hori bera dela, edo edertasunaren perfekzioa lortu duela, bai, zoriontsu dela amets egingo du, azkenean, tximeleta bihurtu dela.

Amaren begi ertzak hezetu dira, eta beranduegi iritsi den 40 tailako galtza arrosak daramatzan erizainak, goizero neskatxa iratzartzen zuen emakumeak, ezin izan dizkio lehortu. Ez eta bata zuridun horrek ere. Amak paparretik oratu du azken hori, medikua, eta “beranduuuu daa” oihukatu dio belarrietara. Amak hartu du mahai gaineko platera eta telebistari jaurti dio, hartu txokolatea eta aldizkariak zikindu, urratu, arrakalatu ditu. Segidan, alaba zena, hezur-multzoa, besarkatu du, tinko, estu, hegan egiten utzi nahiko ez balio gisan. Gerturatu zaio, azkenekoz ferekatu dio mila bider gozatu duen eskutxoa, eman diosalaren musua, eta belarri ertzera xuxurlatu dio “Nork esan din, maite, perfekziorik existitzen denik, hau denik zoriona?”

Bitartean, lur beltz horietan, lastozko ohe gainetan diraute oilasko-hankatxoak dituzten horiek. Aurpegietako

ipurtargi pareak gaur amatatuta dabiltza, eta ezpainetako zizare loditxoek gaur ez dute dantzan ibiltzeko gogorik. Hamaika ilargi lapa dituzte eurei so, hamaika gogo, desgraziek belztuak. Hasi dira intziritxoak, hasi arnasestuak. Lasto gaineko haurtxoek ez dakite zer ari zaien gertatzen, ahaleginak ahalegin ezin dute birika-bihotzik baretu. Ez dakite zer ari zaien gertatzen, baina susmoa dute lagun Fatimeturen, lagun Kabirren azken uneekin antzik duenik gaurko egoerak. Horrelaxe, hertsi zaizkie ilargi lapa ederrak, itzali ipurtargiak. Eta amets egiteari ekin diote. Amestuko dute zurien lehenengo munduan bizi direla, lehenengo pertsonan hitz egiten dugunon mundu zurian. Batez ere, amets egingo dute ogi eder batekin, eta euren burua imajinatuko dute zatitxoak eginez, erritualik garrantzitsuena bailitzan, eta etxolako inuiten erreinu zuriak irudikatuko dituzte apurrez zikinduak.

1567.eko neska gazteari emakume perfektuaren ideia leherrarazi diote buruan. Bai, antigoaleko gorteetako kortse estu-estu horiek zukutu diote burmuina, urruneko Txinako emakumeen zapatatxoetan kabitu ahal izateko. Zapatatxo horietan ere, kabitzen zaizkio perfekzio-gosea, lehiakortasuna, bekaizkeria, zurion zorakeria horiek guztiak.

Lur beltzetako hortz zuridun haurtxoei aldiz, sabela puztu diete, puztu-puztu hustutasunaz. Eta hain handia da lehenengotik hirugarrenerako hutsunea, ezen milioika gogo aseetako sabel goseberak lehertzen dituen.

Gure G guztiak lehertzen dira sabeletan, lehertu buruetan. Gure **g**arapenak, gure desorekaren **g**lobalizazioak, gure **g**oserako kondenak, gure **g**anibetak, gure **g**arden izendatutako **g**arbikeriak, gure **g**aiztakeriak. Guzti-guztiak

biltzen dira **g**izartearen, **g**izatasunaren barruan, eta ene barrenak galdetzen dit, ez ote ditugun G-ak estuegi lotu, ez ote ditugun G guztiak **g**albidera **g**idatu.

Globo honetako gizaldi gaixo honek goragalea sor dezake gogo aseengan.

# Igande arratsaldetako paseoan paperezko hegazkinetan

Mikel Mancisidor Iztueta
Aita Larramendi ikastola
Andoain

Lurra gero eta azkarrago mugitzen da nire oinen azpian baina besapean daramadan karpeta erraldoiak eta bizkarretik zintzilik daukadan motxila honek nire kontra paktatu dute, eta ez da aski. Helmuga gertu ikusi dut oso. Autobus gidariak ere egun txarra izango zuen gaurkoan ordea, eta geltokiranzko korrikaldi bizian ikusi nauen arren nahiago izan du nire inpuntualitatea azeleragailua gogor zapalduz zigortu, berak ere erlojuaren aurkako lehian biktima papera joka ez dezan, agian. Kaka zaharra! Berandu iritsiko naiz gaurko hitzordura ere! Silbiak akabatu egingo nau!

Izerdi patsetan geltoki ondoko bankura hurbildu naiz, nire taupadek markatzen dutena baino erritmo makalagoan, eta arnasa hartu dut sakon. Oraindik beste ordu erdiko itxaronaldia daukat aurretik, igande eguerdietan inguru honetatik hiriaren erdialdera ez baitago autobus gehiegirik. Alkateari garraio sistema publiko hobearen alde agertzen zatzaizkion manifestariez oroitu naiz. Egunen batean ni ere hortxe jarriko naiz udaletxe aurrean, pankarta eskuan hartuta garrasika. Beharko zerbait egin!

Goiz osoa igaro dut jolas-parkean margotzen. Izan ere, igande eguzkitsuak ezin hobeak dira hona etortzeko. Zerbait berezia sumatzen da airean. Familia perfektuak ikusten dira, irribarrez, eta zoriontasuna kutsakorra bilakatzen da uneoro. Haurren paradisu txiki bat bezalakoa bilakatzen da toki hau, desertuko oasi baten antzekoa, hileta-elizkizun batera lorez jantzita joaten den izeba eroaren parekoa.

Besapetik altzora mugitu dut karpeta, eta goiz osoan egindako lana berrikusteari ekin diot. Harrigarria da koloreek bata bestearen ondoan jarrita osa dezaketena, eragin ditzaketen sentsazioak. Ortzadar batek egin du ihes bat-batean, baina beste marrazki baten bila ari naiz. Eskala kromatikoko koloreei muzin eginez margotu dut goizaldera, jolas-parkea oraindik guztiz betea ez zegoenean, kolore ezaren eta kolore guztien baturaren nahasketaz. Bila eta bila aritu arren ezin topa dezaket zuri-beltzean egindako erretratua, eta urduritasunak harrapatu nau bere hatzaparretan, jada, lehortzen ari zen izerdiari nire aurpegian gero eta sakonago egiten ari diren zimurretan barrena errekatxo berriak osatzea ahalbidetuz.

– Jauna! Jauna, jauna! –entzun dut bat-batean.

Burua altxatu eta oihuak datozen norabiderantz zuzendu dut soa. Begiak gogor zigortu dizkit eguzkiak, une batez itsu utziz, eta argitasun horretara ohitzearekin batera haur baten silueta ikusi dut korrika hurbiltzen, eskutik zintzilik zerbait dakarrelarik. Gehiago gerturatu denean bere aurpegia ezagutu dut.

– Hi lehengo haurra haiz!

– Tori, marrazki hau erori zaizu –esan dit arnasestuka nire lana itzuli bitartean.

– Eskerrik asko, mutiko!

– Zergatik margotu nauzu ni?

– Eta hi zergatik hengoen horren triste?

– Eta zuri ze axola zaizu?

Haurraren arnasak eta urrunera entzuten diren gainerakoen oihuek bakarrik urratutako isiltasuna zabaldu da bion artean.

– Gozokirik nahi?

– Bale!

– Limoizkoak ala mentazkoak?

– Limoizkoak.

Patrikatik gozokiak atera eta bat luzatu diot. Nik beste bat hartu dut eta, berriz ere, isilik geratu gara biok. Karamelua ahoan bueltaka darabilkigularik lurrera begira egon gara luzaroan, mutu.

– Triste ikusi haudalako margotu haut. Hire adineko haur bat jolas-parkean kopetilun ikustea ez duk batere arrunta.

– Eta zergatik ez duzu zeure burua margotzen?

– Zer ba?

– Zu ere jolas-parkean zeunden. Eta burumakur.

Ez zaio arrazoirik falta. Egunak dira buruari bueltak eta bueltak ematen ari naizela, baina batzuetan horren da zaila maitasuna!

– Arrazoi duk. Baina helduen kontuak dituk, badakik.

– Bai, beti bezala –ahopetik.

– Eta hiri, zer gertatzen zaik?

– Neska bat gustatzen zait, baina ez dit kasurik egiten.

Posible ote adinez horren ezberdinak izan eta gauza berdinagatik sufritzea?

– Eta hik kasurik egiten al diok?

– Lotsa ematen dit.

Une batez pentsakor geratu naiz, baina haur honi laguntzeko beharra sentitu dut; azken batean, bera pozik jartzea lortzen badut neroni ere kontentuago jarriko bainaiz.

– Hara, oparitu iezaiok eskumuturreko bat eta ikusiko duk, laster izango duk hire atzetik!

Jolas-parkeko atari ondoko postutxora joan gara. Ez dut oso konbentzituta ikusi, baina atzetik jarraitu nau. Aukeratzen laguntzeko eskatu dit eta guztiak antzekoak izaki, ilarako hirugarrena seinalatu diot hatzaz. Neuk ordaindu dut, marrazkia itzultzeagatik zorretan sentitzen bainintzen.

– Eta zuk uste honekin bera konkistatzea lortuko dudala?

– Etzak zalantzarik izan! Hire adineko zein beste mutilek opari liezaiokek bada horrelakorik?

Berriz ere banku aldera abiatu gara, eta erlojuari begirada bat bota diodanean ia bihotza bere tokitik irten zait:

– Kaka! Silbiak akabatu egingo naik! -esan dut neure artean.

– Zer diozu? Nor da Silbia hori?

– Lagun bat. Berarekin geratuta nengoan duela ordu erdi eta autobus hau galduz gero akabatu egingo naik! Beraz, banoak korrika!

– Itxoin!

Alboko lorategitik loretxo bat hartu du eta niri eman dit.

– Emaiozu hau Silbia delako horri. Hartara barkatuko dizu atzerapena.

– Eskerrik asko, hi!

Autobusean zutik joatea tokatu zait, baina hartu dut sikira! Ileak apur bat txukundu eta eskuartean daukadan loreari begira geratu naiz. A zer tontakeria! Hau oparitzen badiot aurpegira barre egingo dit, ziur. Autobusetik jaitsi eta lurrera bota dut. Hegaldi goxo baten ostean zigarro mutxikin baten alboan pausatu da. Baina, espaloiko lauza hotzen gainean ikusi ditudanean bien arteko maitasun istorioa imajinatu dut, eta haize ufada hotz batek inarrosi ditu nire hezurrak. Bi aldiz pentsatu ondoren dibortziatu egin ditut, loretxoa kaleko laztasunetik erreskatatuz eta nire eskuarteko berotasunean babesa emanez.

Goizeko zeru urdina grisa bilakatu da ni ohartzerako, eta lehen euri tantek, inpuntualitatearen harrarekin batera, pausoa arinarazi didate. Kafetegiko leihotik ikusi dut Silbia, barratik urrunen dagoen mahaian eserita, kafeari koilaraz bueltak eman eta eman, begirada katiluan itota. Atea zabaldu eta kafe usainaren goxotasunak berotu dit barrena. Silbiak burua altxatu du orduan soa atarirantz zuzenduz, eta ni ikusi nau. Irribarretxo batez egin dit agur, eta barrako tipoari bi kafe eskatu dizkiot.

– Denbora asko al darama zain? –buruaz Silbia dagoen mahairantz seinalatu diot.

– Hamar bat minutu –ahots gordinez.

Bi kaferekin hurbildu naiz mahaira.

– Barkatu atzerapena.

– Lasai.

Ez dago haserre, baina tristura dario bere begiradari.

– Tori kafea.

Begiez eskerrik asko moduko bat adierazi nahi izan dit.

– Zer duzu?

– Egun txarra izan dut, ez da besterik.

Bakoitzak bere katilua eskuartean eutsi eta hurrupa txikiak eman dizkiogu. Bero-bero zerbitzatu ditu barrako tipoak.

– Oparitxo bat daukat zuretzat.

– *A bai?* –adierazi dit begiez, eta, berriz ere, katiluan ito du soa.

Loretxo erdi zimeldua eman diot eta irribarretxo txiki bat erauztea lortu dut. Uste dut gustatu zaiola.

Ez dugu hitz gehiegirik egin. Kafea bukatu eta elkar agurtu dugu berehala. Deituko omen dit beste batean. Mugimendu arinez urrundu da mahaitik aterantz, eta kalerantz jo du.

Etxera joan naiz. Ez naiz gose, eta whisky kopa bat zerbitzatu diot neure buruari. "Topa!" eta eztarrian behera hustu dut edari horizta. Denboraren kontrola galdu dut, baina beranduegi izateko goiz iruditu zaidanez, beste trago bat oparitu diet ene kezkei, bertan bere buruaz beste egin dezaten. Ohera joan naiz maindire artean amestera edo.

* * *

Pasatu dira bi aste Silbia azkenekoz ikusi nuenetik eta oraindik ez dit deitu.

Leihora hurbildu eta zeru urdin-urdina zabaldu da nire aurrean. Jolas-parkera joatea erabaki dut, ea bertako zoriontasuna kutsatzen zaidan.

Nahiko aspergarria izan da goiza. Betiko bazterretan jarri naiz neure marrazkiak egiten, baina kontzentrazio faltak traizio egin dit, eta sekula baino traketsago aritu naiz. "Gaurkoz nahikoa" pentsatu dut, eta koloretako krispetak erosi ditut. Zaldiko-maldikoaren pareko eskaileretan eseri

naiz, pentsakor. Minutu gutxira uso multzo batek inguratu nau, sarraskijaleak bailiran, eroritako krispeta apurrak nork ahoratuko. Eta pentsatzen jarraitu dut. Eta pentsatu dut zergatik konplikatzen ditugun gizakiok gauzak. Eta zergatik ez ditugun modu bakar batera ikusten, zergatik saiatzen garen kolore bakoitzaren barruan tonu ezberdinak bereizten. Zergatik ez dugun guztia sinplifikatzen, neguan bezala, zuri-beltzera, usoak bezala. Inbidiaz aireari emandako ostikada batez bidali ditut guztiak.

Probokatutako zalapartaren erdian haur baten ahotsa entzun dut. Duela bi aste ezagutu nuen mutikoa hurbildu zait.

– Kaixo!

Buruaz agurtu dut eta segundo pare batez isilik egon gara.

– Zer, gustatu al zitzaioan lepokoa?

– Beno.

– Zer esan nahi dik horrek?

– Soinean darama, baina ez dit aparteko kasurik egiten.

Harritu egin nau hori entzuteak.

– Eta, zure neskari gustatu al zitzaion lorea?

– Nori, Silbiari?

– Bai, zain zeneukan horri.

Hasieran uste zenuenaren aurka gustatu zitzaion, bai.

– Ba, egia esan bai.

– Izan ere, neskei loreak gustatzen zaizkie, eta ez lepokoak!

Harritu egin nau bere erreakzioak. Badirudi errua neurea dela! Gainera, neskek nahiago dituzte bitxiak eta horrelakoak lorategi batetik ostutako lore erdi zimel bat baino! Asko dauka oraindik ikasteko!

– Hara, badakik zer egin behar duan?

– Zer?

– Hartzak diru hau, eta gonbida ezak hirekin askaltzera. Eros iezaion sekula jan dinan izozkirik handiena, eta ikusiko duk nola funtzionatuko diken!

Oraingoan ere ez nau oso konbentzituta begiratu, baina aintzat hartu du nire aholkua. Isilik geratu da, baina zerbait esan nahiko balit bezala iruditu zait.

– Beno, orain nik ere aholku bat eman beharko dizut, ezta?

– Ongi duk! Aholkua aholkuaren truke! Kar-kar!

Egoerak grazia egin dit: oraindik hamar urte betetzeko dezente falta zaion haurra niri maitasunaren inguruko aholkuak ematen!

– Ba… –pentsakor egon da luzaroan.

– Ez bazaik ezer bururatzen berdin ziok, eh!

– Ez! Nik ere lagundu egin nahi dizut!

– Ondo da!

Minutu batzuen ostean inspirazio iritsi zaio azkenean.

– Geratu berarekin limoizko gozokiak elkarrekin jateko!

Sekula entzun dudan ideiarik burugabeena iruditu zait, eta kosta egin zait barreari eustea.

– Ondo da!

– Beno, joan egin behar dut.

– Aizu, non zeudek hire gurasoak?

– Hor alboko kafetegian.

Eta bakoitzak bere bideari ekin dio: bera kafetegi aldera eta ni hiriaren erdigunera. Oinez joatea erabaki dut, buruko ideiak atontzen lagunduko didalakoan. Bidean usoak besterik ez dut ikusi. Usoak, usoak eta usoak.

Etxera iritsi eta Silbiari deitu diot.

– Bai?

– Ni naiz.

– …

– Aizu, ee…, bihar arratsalderako planik bai?

– …

– Silbia?

– Ez.

– Eta zer iruditzen geratuko bagina?

– …bale…zertarako?

– …gozokiak jateko.

* * *

Gozokiak jan genituen arratsalde hartan, ia lehertu arte, eta luzaroan aritu ginen paseatzen. Geuri buruz hitz egin genuen eta pozik ikusi nuen, aspaldian ez bezala. Izan ere, badute limoizko gozokiek efektu plazebo hori. Ez genuen batere usorik ikusi baina garaiz agurtu genion elkarri.

Orduan ere “deituko dizut” batekin joan zen.

* * *

Beste igande bat jolas-parkean. Gaurkoan oinek ekarri naute honaino. Harrigarria da batzuetan zein independentziarekin joka dezakeen gure gorputzak, garunak inongo seinalerik bidali gabe, autonomia osoz erabakiak hartzen dituen une horietan.

Egia esan badakit zergatik etorri naizen hona. Izan ere, aurreko aldiko eskaileratan eseri naiz gaur ere eta aurreko aldian bezala haurraren agerpenaren esperoan egon naiz denbora luzez. Azaldu da azkenean.

– Iepa! Gaur ere hemen?

– Hire zain nengoan!

– Eta nola zenekien hemen egongo nintzela?

– Intuizioa edo.

Irribarre egin du.

– Eta, zer moduz aurrekoan? Gonbidatu al huen azkenean?

– Bai.

– Eta?

– Izozkia jan eta martxa egin zuen. Eta zu zer moduz?

– Ongi. Gozokiak gustatu zitzaizkionan.

Triste sumatu dut eta errudun sentiarazi nau oraingoan ere.

– Begira, galde iezaion ea zaldiko-maldikoan hirekin ibili nahi dinan. Ziur gustatuko zaiola ideia!

Aprobazio keinu bat egin du.

– Orain nik eman beharko dizut aholkua, ezta?

– Eskertuko nikek.

– Ba…galdetu ea zurekin ibili nahi duen hegazkinean—esan dit zerura begira.

– Hegazkinean? Aizak, ba al dakik zenbat kostatzen duan hori?

Pentsakor gelditu da une batez, eta patrikatik paper bat hartu du bat-batean. Kontzentrazio osoz orria alde batetik eta bestetik tolesten aritu ostean, paperezko hegazkin bat eman dit.

– Ba galdetu ea paperezko hegazkinean ibili nahi duen!

* * *

Eguedian deitu dit Silbiak.

– Kaixo!

– Iepa Silbia!

– Arratsaldean geratuko bagina?

– Primeran!

– Jolas-parke ingurura?

– Hegazkinean ibiltzera!

– Eh?

– Ikusiko duzu!

– Baina…

– Piiii…

* * *

Jolas-parkeko kafetegian geratu gara eta haurra ikusi dut bere gurasoak izango direnen alboan eserita. Niri begiratu dit burumakur. Nonbait hanka sartu dut oraingoan ere.

Freskagarri bana hartu dugu Silbiak eta biok, eta buelta bat ematera irten gara geroago.

– Eta?

– Zer?

– Zer da hegazkinaren kontu hori?

Bere alkandorako botoiek nire irudimena elikatzen dute, baina nire begirada bere begietan iltzatu dut. Bere soa ere nire begietan geratu da finkaturik. Bere kirru beltz sotilak haizeak orrazten ditu uneoro, eta patrikatik paperezko hegazkina atera dut, orduan.

– Nirekin hegazkinean ibili nahi?

– …

Bere begirada nahikoa izan da erantzuteko, eta gu ohartu aurretik topatu dute gure ezpainek bata bestearenganako bidea.

– Zalantzarik gabe!

Eta begiak itxi ditu berriz ere limoizko musu umel bat oparitzeko. Usoak hegaldi aztoratuan urrundu dira gugandik, paperezko hegazkina aireratzear baita.

*Patro*

# Musutruk

Nerea Irastorza Landa
Lizardi institutua
Zarautz

Hastear dago emanaldia. Txalo zaparrada mutua. Gaur ez da inor gerturatu karpa marradun zirkura, inork ez baititu kale kantoietako hormak *show*aren berri emango zuten iragarkiez josi. Artistak bere lekuan. Bi baino ez dira gaurko ikuskizunaren protagonistak. Fokoaren argipean, dagoeneko somatzen hasiak dira izerdi tantak bekoki atarian. Bi artistak ez beste guztia ilunpean isilik, eserlekuak biluzik. Baina hats goibelak, bihotz taupada harroak nabaritzen dira inguruan. Dirudienez, karpa haren babespean bi izate baino ez. Argi gabezian, usteak erdi ustel.

Bi antzezleak parez pare lurretik hamaika bat metrotara. Ez da eskailerarik inondik ageri. Tartean soka tenko laburra, bi antzezlekuen artean zubi, zenbait txorinoen pausagune. Pistola bana eskuan, bakoitza hiruna balarekin. Antzezlekideak keinua egin dit eskubiko begiaz saioa hastera goazela adierazteko. Halaxe erantzun diot neuk ere ezkerrekoaz, eskubikoa beti izan baitut nahiko makala lan honetarako. Adi, tokian gertu denok, hastera goaz. Ongi etorri Leihorik Gabeko Zirkura.

Gabon ikus-entzuleok. Has dezagun jolasa. Arau pare bat baino ez: hiru istorio, antzezlari bakoitzak hiruna tiro. Negar malko bakoitzeko, tiro bat. Tiro bakoitzeko, agur bat. Neurria: nahi adina berba, hitz lauz. Gaia: musua. Puntua: hemen ez zegok ez puntu ez komarik, berbak baino ez. Egunsentirarte daukak zirku honi leihoren bat aurkitzeko. Hau lortu ezean, ez duk berriz ere eguzki izpirik somatuko, ez duk inoiz karpa honen sabelean ezkutatzen den gauza oro ikusiko. Eta sinets iezadak, komeni zaik gauzak argi ikustea, dagoeneko nahiko itsu bizi haiz eta.

Zirkuan geratuko haiz, hori zihur. Inor ez duk haren sentimenduen jabe izateko gaitasunik. Filosofo askoren xedea izan baduk ere, alferrik. Espetxeratuta bizitzera gaudek kondenatuak. Egia egi eta patua patu. Zeldak leihoa badik, ordea, argi ikusiko dituk kartzela honetan dauzkaken arerioak. Are gehiago, haien aurpegia ezagutu eta izena jartzeko gai izango haiz: samina, damua eta etsaietan etsaiena, maitasuna. Ez dik ezertarako balio beste batek izena jartzeak, norberak bere ustezko deitura dik zirrara bakoitzarentzat. Hiretzat xera baino ez dekena, bizilagunen bihotzetan amodio izatera irits hinteke, nahiz eta hi hortaz jabetu ez.

Baina hago lasai motel, pistola honetan ditudan hiru bala hauek tirokatu orduko aurkituko dituk. Ez lehenago. Eta aurkitu ez badituk, haien beharrik izango ez duhalako izango duk. Nork behar du eguzkiaren distira bere bihotzak berak argi izpirik ez duenean? Tira ba, hasi hadi hi heu. Edonor izanik ere, zain duk hire ikuslegoa, ez al ditut haien azken hatsak aidean somatzen? Zein duk hire lehen istorioa?

Hirugarren foko bat iratzarri da. Zirkuko ezkerraldeko eserleku batean neska ilehori bat, mantala soinean duela.

Haren alkandora beltzean, irin hauts zuriak. Antzezleak berehala ezagutu du ikuslea. Txikitan uda batez goizero bisitatu ohi zuen okindegiko neskatxa zen, jator bezain adeitsu.

Kalean gora doa ume koskorra, jada ez hain umea bizilagunen begietan, etxeko txikia gurasoen begirunean. Egunero bezala, dirua patrikan, dardara ahoan, hiz trakets batzuk esateko gai da azkenean, salmahaiaren beste aldeko zure nahigabeko liraintasunak mihian oztoporen bat jarri badio ere. Ogi t'erdi eskatzeak berebiziko lana dakarkio mutil gajoari. Eskerrak honezkero umearen ohiko eskaera ikasia duzun, honek askotan hitzok aurrezten baitizkio mutilari. Hurreratu eta ordainetan itsulapikoan gordea zuen bileterik handiena luzatu dizu eskuaz, 5 eurokoa, nahiz eta patrikak amak emandako txanpon txikiz josirik izan. Eta kajan dagozkion beste zenbait txanpon bilatzeari jarduten duzun bitartean, mutikoa eguraldiari buruz aipamen bat egitera ere ausartu da, zure irriaren esperoan. Dirua zehatz emango balizu, pare bat minutu gutxiago izango lituzke umeak une honetaz gozatzeko. Ondorio, itxulapikoa txanponez leporaino betea du ohe azpian.

Bukatu zaio gaurkoz unerik goxoena, eta zuk eskuaz luzatu diozu beste txanpon pila. Hiru ogi erdiak hartu eta agur bero bat opa dizu, "Geroarte!" itxaropentsu bat, apika amak berriz ere oharkabean ahaztutako zer edo zeren bila bidaliko duelakoan. Kalera irten da, poltsikoak bete txanponaz, bihotza bete pozaz

Egun batez ohi baino buru makurrago joan zaizu ogi bila. Umeak gaur bertan etxez aldatzen zela kontatu dizu, zu, artean, txanpon bila zabiltzan bitartean. Hauxe izango da haren azken bisita, mutil koskor hau ikusiko duzun azken eguna,

orain arte. Mutikoaren xarmak hunkituta, musu bero bat eman diozu masailean. Irria gailendu zaio bere aho txikiari.

Istorioa kontatzen ari den protagonistak gori gori ditu begiak. Egun hura du aurrez aurre, eta oroitzapenak saminduta, instant hartan irrifarrea zena negar malko bilakatu da bere begietan.

Arauak arau. Tiro. Fotoa itzali eta neskaren garrasia entzun da. Antzezleak bihotza somatzen du golkoan ponpaka. Jolasa ez da jada jolas. Jokua jabetu da.

Lasaitu hadi, txikito. Neska ondo zegok, argiari egin ziok tiro, ez besterik. Argi horrek itsutu egiten hau eta negarra sortzen dik. Itzali beharra zegok. Arrazoiak sasi poetak isilarazten dituen moduan, argi aizunak ere amatatzen dizkik tiroka.

Xake-taulak bira eman dik mahaian, beltzen txanda berriz ere. Hire txanda.

Foko berri bat berriz ere ezkerraldeko eserlekuen artean. Bertan neskatxa gazte berri bat, ile ilunekoa oraingoan, xelebre samar jantzia. Institutu garaian mahaikide izandakoa, gelako edozein mutil baino indartsuagoa. Eta ez pisuak jasotzen zuen indarragatik; harri jasotzailea balitz inork ez baitzuen harengatik sosik ere jokatuko. Bere hitzak, bai, odea, besoak ez bezala, indartsu eta trebeak. Arrazoia izanez gero, beste edozein pertsona isilarazteko gai eta harro. Zur eta lur utziko luke politikari bat baino gehiago. Horregatik zuten, besteak beste, gelako mutilek horren gogoko, nahiz eta orain hamaika bat metrotara aurkitzen dena izan neska haren begietan mutilen artean gustokoena.

Hamaika sasi-eskola eginak ginen dagoenerako, eta beste hainbestetan jan genion hitza irakasleari. Unibertsitatera joan aurretik genuen azkenengo klasean beste bat egiteak kalte handirik egingo ez zigula argi zegoen, eta horrela abiatu ginen instutu pareko lantegi atzean aurkitzen zen baratzera. Ez zen toki txarra, herriko onenetarikoa zela ere esango nuke, egun eguzkitsuetan batez ere. Horrexegatik egoten zen maiz jendez gainezka, eserlekuetan kabitu ezinik. Baratzaren lateral batetik ibaitzat jo genezakena igarotzen zen, beti norantza berean: mendebalderantz. Honekiko paralelo, bultzia agertzen zen hogei minuturo, orain ekialderantz, orain mendebalderantz. Gu biok erdian, tokian lasai. Zigarroa belarri atzean, eta eskuak lanean, garai hartako landare berdeak ez baitziren nahi adina fresko irten eta kostata jardun behar izan genion uzta hari etekina atera nahian. Behin porroa prest, ezer esateko astirik izan gabe, zuk hartu zenituen bai hitza nire ahotik baita porroa behatz artetik ere. Jakin hau ez niola edonori onartuko, zuri eta beste gutxiei baino ez. Baina zuk hori aski dakizu, eta bazenekien garai haietan ere, nere babo-aurpegiak askotan salatzen bainínduen.

Luze hitz egin genuen, baita irakasle eta gelakide askoren kontura barre egin ere. Barre egin baino, haiek ziren algarak haiek zureak. Eguzkia dir-dir genuen sorbaldekiko zut. Inoiz baino askeago sentitu nintzen une hartan, are eta askeago oharkabean musu ematera hurbildu zinenean. Eta inoiz baino damutuago erantzuten jakin ez nuenean.

Malkoa, begi ninitik betilera, betiletik masailera abian. Arauak arau. Tiro. Eta berriz ere hasieran bi fokoek baino ez diraute pizturik zirkuan.

Ikusten al dituk txorinoak hire buruan gira biraka? Soka honen gainean zirkutik irten ezinik dabiltzan ber-

berak dituk, nigana datorren bidezidor tinko honetan hire urratsak trabatuz. Txoriak txori. Aurki ezak leihoa eta utz hitzak aske behingoz, erabili ezak burua nigana iristeko. Arrazoiak irabaziko dik aspaldi jolas izateari utzi eta joko bilakatu den honetan.

Foku berri bat zirkuan. Ezkerraldean hau ere. Honen izpide, hirugarren neskato bat, xarmaz jantzia. Bihotzak bizi-keinu sendoa egin dio mutilari, nahiz eta ikusle honen bisita esperoan izan. Gai jartzaileak arauak aldatu ditu jokoan eserlekuetako jendeak ere emanaldian parte har dezan agian, edota oraingo honetan neskaren bertsioak jakingura sortu diolako.

Zeu izango zara, panpoxa, azken istorioaren narratzaile. Zain dituzu lau belarri hauek entzuteko prest. Eta ez larritu txoriak dantzan ikusteaz, zure laguna baita egonezinez hauen dardara eragiten duena. Lasaituko haiz ba, motel! Gura duzunean, polit hori.

Auzoko jaietan topatu ginen aspaldiko partez, oroitzen? Lotsa ginen besteen begien soaren pean; haatik, bakarka erabat ezberdin jokatzen genuen. Ohiko gela bisitatu genuen. Ideia argiko mutila izan zarela beti gauza jakina da. Agian horrek egiten gaitu hain ezberdin, beste gauza askoren artean. Hamaika bider gerturatu zinen jolasteko asmotan, eta ni zure esku artean iheskor ibiltzen nintzen jostari. Ez pentsa bertan gelditu gura ez nuelako zenik; gogoko nuen egoera hura, zu sufritzen ikustea, grinaren aurka gelditu beharrean, baina amore emateari uko eginez. Horregatik ziren sariak horren laket.

Gelako atera iristerako dagoeneko agerikoa zen gasoil usaia. “Avanti bella ragazza”. Barregarri zinen oso italiar

plantetan, baita beste edozein mintzo asmatzen saiatzen zinenean ere. Txikitatik erakutsi zenuen hizkuntzekiko jakin mina, eta ongi erabiltzen ikasi zenuen nesken artean irrika sortzeko. Ez zinen mutil makala gero.

Atearen beste aldean gasoil kiratsa, argi kaxkarra, trasteak eta traste gehiago. Artean zu, noiz gerturatuko zain, eserita, begiez so. Mahai tipi batean mila gauza. Oraindik zaila zait denak zure poltsikoetatik atera zenituela pentsatzeak. Nola hasi jakin ezinik, pausua emateko koldar. Maite nituen instant haiek, non bion irrika nabaria zen eta gau luze bat genuen aiduru. Berriz ere elkartu ginela ikustea. Zaletasuna hartu nion, hartu nizun, nolabait.

Ez nizun aldegiten utzi nahi, aitortzen dut. Ez galdetu zergatik, baina hura gure azken agurra zela nuen sentitu, ongi aprobetxatu behar nuela, beraz. Eta hala ere isildu, lelokeria gehiegi esan eta premia handikoena isildu. Zuk ere ez zenuen zure aldetik askorik jarri, ez baitzinen hitz askoko mutila, are eta gutxiago une gazi-gozo haietan.

Premiazkoak ziren hitzak baino ez ziren zure ahoan loratzen, ez gehiago, ezta gutxiago ere. Txaloekin istorioa ez zen berbera. Edozein antzerki edota hitzaldietan beti zurea zen isiltzen zen azken txaloa, denen gainetik gailentzen zena. Are eta gehiago begi parekoa eta entzundakoak gogokoak bazenituen. Ez diozu sekula ere inori hitza hartu, txaloa bai ordea. Hura zen zure oreka, zure bertutea, ments askoren artean.

Musu pare bat gehiago, azkena, azkenaren ostekoa, nork zekien azkena izango ote zen. Dudarik gabe, samin eta laburrena. Botilan ardo goxo, ezpainetan ardo mikatz.

Hitzok ere mikatzak izan ziren mutilarentzat, baina maitasunezko hitzak hala ere. Malkoa, begi ninitik betilera, betiletik masailera abian. Arauak arau. Tiro. Berriz ere soilik bi itzal agerian.

Txikito, berde hago gero! Begira, hire onerako esaten diat: utz hitzak marmarrak alde batera eta ez hadi hain mozoloa izan! Ikasi ezak nitaz, mutiko. Negar malkorik ikusi al duk nire begietan? Bat bera ere ez! Eta pozik bizi nauk, zinez dioat munduari. Ez pentsa musu guzti haiek askorako balio ditenik, malkoak isurtzeko baino ez. Ez dituk hire mesederako gero; ez ezak, beraz, esker onez jokatu. Mina baino ez ditek haiek xede. Gertuko senitarteko batek erakutsia diat hori, eta ordutik ongi ikasia gainera. Gizon xelebrea huen hura, hortaz zalantzarik ez zegok. Tira, agian ni ere hori esateko aproposena ez naizela pentsatuko duk, ez diat hiri errua leporatuko. Badakik kasu hauetan zein den ohiko aitzakia: nolako zura, halako ezpala. Beti pentsatu izan diat aitaren ogibidea ez huela batere txarra. Alderantziz. Hori duk mauka! A ze pagotxa! Musu-saltzailea huen, eta ez edozein, adiskide, ez horixe. Herriko saltzaile estimatuenen artean estimatuena zela ere esango niake, eta hala ez bahuen, ez nauk urruti ibiliko.

Alda ezak kaiku aurpegi hori, tontolo! Nabarmen duk ez haizela munduan zehar askorik ibili. Musu-saltazaileak nonahi zeudek, ez duk hain lanbide bitxia. Akaso hik ez duk oraindik baten baten beharrik, baina hago lasai, hiri ere iritsiko zaik hire bakardade garaia eta eroriko haiz. Lepoa egingo niake pare bat amoros gehiago izatera baino ez haizela iritsiko, hiru asko jota. Eta hirugarrenak ere adio esatean, orduan agian nire aita ezagutuko duk azokako bazter honeneko postuan, bozgorailua eskuan duela bere

musuak hiriko zoriontsuenak direla esanez. Martxa honetan hi ere beste ergel horietako bat izango haiz, ilaran zutik, txanpon batzuen ordainetan bere ustezko gupida musua jasotzeko zain. Eta horrelaxe igaroko duk hire bizitza, beti ere zain, besteak hire zain izan beharrean. Eta bitartean hago lasai, saltzaileak bapo beteko dizkik eta bere diru-zorroak. Aberastasuneraino eta are gehiago, barrenak jaten dizkion diru-gose hori bete nahiean eta asetu ezinean. Musu-saltzaile baten errenta aitorpenean denak dituk irabaziak, ez zegok galerarik. Horra hor negozioaren gakoa, eta horixe aditu ohi nian txikitan aitaren ahotik.

Oraingoan ere, argi indartsu berri bat pizten da. Baina lehen ez bezala, ikus-entzule berria zirkuaren eskuinaldeko eserlekuetako batean ageri da, zurezko pipa ahoan duela, muturrak egunkari baten lanpostu iragarkien orrien artean sartuta. Barre maltzurra datorkio barrenetik, nahita ere ezkutatu ahal izango ez lukeena. Ezta aurpegia pailazo baten antzera margotua ere. Txikia izanik ere, itzal handiko gizona dirudi, berorika zuzentzeko errespetua ere ematen duen horietakoa. Eskua ere jokatuko nuke aspaldian besarkada bero bat jaso ez duela esatean. Izotzezko gizona. Ez da izerdia bekokitik behera dariona, argiaren beroak urtutako gela baizik. Haren ezpainetan, hitzak lege:

Musuek hutsaren ondokoa balio ditek, ez hadi kalean esaten diren ergelkeria guzti haietaz fidatu. Baina jende asko eta askoren masailetan baliotsuak dituk oso, altxorrik preziatuena, zoriontasunerako lehen urratsa. Eta hire aurpegia ikusita hik ere hala pentsatzen duen horietako ergel bat haizela esango niake, oker al nabil seme? Tira, mutiko, ez hitzak hitzok gaizki hartu. Bizitzan emango diaten ikasgairik garrantzitsuena duk hau, institutuan ikasitako ikas-

gai petral horiek guztiak baino aise erabilgarriagoa seguru. Jende honen inozokeriataz baliatzen jakitean ziok koxka. Negarra non, dirua han. Zoriontasuna denen eskura balitz bezala! A zer nolako lelokeria! Hala balitz, denok ginateke honezkero paradisuan. Eta ikusten al duk sagarrondorik bertan? Bat bera ere ez!

Egia esango diat: ez diat inoiz praketako poltsikoetan dirurik falta izan. Alderantziz. Txanponen zama astuna egitera ere iritsi izan zaidak noiz edo behin. Badituk urtean zehar, gainera, lan ugariko egunak, bazkal-osteko zigarrotxoa erretzeko astirik ere izaten ez diaten horietakoak. Gogoan diat bat bereziki. Ez zekiak zer arraiogatik den baina jendetza zetorrek egun honetan musu bila depresioak jota eta esku hutsik, mutil prestu eta neska lirain ugari eskuetan lorak dituztela kaletik kale dabiltzan bitartean. Harritzekoa duk gero, otsailaren bihotz-bihotzean lorategiak triste baino tristeago egon ohi dituk eta. Loradendetan, aldiz, bezeroak ezin kabiturik egon ohi dituk egun honetan, asma ezak zergatik! Inoiz ez diat loreen kontu hau argituko, ezta axola ere! Izan ere, behinola ezagun tentel batek egun honen istorioa kontatu zian azoka plazan. Beti bertan ibiltzen huen, hara eta hona, praketan ezin kabiturik. Balentino huen bere izena, izen itsusiagorik ez diat ezagutu munduan! Barregarria zeharo, jabea bezalakoxea. “Bota itxurako herrialdeko takoiaren punta puntan jaioa naiz ni”, esan ohi zuan harroputzak. Bertan utziko hituen apaltasuna eta hitz goxoak ere, puntaren puntan. Eta niri zer axola tipo hau non bizi den, txankleta baten azpian bizi baduk ere niri bost. Oilarkeria ez huen bere gabezietako bat, hori begibistakoa huen, hala fede! Bizilekutzat duen “bota” edo “alpargata” edo dena delako hortan bizi diren guztien artean banatzeko haina eta gehiago ere badik harroxko horrek, eta

beldur nauk, ez ote naizen motz geldituko. Begibistakoak dituk orain ere bere aberats eta sasi jakintsu plantak.

Egun batez, ohitura apurtzeko beldurrez edo, azokan azaldu huen tipoa eta egun berezi honen istorioa azaldu nahiean, bere ustezko (uste handiko) bertsioa asmatzera ausartu huen. Esan ez zian ba egun hari izena bere omenez jarri ziotela! Santua izango balitz ere! Eta hau gutxi balitz, aise baino aiseago geratu ez huen ba petral hura! Aitaren batean bota nian bertatik, ez lehenengo ezta azkenengo aldiz ere. Noski, denok espero bezala, ohiko hitz arrotz eta marmartiak jarduten hasi huen: "Ma mio frattelo, io dire la verità! Ma raggazzi, io ne soi un bugiardo! Porca misseria!". Eta nik deus ere ulertu ez, ezta beharrik ere, esker honeko hitzak ez zirela jakiteko. Beraz, oraingoan ere, artikulo treinta y trés: kasurik ez. Ziztu bizian bidali nian popatik hartzera: "Va fan culo signore!". Errespetuz beti ere, gauzak argi baina errespetu handiz. Esaldi hau ondo nian ikasia, lagun italiar batek irakatsia. Ez zidak inoiz huts egin: hitzok aditu bezain pronto, mokoa itxi eta ospa egiten dik inozo putzontziak. Dudarik gabe, ekarritako amansalba makarroi zaku haien ondoren, lagun honek eginiko oparirik dotoreena: "botan" bizi den petral oro uxatzeko errezeta.

Itzala txikiagoa egin da, jada ez da hasieran iruditutako gizona. Kanpotik, uste baino beroagoa, horrela irabazten du bere bezeroen uste ona. Barrutik, aldiz, uste baino hotzagoa. Bihotza ez ezik, zainak ere izotzezkoak dituen gizona, xelebrekeri eta handiuste kontutan Balentinori aurrea hartzeko gai da aise.

Ez da pareko antzezlearen begietan malkorik ageri. Ezin tiroa aireratu. Tirorik gabe ere, argia bere kabuz

goibeldu da. Artean, pistolan oraindik hiru tiro. Karparen oihalerantz tirokatzen hasi naiz itsu-itsuka. Halako batean, beira hautsiaren herotsa. Bertan da beltzez margotutako leihoa, eta behin hautsita, bertatik datoz egunsentiaren lehen izpiak. Zirkua jendez gainezka ageria da. Txorinoek alde egin dute harrapaladan.. Amaitu da jokoa.

Datozen egunetan zehar musutruk biziraun beharko, arrazoia irizpide, sentipenei agur eta ohore, lau horma hauen artean dauden leiho oro bilatzea nire apeta.

# Etorkizunean islada

Maite Carreras Orobengoa
Ntra. Sra. de Dorleta ikastetxea
Eskoriatza

Abenduaren azken eguneko arrats hotz eta umela zen hiri hartako aparkalekuan. Eguraldi zakurra. Eguraldi tigrea eta eguraldi kokodriloa, denak batera egiten zituen. Arratsaldeko zortziak, kontsulta hertsirik uzteko une egokia. Urte berriaren iritsierarekin, oso egun lasaia izan zen hura, bezerorik gabekoa, aspergarria. Euria eta kazkabarra, leihoaren bestaldean. Langelako argia amatatzera nindoan, atearen bestaldean txirrin-hotsaren zarata bortitza entzun nuenean. “Beste bezeroren bat ote?” galdetu nion neure buruari. Urteko azken kanpaikadetarako lau ordu besterik ez zirela falta, zein izan zitekeen? Botoia sakatu eta kontsultan barrena sartzeko agindua eman nion.

Oso ogibide lasai eta bakartia zen nirea, guztiz bitxi zein berritzailea zentzu batean. Urtean zehar hartzaile kopuru hain txikia izanik, ez zen negozio ezaguna hiritarren artean. Etika eta moralaren esparruetatik kanpo bizi nintzela esan daiteke, pertsona askok ilegaltzat har zezaketen arduraren jabe.

Pauso geldo bezain nekatuak entzun nituen atearen bestaldean eta ateak ireki nizkion etorri berriari. Unaturik

zihoan, sufrimenduz betetako bizitza baten zorigaitzak arrastaka garraiatu balitu bezala. Kaleko haize bustiak jo ez zezan, zerbait makurturik zeramatzan bizkarrak, eskuak poltsikoetan eta lepokoa sudur-zuloetaraino. Gabardina handi bat soinetan eta frantses estiloko kapela buruan, oso pertsona garrantzitsua zirudien, dotorea, kulturaduna… Halaber, oinazeak erraiak jaten zizkiola gauza nabaria zen, aurpegi guztiz desitxuratu eta deformea eramankizun guzti horren isla baitzen. Eskua eman eta parean eseri zitzaidan, eskuak belaunen artean ipini zituen, orpoak agerian utziz. Ene kontsultatik igarotzen zen bezero orok helburu finko batekin egiten zuen bisita; hura ez zen salbuespena izango. Hala, bada, betaurrekoen kristalen gainetik begiratuz, ohiko galdetegiari ekin nion.

– Lasai zaude?

– Bai.

– Ur pixka bat?

– Ez

– Kafea, tea…

– Ez

– Lasai orduan?

– Baietz uste dut

– Gaurkoa ez da samurra izango. Galdera mordoa erantzun beharko dituzu. Ez dago beste modurik.

– Ondo.

– Prest?

– Aurrera.

– Galdetegi honen bitartez frogatu beharko duzu benetan ez dagoela beste biderik.

– Ez naiz gezurrak esatera etorri.

– Baina, esan ditzakezu.

– Ez da beharrezkoa izango.

– Egin dezagun aurrera orduan.

Bere presentziak errespetua erakusten zuen, ez zen egunero ikusten zen bezero horietakoa. Iraganean arrakasta izandakoaren zantzu guztiak betetzen zituen estreinako begirakunean, kultur esparruan jantzia den pertsona ororen antzera. Eskuetako hatzamarrekin jolasten zuen etengabe, muturreko urduritasun eta depresio egoera baten isla. Ñabardura tipikoa bizitza osoan tratatu nituen zorigaitzeko pertsonen artean.

– Ezkonduta al zaude? Seme-alabarik bai?

– Tira… ez da galdera erraza… Frantzia eta Espainia aldean izan nituen neure harremanak, baina bakardadea dut lagun orain. Seme-alabak? Bai badauzkat, baina bakoitzak bere patuari eutsi dio, ez dute elkar ulertzen eta horrek kezkatu egiten nau zeharo.

– Harremanik mantentzen al duzue?

– Egia esan, harremana bai, badago, baina esan bezala, bakoitzak bere bidea hartu du, badakit hauek ere sufrimen-

duan murgildurik daudela, nire antzeko egoeran baitaude, izan ere, nire antz handia daukate eta batzuek… ez dute onartzen. Guzti honek… nire pairamena areagotzen du.

– Zure seme-alabek ba al daukate aitaren sostengurik?

– Ez, horregatik ari dira sufritzen. Borroka irekia dago, ezin dezakezu imajinatu nolako sufrimendua den hori ama batentzat, izan dituen seme-alabak minduta ikustea, beraien esparrua defendatzen ikustea inolako arrakastarik gabe.

Nahiko zaila egiten zitzaidan galderak burutatzea, hanka sartzeko beldurra baineukan. Ur zurrutada bat edan, hasperen egin eta aurrera egin nuen.

– Egoera latza benetan. Zure gurasoak bizirik daude?

– Ez ditut ezagutzen.

– Nola liteke hori?

– Nahiko aldrebesa da dena. Dagoeneko urte asko ditut, ezin dezakezu imajinatu ere zenbat hamarkada dauzkadan gainean. Umezurtza naizela esan daiteke… ez dut sekula nire gurasoak nortzuk diren jakin, jaio nintzenetik bakarrik hazi naiz, neure kabuz handitzen, indartzen… aldeko asko izan nituen garai batean, azkeneko urteetan ahultzen hasi naizen arte. Jarraitzaile horiek saiatu dira nire arbasoak identifikatzen, bazekiten nik hauek ezagutzeko ikusmina nuela , baina ez da erantzunik topatu, milaka orrialde bete dira nire gurasoen gaineko hipotesiekin, baina espekulazio hutsak dira.

– Ez duzu hipotesi horietan sinesten?

– Hasiera batean izan nuen itxaropena, baina hain ziren diferenteak teoria guztiak… azkenean jendeak dirua irabazteko edota liburu batean agertzeko besterik ez zituela idazten pentsatu nuen. Nola liteke ni Kaukasotik jaio izana edota Mexikotik? Ez dakit, azkenean esperantza guztiak lurperatu nituen. Dagoeneko ez dit axola.

– Beharbada ez dizu axola, baina zuk ez duzu onartu nahi eta horrek zure egoera lazten du.

– Beharbada.

– Goazen harira, lanik bai?

– Ez daukat lan zehatzik, neure existentzia herritarren komunikazio, sentimendu, pentsakera, izaerari lotuta dago ezinbestean. Nire bizitza haiei eskeinita, haien zerbitzura dago, menpeko, gatibu. Identitate propioak ere ez du zentzurik herritarren sostengurik gabe; kultura zabaldu, elkarrizketa ororen partaide bilakatu, jendearen ahotsa izan…ez da lan erraza ni bezalako agure ziztrin batentzak eta egungo gizarte modernoak oztopoak besterik ez dit sortzen.

– Ikusten da, dena dela, ardura polita daukazula.

– Inori ez zaio interesatzen egiten dudan lana, batzuk salbu, gaur egungo jendea tontoa da, axolagabea.

– Gure bezeroen artean zure egoeran dauden askorekin izan dut harremana.

– Zuen bezero izandako batek hitz egin zidan zuei buruz. Bretainierak. Frantzia iparraldean bizi da orain.

– Oroitzen dut, tipo zintzoa zen, azkarra.

– Politikaren inguruan hitz egin behar didazu orain. Alderdi politikorik jarraitzen al duzu?

Keinu deseroso batek salatu zidan ez zela gustoko gaia berarentzat.

– Ez naiz batere politikazalea. Herria zatikatu eta borroka armatu zein ideologikoa sustatzea gorrotagarria, nazkagarria zait. Badira nire izena defendatuz politika egiten saiatzen diren pertsonak…badakizu, ospeak dirua dakar eta diruaren atzetik, botere unibertsala xerkatzen du gizaki malurusak, esparru eta arlo guztietan. Botere zikin bezain madarikatua. Ez dut autoritate horren aurpegi, sinbolo izan nahi. Nire izaerak ez du politika ez ideologiaz ulertzen.

– Oro har, harreman ona duzu herritarrekin?

– Bai, hala uste dut.

– Biolentzia fisiko edo psikologikorik?

– Beti izan dira abertzaletasunaren inguruko liskarrak…nazioa, aberria…fanatiko asko dago hemendik, badakizu. Borroka ideologikotik, guda armatura eta bertatik etorkizun beltzera amildu da gizartea. Egoera hobetzea ez dago nire esku eta, ironikoki, zentzugabeko borroka horren kaltetu nagusia naiz ni. Ene heriotza hain gertu ikusteak larritu egiten nau eta frustrazioa, inpotentzia… eragiten dit uneoro.

– Hala ere, badira zurekiko leialtasun eta fideltasuna erakutsi dutenak ezta?

– Nik dakidala, bai.

– Zu fidela zara herritarrekiko?

– Bai.

– Gizarteak maite zaituela uste duzu?

– Denetik dago…badira egunean zehar gehiegi maite eta gauean baztertuta uzten nautenak, baita lehenengo begirakunean beldurrez alde egiten didatenak ere…oso izaera konplexua omen dut… Ezezagunekin, pertsona berriekin harremanetan jartzea izugarri kostatzen zait, errekurtso guztiak xahutzen ditut, baina alferrik…neure ingurutik aldentzen dira denak…Zergatik ote? Batzuetan edertasuna galtzen hasia naizela pentsatu izan dut…

– Oso ederra zara oraindik.

– Utzi alde batera konplimenduak.

– Herrikideak maite dituzu?

– Estimua diet, haien pentsamendu, jarrera, sentipenei forma emateak herri-identitatearen zati bihurtzen nau neurri batean… nola ez ditut, ba, maiteko? Hala ere, zenbaitzuk hartutako bideak kezkatzen nau gehien bat…asko dira zio politiko-militarrengatik erbesteratu eta atxilotuak izan direnak eta horrek min ematen dit.

– Politikan sinesten duzu, beraz.

– Sinetsi? Herritar ororen sufrimendua nire sufrimendua da, 30 urte espetxeratu eta familiarengandik urrun bizi beharrak edonorengan sortzen du atsekabea, pena. “Sinetsi” ez da hitz egokia.

– Axola ez bazaizu, politikagintzan sinesten ez duzula jarriko dugu orduan.. Ados?

– Erabat.

– Ongi da, informe hau irakurri eta ados baldin bazaude sinadura ipini.

– Ez nago ados.

– Zergatik?

– Hala ere aurrera egin nahi dut.

– Zergatik ez zaude ados?

– Ez dut nire burua gai ikusten herritarrei kalteak sortu edo beraien zaintza deskuidatzeko.

– Orduan, zergatik jo duzu gugana?

– Ez zegoen beste irtenbiderik.

Haize bolada bortitz batek leihoa astindu zuen une hartan. Hamarrak eta hogei, emaztea urduri eta afaria hoztuta etxean. Larritasuna, kontsulta barruan. Elkarrizketak iparra galdua zuen dagoeneko; batzuetan mota honetako kasuak bideratzea ez zen gauza erraza. Denborak aurrera egiten bazuen ere, amaiera gertu zegoela nabaria zen.

– Noiz egingo dugu? –galdetu zidan.

– Egutegia aztertu beharko litzateke, dena dela, prozesu honek hamarkada pare batzuk baino ez ditu hartuko. Geldoa bezain mingarria izango da, aurrera jarraitu nahi al duzu?

– Bai.

– Badakizu txosten honen oniritzia jaso behar dugula lehenik, Madrilgo Kultur Ministerioaren zigilurik gabe, ezin dugu aurrera egin. Lasai egon zaitez aberkideengatik, behar den momentuan jasoko dute Gaztelera edo Frantsesaren babesa eta haiek eskainitako bizimoduari egokituko dira hobekien.

– Bidezkoa da.

– Ados gaude orduan, irtenbiderik aproposena arrastorik utzi gabe deuseztatzea dela, gizartearen, historiaren oroimenetik guztiz desagertzea, alegia?

– Ados, nolanahi ere, katalogoa ikusi nahiko nuke berriro.

– Zure profilari hobekien egokitzen zaizkion metodoak hauexek dira: ofizialtasunaren galera eraginkorra edo hezkuntza sisteman gogor jokatzea; zure presentzia esparru publiko nahiz pribatuetatik ezabatzea derrigorrezkoa da eta aspektu juridiko-administratiboek asko lagun dezakete horretan. Zentzu honetan hezkuntzak izugarrizko garrantzia dauka belaunaldi berrien prestakuntzan, dudarik gabe eremu hau izan da zure elkarkide nagusiena azken urteo-

tan. Bi alor hauei egin behar diegu eraso sistema honen bitartez.

– %100eko eraginkortasuna duela egia da?

– Metodo hau, abian jarri duten gobernu guztien %... itxaron pixka bat ordenagailuan begiratuko dut… %72ak lortu du bere helburua.

– Asko da.

– Bai, asko da, baina zurea bezalako aberriek daukaten kultur eta ohitura erroak sakonak dira oso. Tradizioak, paper garrantzitsua joka dezake egoera hauetan. Horrek, zertxobait konplikatzen du bide honen eragina. Beste aukera bat ere badago. Hori bai, askoz garestiagoa da eta kalte sozial handiak eragingo lituzke.

– Zein da?

– Bide militarra. Ekimen armatu baten bitartez inposaketa eta debekuak gauzatzea, herritarrengan beldurra zein presioa zati berdinetan sustatzea, alegia.

– Ez.

– Ez?

– Ez, inondik inora, nahiago dut metodo leuna. Ez nuke modu hain bortitz eta desegokian desagertu nahi. Behar bezalako diosal batekin alde egitea gustatuko litzaidake.

– Oso jarrera ondradua zure partetik -ihardetsi nion.

Agerikoa zen hartutako erabakiak atsekabea sortzen ziola erraietan, min hori malko eran azaleratu baitzen bere aurpegi indargabetuan.

– Oraindik atzera egiteko garaiz zabiltza -esan nionbitartean ondo profitatu zure denbora, deituko dizut.

– Ez dut atzera egingo, zaude lasai.

Aterkia hartu eta irtetera zihoan bezeroa. Intentsitate handiko arratsaldea izan zen egun hartakoa. Bulegotik atea irekitzen ari zen, identifikazio fitxa artean hutsik zegoela konturatu nintzenean.

– Barka, zure izena mesedez?

– …Ez da bakarra: Basque, Vascuence, Baskische Spratche, Lingua Basca, Baskiska…Euskara dei nazazu.

# Simon

Kepa Matxain Iztueta
Antigua-Luberri institutua
Donostia

Simonek dio nazkatu dela. Ezin duela gehiago. Haragi egosiak ez omen du garai bateko usainik eta leihotik kanpora giro nahasia antzematen omen du, jeltzaleei botoa eman zien urte hartan bezala. Egia esan ez da sekula aran zalea izan, nahiago zituen ezkerraldeko zuhaitzeko gereziak. Daltoniko konplexua leporatzen dionari oker dabilela esango dio, baina gorria behar lukeena berde ikusten du orain. Eta nahastuta sentitzen da.

Ohartzen da, udazken gauetan patio ilunera paseatzera irteten denean, garaiak aldatzeko daudela, bestela ez liratekeela garai, garaiak aldatuko ez balira guztiok garai berdinean biziko ginetekeela. Eta hori txarra dela baieztatzen du, hitz seguruz. Baina nazkatu da hainbeste liberalekin. Zulo handi batekin parekatu dizkit, erortzea oso erraza den zulo batekin.

Semea aspaldi zulora erori zitzaiola eta kezkatuta ageri da. Emakumeak eta musika bakarrik omen dira haren hankartea zutitzeko gai. Eta aberria? Aberria ez. Saxofoia jotzen du, saxofoia, aizu...ezin zuen besterik izan... zeren modernoa baita hori. Eta modernoa dena egin behar. Simonek hala dio.

Berak, ordea, ez ditu gustuko modernoak. Kalean albotik igarotzean goitik behera begiratzen ziotela iruditzen zaio, zaharkituta balego lez, kopetean Don itsatsita balu bezala. Ardo merkearen tankeran.

Urrun daude garai onak. Simonek "eseri" esan eta ikastolako ingeles klaseko haur guztiak esertzen ziren garaiak. Ez da lehengoa ala mundua aldatu da, batek daki. Biak batera, seguruenik ere. Mundua zahartu egin da, bera bezala. Oraingo gazteek berak baino mundu zaharragoa ezagutu dute, eta konforme daude. Gehiegi, Simonen uste apalean.

Izan ere, mundua gazteago zeneko urteetan Bolivar abizenez bataiatu eta askatzaile handitzat zuten Simon. Orduan bai iraultzak. Orain, ordea, kalean gelditzen duten apurretan aspaldian Garfunkelen berririk ez dela eta ea non dabilen galdetzeko izan ohi da. Musika, musika besterik ez.

Simonek uste du orain musika ere zikinagoa dela garai batekoa baino. Asmatu zitekeen dena asmatu dela dagoeneko.

60an markatu zutela estiloa, mod eta rockerren arteko borrokak izan zirela, 70ean ere Espainia parteko diskoteketan musika zozoa ezaguna egin zela Britainia Handian punka zabaltzen ari zen bitartean, 80an Euskal Herriko rock erradikala, esaterako, esentziadun mugimendua izan zela, baina orain lehengoek jotakoa errepikatzea besterik ez dugula egiten. Izaerarik gabeko belaunaldia oraingoa.

Gogoeta hau ez dit Simonek belarriratu, Simonek trikitia entzuten du eta pasodoble edo baltsen bat edo beste. Trikitia bestea baino gehiago, eta tartean behin, Segura irratian jartzen badute.

Hilean behin edo jaisten zen Simon herrira baina buelta konpletoa egiten zuen egun seinalatuan. Barberuarenera ilea arreglatzera, alpargatak erostera zapaterira, ondoren herritik zehar betiko ibilaldia osatu eta Tomaxenean sagardo botila hustu tortila pintxoarekin batera...

Baina Simonek isiltzeko agindu dit, ez hitz egiteko berari buruz, nazkatu dela eta ezin duela gehiago. Haragi egosiak ez omen du garai bateko usainik.

Ohe zuritik jaiki eta tirantezko barruko kamiseta hartu du eskuartean. Aspaldian gustuko zuen. Emazteak bat erregalatu zion egunetik ez zen tirantezko kamiseta zuririk gabe ibiltzen. Besoak erakutsi eta tripa ezkutatzen zuela eta, berarentzat apropos eginak ziruditen. Baina emaztearen heriotzak astunago bihurtu zuen Simonen bizitza, kamiseta eta galtzontziloekin batera. Lasagoak erosten hasi zen. Kamisetek, berriz, armario barruko iluntasun betierekora itzuli beharra izan zuten eta Simon etxera ailegatu bezain laster biluzten zen, komuneko paperaren tuboa balitz bezala biluztu ere, pixkanaka eta bueltaka. Pixkanaka eta bueltaka. Eta semeak komuneko paperarekin egiten dena egin zuen, abandonatu, ez oso toki gustagarrian.

Ordutik begiak hazi zaizkio ikaragarri Simoni, baita kokotsa ere, baina begiak batez ere. Ispiluko Simonek pena ematen diola aitortu zidan baina duintasunari eusteko ahalegina egiten du halere. Zu hobeto ikusteko, dio, inork ezer galdetuz gero. Nik orduan aipatzen diot ispiluaren ziriarena, gaixoak ez dakiela ezkerra eta eskuina bereizten eta kasu handiegirik ere ez egiteko. Baina Simonek oraindik luze hitz egiten du ispiluko Simonekin. Luzeegi.

Hala ere, itxura penagarria duenik ezin ukatu. Arrazoia alimentazio eskasa izan daitekeela pentsatu dut. Zeren jaten duguna bagara, Simonen begiak bi pastilla dira. Handiak oso. Eta azken aldian disolbitu egin direla baiezta nezake, negarrez somatu baitut inoiz ez bezala. Diote, edo agian ez, amaiera hurbil ikusten duenak plazerra bilatzen duela eta plazerra topatzeko bi modu desberdin daudela zabalduta. Bata, Horaziok aspaldi aholkatu bezala, unea ahalik eta hobekien bizitzea litzateke. Bigarrena, bizitako unerik gogoangarrienak gogoratzea. Ez dadila inor Simoni koldarkeria leporatzen ausar bigarrena egiten duelako. Ziur naiz ahal balu bestea aukeratuko lukeela.

Isiltzeko agindu dit ostera ere. Eta haragi egosiaren usaina aipatu. Ez omen da lehengoa. Aholkatu diot iragana ahazteko, orain ere kalitatezko haragi egosia edukiko dutela nonbait; are gehiago, gaur egungo aurrerapenekin zaporetsuagoa ere jaterik izango duela. Seguru gainera.

Simon, ordea, ezezkoan dago. Baserriko haragi egosiaren zapore bustia ezin dela makinarik aurreratuenarekin ere lortu.

Aurrerapena, bai, baina noraino? Simonen alpargatei erreparatu diet. Etorkizunik gabeko oinetakoak besterik ez dira. Hurrengo belaunaldietako edadetuek aire girotua barneratuta daramaten zapatilak erabiliko dituzte edota babak kentzeko sistemadunak, akaso. Alpargatak bakarrak dira, bakoitza da berezia, batek haria zintzilik eduki dezake eta besteak oin estuegia. Alpargatak eta oina osagarri dira. Lehenak beharrezkoa du oina mundua ezagutu nahi badu, bigarrenak eskertzen du alpargataren babesa. Eta bata bestera egiten da: oina alpargatara eta alpargata oinera.

Baina laster jantziko ditugu guztiok oinetako berdinak, urrutiko lantegi handi batean eginak, hizkuntza bera hitz egiten duten milaka errobotek sortuak.

Simon ez da ergela, iritzia aldarazi dit. Berak ez daki, baina globalizazio deitzen dioten mamu horrek irentsi ez duen azkenetakoa izango da. Berezia, bakarra, alpargatak bezala.

Ez da iritzi berekoa, ordea, bata zuriko bizarduna. Harentzat Simon hemengo beste guztiak bezalakoa da, bat gehiago. Dirua ematen dion bat gehiago. Hala esan zion semeari, hau toki segurua zela, espezialistez betea eta gainera oso instalazio modernoak zituela.

Hura lasai geratu zen; ni ez.

# PROSA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Estu-estu

Amaia Iturriotz Etxaniz
Urretxu-Zumarraga ikastola
Urretxu

Bihotzean daude, bizirik zein hilda, lehen musuak eta ezezkoak, malko gorriak eta ezpain gorriagoak, tintaz mukuru behar luketen gutun zuriak, mesanotxeko tiraderakoak, zakarrontzikoak...

Bihotza, ui bihotza, argazkiz jositako tren-geltoki bat bezalakoa da. Badatoz tren handiak, badoaz txikiagoak. Etengabe. Maitasuna esertzen da bagoietako aulki guztietan, hainbesteko pisua duen zera hori. Eta trenak bezalaxe, badator eta badoa.

Hori da pisuzko egiak bihotzean ez gordetzeko arrazoia, ez dela komeni nahi dutenean joateko eskubidea izan dezaten. Hobeto daude kutxa-goporrean, munduko pasahitz zailenaren mende. Guantanamon preso.

Nik badaukat ene Guantanamo, eta zuk zurea, eta baita Martinak ere. Kontua da Martinak erauntsi egin nahi izan zuela. Ez zuen lortu, ordea, eta bere saihetsen artetik pertsiana jaitsi zuen betiko, barroteak ez baitziren nahikoa Guantanamo oso bat ezkutatzeko.

Horregatik diote auzoan neska bitxia dela zinez; bere egiei bihotzean egiten dielako lekua, eta badatozkiolako, eta badoazkiolako... Jendeak uste du egien kilogramoei jaramonik egiten ez dielako hartzen duela jarrera hori, baina ez da hala. Ez zaio iruditzen *Eroski*-n hiru txokolate tableta ebatsi dituen mutikoa eta hogei neska errusiar prostituitzera behartu dituen traje beltzeko gizona zelda berean sartu behar direnik. Traje beltzeko gizon ugari atxilotu zituen txikitan bere kartzelan eta ez du mutil koskorrek ezagut ditzaten nahi, hauek gizontzean traje beltza jantziko duten beldurrez.

Martinak txokolate tabletak ez, baina gozoki-dendako txikle batzuk osten ditu noizbehinka. Koadrilako tabernaz-tabernako jira eteten du gozo-dendan igande arratsaldeetako pipa paketea erostera sartzeko. Segurtasun osoz zeharkatzen ditu gominolen ontziak, patata zorroak eta *chupa chups*-ez goraino dauden marrazkidun poteak. Orduan, begiak ohi baino gehiago zabaltzen zaizkio eta mugimendu bakarrean hiruzpalau txikle sartzen ditu diru-zorroan eta pipak ordaintzeko txanpona ateratzen du bertatik. Beroa sentitzen du gorputz osoan, eskuak izerditan blai sumatzen ditu. Irribarre ñimiño batek egiten dio ihes, gogoko du. Pipa paketearekin zuzentzen da tabernan dauden bere lagunengana, pipa-azalez estaltzen dute zorua denen artean eta diru-zorrotik txikleak ateratzen ditu Martinak. Barre ozen bat irteten da bakarren baten ahotik, hamar urte zituzteneko garaiak etortzen zaizkie gogora eta orduko kontuak kontatzeari ekiten diote. Martinak, ordea, ez du bat bera ere gogoan, ez gogoan eta ez inon.

Orduantxe, etxera joan behar duela esaten die adiskideei eta irri zabal batez agurtzen ditu oroitzapenen kutxa goxo laztantzen dihardutelarik. Tabernako atea lasterka

zeharkatzeaz bat, malkotan lehertzen zaio barrena, irri zabal hori itsaso zabalagoan itotzen delarik. Lasterka egiten du atarirainoko bidea, lasterka eta negarrez. Auzokoak berari so geratzen dira eta esaten diote albokoari:

– Ene, zeinen emakume bitxia bilakatu den gure Martina! Hara, gaur ere, herri osoaren aurrean egiten umetan egiten ez zituen mainak!

Txikitan ere bazuen malkorik isurtzeko, baina ongi ikasia zeukan litroak kutxa-goporreko ur depositan pilatzen, begietako *rimmel*-a korrituko baitzitzaion bestela.

Zazpi urte zituela azaldu zen lehen aldiz telebistan, kardantxiloen gisan abesten munduko soineko politena jantzita, berari hala zirudion bederen. Gau hartan sekula baino hobeto egin zuen lo, horrenbestetan amestutako printzesa bilakatu baitzen oholtzaren gainean eta beste behin, soineko polit harekin egin zuen amets. Artean ez zekien, ordea, printzesa izateaz aspertu egingo zenik, soinekoa praka motzez eta oholtza parkeaz ordezkatuz eraldatuko zitzaizkiola ametsak.

Zazpi urteen ondoren zortziak etorri ziren, zortzien ostetik bederatziak... Abestiaren gainetik abestiak, gero filmak, publizitatea... Soinekoak eta soineko gehiago. Irria bisaiatik aldendu gabe eta kutxa-goporra trajedun gizonez gero eta beteago. Denek izan nahi zuten bera bezalakoa eta Martinak denak bezalakoa izan nahi zuen.

Baina egun ez ditu hamar urte eta gaur ez da igandea.

Txokolatezko zerealak nahi lukeen baino lasterrago irentsi ditu gosaritan. Gazarekin akordatu da orduan, han

ere batzuk besteak jaten ari direlako, tiroak harrien aurka. Erruak jan dizkio urdailean jiraka zerabiltzan zerealak, ez baita justua baliabide berberak izan gabe, baldintza berberetan lehiatzea. Zakarrontzira bota du koilara.

Komunean sartu da txiza egin asmotan. Ai, hortzak garbitzea ahaztu zaio gaur ere! Jope, ez zaio mendazko pasta gustatzen, pikatu egiten du, baina garbitu beharra dauzka, amak antzematen badio eskuilari berriz ere izkin egin diola... Ene, zergatik ez ote da amaz lehenago gogoratu!

Sekulako demanda egin dio lanera hamar minutu berandu iristeagatik. Hala ere, beste hogei bat minutu igaro arte ez da bezerorik sartu lentzerian. "Egunon" alai batez ama-alabei euren arteko tentsioa ezkutarazi dien berrogeitaka urteko emakume bat izan da lehena. Lau bularretako modelo ezberdin atera dizkio Martinak bere nahiei erantzunez. Horietatik bi baztertu egin ditu, bular txikiagoa egiten omen zioten-eta.

Baztertutako bi prendak beretzat hartzea pasa zaio burutik Martinari, bere bularra desagerrarazi nahian baitaramatza urte asko. Oraindik gogoan du hamahiru urterekin, hamahiru urte madarikatuekin, bularraren inguruan oihal zuri bat estu-estu jartzen hasi zitzaizkiola ume itxura izaten jarrai zezan. Min egiten zion trapu hark, azala gorri-gorri uzteraino. Hala ere, irri egitea lortzen zuen kameren aurrean, Martina omen zelako unibertso osoko neskatorik zoriontsuena.

Alabaina, bularra zanpatuagatik ere, hamasei urteak zail ziren zanpatzen. Eta emakume izateagatik noraezean utzi zuten Martina zazpi urterekin emakume izatera behartu zuten berberek.

Bularretako eta galtzontzilo artean igaro zaie goiza, bazkaritarako orena ailegatu delarik. Maite dute elkarrekin bazkaltzea, Martinak gogoko baitu amak prestatzen diona eta amari gustatzen baitzaio alabaren laudorioak aditzea. Hitz bitan: alabak asko maite duelako ama eta amak alaba.

Martinak mahaia jartzen zuen bitartean, postrerako sorpresa ekarri duela esan dio amak babarrunak berotzeari utzi gabe. Alabak dena txintik esan gabe jatea lortu du sorpresaren irrikak. Babarrunez eta txorizo zatiz betetako koilara ahoan sartu duenean, ordea, berau zakarrontzira botatzea otu zaio Martinari, baina amaren etxea salbuespen gisa hartzea erabaki du.

– Tantatatxan!-beretzako jogurt gaingabetua atera baino lehen, marrubizko *petit*-suisse-ak jalgi ditu mahaira.

– Nola ezagutzen nauzun, ama!-zirrara erakargarri batek astindu du Martina, *petit*-suisse-en zapore goxoaren eta amaren kariño goxoagoen eraginez.

Goizaren ildo beretik zihoan arratsaldea dendan, harik eta mutil-lagunarentzako galtzontzilo bila sartu den emakume batek ama-alabei arreta bereganatu dien arte. Biek ala biek ezagutu dute jantzita zeraman soinekoa, urdina eta lasaiera handikoa. Munduko soinekorik politena dela deliberatu dute, Martinak zazpi urterekin estreinatu zuen haren berdina, baina handiagoa, politagoa. Eta konturatu dira neskatila haren abestiak ere politagoak liratekeela hamar neurri handiagoko soinekoa jantzita kantatu izan balitu. Baina jada ez dago atzera bueltarik, Martinari haurtzaroa ostu zioten eta gainontzeko urteak bere buruari ebasten ari zaizkio.

Galtzontzilo marradunak zeramatzan poltsarekin dilindan ihes egin die soinekoak, baina ordu laurden igaroko zen oihal urdinaren isla begi-ninietan difuminatu zaienerako. Antzera ihes egin diote elkarri, ez baitzuen inork soinekoaz hitz erdirik egin nahi, horrek Martinaren zazpi urteak zekartzalako eskutik. Eta izango dira hamabost urte garai hartaz mintzatzen ez direla, hamabost edo gehiago.Giltzaz itxi dute lentzeriako atea eta, nor bere bideari lotu baino lehen, musu eman diote elkarri ezer pasa ez balitz bezala.

Martinak gaur ez zuen afaltzeko gogorik, beraz, *cola cao*-a hartu du ohi baino zereal gutxiagorekin eta koilararik gabe. Bere pijama begikoena janztera joan da logelara, *Piolin* mordoa dauzkan hori. Oheratzera zihoala zaborra jaitsi behar duela akordatu da eta pijamako galtzen barrena gorantz bildu du *Piolin*-ek etxeko-zapatiletako katuekin topo egin ez zezaten.

Edukiontzi horira bota ditu ontziak, berdera zaborra, urdinera papera eta ez zuen ezer beste berdera botatzeko. Zaramaren usain desatsegina berehalakoan ahantzi du plazako parkea ikusi duenean. Ezin izan dio tentazioari eutsi. Korrika joan da zaburaino, beste haur batek kentzeko beldur balitz bezala, baina negua izanik , inor gutxi zebilen kalean gaueko hamarretan. Ordu laurden luzea eman du hankak luzatuz eta tolestuz zeruraino iritsi nahian. Zerua urrun geratu zaio, ordea, amak soinekoari eskaini dion begirada eta isiltasuna burutik kendu ezinda baitzebilen. Onena etxera igotzea zuela ondorioztatu du orduan, amak bihar katarroa harrapatzearen errua *Piolin*-dun pijama hutsari egoztea nahi ez badu behintzat.

Edredoipean sartu du burua, bere burua eta peluxezko untxi morearena. Zerura bidean erraz hartu du loak.

Lo dago orain, aingerutxo bat bezala. Irri ere egiten du noiz edo noiz; zerekin ari ote da ametsetan?

Ññññññ... Atea zabaldu du norbaitek! Martina kolpez altxatu da ohetik. Atarirantz doa peluxezko untxia besoetan estu hartuta. Ama da negarrez. Estu-estu besarkatu du alaba, neskak untxia baino estuago, oihal zuriak bularra baino estuago.

– Barkatu.

# Hiru

Amaia Iturriotz Etxaniz
Urretxu-Zumarraga ikastola
Urretxu

Badira hiru aste bezperako gurutzegrama egiten duela Bittorrek. Begirik itxiko ez duen ohera sartu aurretik jartzen da iraungitako egunkariarekin aurrez-aurre, zuri utziko lituzkeen koadrotxoak bezainbat alditan hozkatutako axota hatz dardaratien artean hertsirik.

Poliki-poliki, ongi meditatuz osatzen ditu lerroak. Lerro bat eta erdi minutuko, edo hor inguruan ibiliko da. Saiatzen da buruari bira zentzugabe gehiegi ez ematen, eta lortzen du, baina gero ez bedi segundoko 0,025 lerro triste soilik osatzeaz harritu.

Segundoak segundo, orduak ordu, beti geratzen zaizkio koadrotxo zuriren batzuk. Eta egonezinaren morroi bilakatzen da. Erraietaraino sartzen zaio axota hozkada bakarraz hausteko gogoa. Sabelean liztorrak sumatzen ditu tximeletak baino. Eskutik helduta gainezka egitear nabaritzen ditu malkoak eta sua, elkar deuseztatu gabe.

Eguneko egunkaria hartzen du orduan, larri, asmatikoak *bentolina* bezalatsu. Azken aurreko orriari so egiten diote bere begi irtenek.

Egiptoko jainkoa.

Ra.

Uff! Seigarrengoz gauza bera galdetzen diotenerako azertatuko du apika.

Krudel.

Anker.

Ufff! Ez dago gaizki horrelakoei buruz ezer ez jakitea.

Suari dariona.

Kea.

Ufffff! Hau erraza zen, bai, baina nola asmatuko du sekula kerik arnastu gabeak?

Beren lekura itzultzen zaizkio begiak.

Ez du zalantza ñimiñoena jasaten lipar batez ere, ez zaio duda bat gehiago kabitzen bere baitan. Eta hala, hiru aste daramatza azala koadrotxo zuriz ezkatatuta, bere anaia non dagoen esango dion egunkaririk topatu ezinda.

Zalantzak ez bezala, itxi egiten zaizkio beren lekura bueltatu berri zaizkion begiak. Loak hartzen du orduan, egunkariei helduta emaztea besarkatu ordez.

* * *

Badira hiru aste Aitor desorientatuta esnatzen dela Julioren etxeko ohean. Gorroto du desorientazioa, berriz azaldu behar baitio bere buruari zergatik eta zertarako eman dion 360 graduko bira bizitzari, bereari eta besteenari.

Alabaina, desorientazioak ernai dirauela dirudi mintzo zaion begi pare bakoitzean. Ez dago kopetako galdera ikurra hatz erakusleaz seinalatzen ez dion ezpainik. Badirudi enplegu bulegoko ilara iraganari buruzko itaunketa zorrotzean baizik ezin daitekeela buka, inon amaitzen bada.

Eta enegarrenez errepikatzen du Aitorrek hiriaren anonimotasuna probatzeko etorri dela Madrila, Goierri txiki geratu zaiola. Eta Goierri txikia dela eta Madril handia.

Bazekien, ordea, Juliok ez ziola sinetsiko. Madril handia dela eta hori bai, baina anonimotasunarena bada ez. Juliok ondo gogoan zituen Donostiara inguratzen ziren egunak. Amaren eskutik Conchaz gozatzera hasieran; Igeldoko tiobiboaren erruz, amak maitasun osoz prestatutako tortilla ogitarteko hotza okada bakarraz botatzera ondoren; gau osoan irauten zuten Errealaren partidak ikustera gero...

Zer ongi bizi garen gure *Minidonostian*! Aitorren hitz magikoak izan ohi ziren haiek, hogei urtek ere higa ezin ditzaketen horietakoak. Horregatik esan zion Juliori anaiaren etxean zama gisa zekusala bere burua, unatu zela etxe hartako hirugarren haurra izateaz eta besteak ere halatsu egonen zirela, bai Bittor, bai Miren eta baita neskak ere.

Hortaz, nork du errua, Goierriren txikitasunak ala apopiloaren aurpegi latzak? Bada, ez batak eta ez besteak, suak du kulpa osoa. Gehiena.

Sententziak sententzia, hiru aste daramatza Aitorrek supiztekoa sakatu gabe. Nola sakatuko du bada, ibaira bota bazuen, bai-baitzekien, egokiena gehiago ez piztea izanik ere, lehenago edo beranduago tentazioan eroriko zela.

Suari ezin zaio manatu, nahi duenenean nahi duena egingo du beti. Eta gerta liteke norberaren nahiak eta suarenak bat ez etortzea. Gerta liteke eta gertatu da.

Sua berez ez da txarra. Berez. Bestela da, ordea, zigarreta piztera ailegatzen bada. Eta zigarreta ere berez ez da txarra. Berez. Aitzitik, dena da okertzen kea nikotinari alergia dionak arnasten duenean.

Aitorrek bazeramatzan hilabete batzuk zigarroaren argitan. Horregatik bota du pizgailua errekara, bere anaiak nikotinari alergia diolako. Bittorrek alergia diolako eta berak adikzioa.

* * *

Badira hiru aste ezpainak margotzeari utzi ziola Mirenek, dagoeneko ez baitauka erakargarri sentitzeko inolako premiarik. Sua bezain gorria omen da karmina, erakargarria, minbera.

Surik gabe eta karminik gabe, baina minbera sentitu du goizeko lehen argi-printza. Betiko nagi bera sortu dio ohea egin beharrak. Senarraren mesanotxe gainean utzi ditu goizero mihise artean lo topatzen dituen herenegungo eta bezperako egunkariak. Aspergarria da ohea egitea, eta zentzuzkoa. Nahiago zuen izarak atontzea absurdoa zenean.

Aitorrentzat margotzen zituen ezpainak ohe egina Aitorrekin absurdo bihurtzeko. Ostean, nagiturik baino, gustuz sartzen zituen izarak koltxoipean, maite baitzituen osteko izarak. Horiek bai, eta ez goizeko mihise zuri bezain aspertuak. Zuriak eta aspertuak, gurutzegramako koadrotxo hutsak bezala.

# Gau zoro bat besterik ez

Irati Oregi Belaustegi
Zumaia institutua
Zumaia

Bai Isabel, komunetik bueltatxoa emateak, on egin dizu, igartzen hasi zara efektua. Denaren jabe zara zu, guztietan ederrena. Gerria eta besoak musikaren esklabo dituzu. Gaur sexy zaude. Kamiseta gorri tiranteduna, zilborreko tatuai zatia bistan duzularik, ile beltz kizkurtua ia gerriraino iristen zaizula, inguruan dituzunen inbidia zara.

Bihotza taupada bizian jarri zaizu eta adrenalinak gora egiten dizula nabaritu duzu. Edozer egiteko gauza zarela sentituz.

Urtarrilaren erdialdea izango zen, hotza egiten zuen kalean, auto eta landareetan nabari zitekeen antzigarra. Gaueko ordu haietan ez zen arimarik ere kalean zehar, izara beltza hiri gainean zabaldu orduko, guraso, agure eta ume guztiak lo zeuden. Gazteak, ordea, musikaren esklabo zeuden diskotekan, bero itogarri hartan inurriak inurritegian bezala.

Astebururo da berdina. Madril bezalako hiri handi batean, jende berria ezagutzeko ez dago modu hoberik.

Era guztietako jendea duzu inguruan. Izkina batean *esno*bak daude, ilea alde baterantz orraztua, neskek perlazko belarritakoak eta ipurdi osoa estaltzen dien "gucci-ko" gerrikoa dutelarik. Ezkerretara, *punky*ak ikus ditzakezu, katez beterik, kamiseta urratuak eta bota handiak dituztelarik; ez dira sarri etortzen, baina noizean behin ikusten dira. Gertu, *friky*ak; beraientzat beti modan dauden koadrozko jertse, alkandora ondo lisatu eta panazko galtza beixekin. Nola ez, pasta lodiko betaurreko borobil eta zelo zati batez konponduak dituztelarik… Beste hainbat ere bai, nolako giroan murgiltzen zaren azaltzeko aipagarriak, baina era berean aipaezinak.

Gelaren ertzean dagoen tipoak begiradarekin biluzten zaitu, ematen duzun pausu bakoitzeko zure gorputzeko formak imajinatuz. Non sartu zara Isabel? Amak zertan zabiltzan jakingo balu… Arrazoi duzu, jada ez zara umea, nahi duzuna egiteko gauza zara inori entzun beharrik gabe…

Institututik irten ostean, Mariarekin joaten zen etxerantz. Egunero egiten zuen bide bera, errepide ondotik zuzen joan, ibaiaren gainetik igaro, eta hiruzpalau denda pasatu ondoren ezkerretara. Hiritik kanpo bizi zen, eskolatik nahiko gertu. Gogoko zuen Madril, ez zuen artistek eta poetek bezala ikusten, ez baitzen ñabardura literarioak ulertzera heldu, baina eguneroko bizitzaren poderioz, hiria maitatzera heldua zen eta ez zen gauza makala Venezuelatik etorri berria zen nerabe batentzat. Etxe garaietatik igarotzen zen heinean, leihoetara begiratu eta bertako familietan gertatzen ari zena imajinatzen saiatzen zen beti, jolasa bailitzan. Orduak eman zitzakeen leiho txikiei begira, aspertu gabe.

Gurasoak banandurik zituenez, amarekin bakarrik bizi zen. Ez zuen ia inoiz etxean aurkitzen lanaren erruz. Horretaz baliatuz, Isabel ostiral gauero irteten zen Mariarekin, errealitatetik irten eta ordu batzuez burua galtzeko asmoz.

Zu Maria eta bere mutil lagun Juanekin zaude dantzan, inoiz baino gusturago, ingurukoek begiak zure gerriarekin batera mugitzen dituztelarik, ping-pongeko partidu bat ikusten ari direnen moduan, tanto bat ere galdu gabe.

Juanek eskuineko poltsikotik izar irudia duten pilula zuriak atera ditu, bat bakoitzarentzat. Oso onak direla entzun omen du, inoiz probatzeko aukera izango duzuen onenenetarikoak. Bakoitzari bana eman eta eskuan duzuen kubataren laguntzaz, sast! barrura.

Zunpa, zunpa, zunpa, zunpa… denbora guztian berdina den musika. Beroa nabaritzen hasi zara, bihotza azkartuz eta burua biraka doakizularik. Musika altua, argi gorria, koloreak, jendea gainezka, izerdia, ingurua biraka, garrasiak… euforia?

– Gorago amama! Lainoetaraino!

– Ene Isabel, zerua leku ederra da benetan…

Neguko zeru urdin hari begira egon nintekeen ordu luzez, zabuan, klin-klan, klin-klan, klin-klan, gora eta behera. Zortzi urteko besoek ahalbidetzen zidaten indar guztia egiten nuen burdinazko soketatik tiraz, paradisu urdin hura ukitzeko ahaleginean. Behin eta berriz, behin eta berriz, ez nintzen errenditzen. Txori txikia bezain arina bihurtu, eta laino artean egiten nuen hegan, igarotzen zen bakoitzari forma ezberdinak irudikatuz.

Amamak ahots leuna zuen. Munduko amama onena zen niretzat. Nuen bakarra, egia esan, amaren aldekoa ez bainuen oraindik ezagutu. Neguan, bisitan joaten nintzenean, txokolate beroa prestatzen zidan, sukalde hotzeko sutondoan edateko. Manta beroekin goxo-goxo bildu, eta istorioak entzuteko prest jartzen nintzen. Gero eta gaixoago zegoen ordea, geroz eta zailagoa egiten zitzaion ohetik jaikitzea… Gauero errezatzen nuen bera senda zedin… Bera zen niretzat infernuan gelditzen zen izotz puska…

Egun hura izan zen, amonarekin igaro nuen azkena…”

Mutila zugana hurbildu eta elkarrekin dantzan hasi zarete. Aurretik ere ikusia zenuen, Karlos, motorrean ibiltzen den hemezortzi urteko mutil katxarroa. Gertutik are goapoagoa iruditu zaizu, ile beltz kizkurtua, begi gris argiak eta zu baino zertxobait altuagoa da. Narruzko jaka beltza darama soinean, bizkar sendoa egiten diolarik ukitu erakargarria emanaz. Musu eman dizu lepoan, bien artean elektrizitatea sortaraziz, eskuak bere lepo atzean kokatu eta jarraitu egin diozu jolasari. Izugarrizko morboa ematen dion bere bi eguneko bizarrak eta hats goxoak kili-kiliak egiten dizkizu kokotsean.

Zertan zabiltza Isabel? Oraindik hamabost urteko kakanarru bat zara… motor bat ikusi eta hankak dardarka jartzen zaizkionetakoa(…) Ezin al zara likiskeriatik irten?(...) Nigandik geroz eta hurbilago zaude...

Zure gorputza berarenean itsatsita, zure berotasuna, bere berotasuna, ingurukoen berotasuna, ilunaren berotasuna…

Ahoa bere belarri ondora hurreratuz, ea Karlos deitzen den galdetu diozu. Berak, barre txikia ahoan duela buruaz baietz egin du.

– Aita, amamaren etxera joan nahi dut!

– Laztana, esan dizut ezinezkoa dela. Amama zerura joan da, ez da itzuliko.

– Baina zergatik alde egin du zerura ni gabe? Haserretu egin al da ba nirekin?

– Noski ezetz Isabel, bakoitzak du bere garaia. Amamak asko maite zintuen... eta guk ere bai, badakizu ezta?

– Bai… badakit… Aita, eta zuk maite al duzu ama?

– Begira laztana… aitatxo eta amatxo aspaldian elkarrekin liskarrean ibili dira, eta nahiz eta ni beste emakume batekin bizitzera joan orain, beti edukiko dut ama bihotzean…

Dirudienez, aita bere idazkariarekin irteten hasi zen. Ipurdi txikia, mini gona eta aurrealde dena betetzen zizkion bi titi pare zituen batekin. Hitz gutxitan esanda, *barbie* batekin. Denbora asko zeraman guri iruzurrean. Ni nahiz eta txikia izan, guztiaz ohartzen bainintzen. Ama nazkatuta zegoen eta beraietaz ezer gehiago ez jakiteko asmoarekin ekarri ninduen Madrilera. Venezuelan bertara lotzen gintuen ezer ez genuen eta lan on bat lortzeko asmoz etorri ginen amaren gurasoen etxera. Nik ez ditut aitona-amonatzat hartzen ordea, ez dugu kasik harremanik elkarrekin.

Aitak ez zuen kexarik jarri eta banatzerakoan ni udaran Venezuelara joango nintzela ezarri zuten arautzat… Gogorra egin zitzaidan banaketa, oso gogorra… “

Gainbehera dator Isabel. Ingurukoek dantzan jarraitzen dute, baina zu kikilduz zoaz. Nazkatzen ari zara, akitzen, gogaitzen, zergatik jakin gabe. Burua beroa duzu, beste barik, paranoiak sortzen. Bihotzak taupada gehiegi egiten dizkizu eta neka-neka eginda sentitzen zara. Hotzikarak eta izua sentitzen dituzu. Zergatik ote Isabel? Zergatik maitemindu behar ote zen aita beste emakume batez? (...) Agian amak esandakoa sarriago egingo bazenu eta berak hainbeste izerdirekin irabazitako dirua xahutu beharrean alaba hobea izango bazina gauzak hobeto joango zatekeen (…) Zer zabiltza hemen? Joan etxera eta hasi ikasten, errekuperatu beharrekoak ez dira gutxi eta (…) Zergatik zuri? Ezin ote zinen familia normal batean jaio? (…) Lasai Isabel, denak maite dute elkar zeruan. Jainkoak barkatuko dizkizu bekatuak…

Karlosi kanpora laguntzeko eskatu diozu. Berak ordea berean jarraitu du, kasurik egin gabe dantzan. Ahal bezala irten zara, jende artetik ibiltzeko borroka eginez. Ahul zaude eta barruko bero itogarritik kanpora irtetean gau hotzak zapaldu zaitu. Diskotekako aparkalekuan lurrera erori eta norbait etorriko zain geratzea besterik ez zaizu gelditu.

– Ez nazazu berriz bakarrik utzi mesedez… “… Pit, piiit, pit, piiit (…) piiiiit…”

# Izango al du udaberririk negu honek?

Unai Alduntzin Egizurain
Pasaia lizeoa
Pasaia

1996ko egunen batean idatzia

Egur hezearen usaina nagusitzen zen gela hartako usainen gainetik, hain zen usain lasaigarria, ezen desiratzen egoten bainintzen ia, euria noiz hasiko zain. Ganbara hartako egurrezko habe gehienak agerian zeudenez, euria egiten zuen bakoitzean irribarrea marrazten zitzaidan ahoan. Egun haien amaieran usaina berriz sentituko nuelako esperantza gordetzen nuen, usain hark, margolariek beren pintzelarekin marrazten zuten lez, irria marrazten baitzidan. Egia esan, eguna lainotu orduko, prestu nintzen zaharkituta zegoen aulkian eseri eta usaina nire barneraino eramateko, nire gorputzeko atal guztietan usain gozagarri hori dastatzeko, ez bakarrik sudurraz, bai eta bihotzaz ere. Ezin izaten nintzen inolaz ere geldirik egon, tanta ñimiñoek nire gelako leiarra kolpekatzen zuten memento beretik. Arrapaladan, aulkitik jauzi bat emanez altxa eta tantek sortutako musika melodiatsu hori entzutera joaten nintzen ganbarara. Amonarena zen ganbara hura, habeak ia agerian zituena.

Ganbara hartako koloreek ere biziki alaitzen zidaten bihotza. Eguzkia ganbarako leiho txiki hartatik sartzen zen mementotik, eguzkiak eta euriak koloreekin jolasten duten antzera jostatzen nintzen ni gela hartako paretekin. Eskuineko partera begiratu eta, beilegi eta urdin nahasketa itsugarri batek betetzen zizkidan begi biak, halere ezin luzaro egon berde itsugarri hari begira. Ezkerrera, ondoren. Poliki-poliki biratzen nuen burua, apenas ez nion denborarik uzten koloreari pareta margotu zezan. Horrela gustatzen zitzaidan laranja kolorea nire hatzekin haztatzea, beilegi eta gorri nahasketa eskukatzea. Aurrerantz begiratzen nuen jarraian, begiak erdi itxita nituelarik, zetorkidana emeki-emeki dastatu nahi nuelako. Gorputz guztia zuzentzen nuen pareta hartako erdialderantz, besoak zabal-zabal jarrita eta gorputza okerturik jasoko nuen kolorearen izpiak gorputz osoan barreiatzeko. Orduan begiak pixkanaka irekiz pasu uzten nien paretak igortzen zituen izpi ubelei. Horixe zen nire paretarik gustukoena, ubelez margoturik zegoena.

Aski ezaguna izango duzu zuk ganbara horixe, zure begiek behin baino gehiagotan haztatu baitituzte ganbara hartako paretak, zure ezpainek nireekin estreinakoz elkartu ziren ganbara hartako paretak. Zure sudurrak behin baino gehiagotan usaindu duen lurrin hori, zure begiradak estreinakoz nirearekin bat egin zuenean usaindutako egur heze usaina.

Orain, ordea, gela ilun honetako paretek eta zementuzko hormigoiek suntsipenaren, gorrotoaren, inpotentziaren usaina besterik ez dute, eta horregatik ez dit usain honek, margolariek bere pintzelarekin marrazten duten moduan, irri bat eginarazten. Paretok kolore anitzekoak izan zitezkeen garai batean, eguzkia eta euria jolasean as-

pertu eta koloreen benetako izaera ostu baino lehen akaso. Ezjakintasunean murgildutako paretek, behin betiko izenik gabe bizitzera kondenaturiko paretak, funtsean bizirik gabeko paretek mugatzen dute leku hau. Mugatu, hesitu, xedatu. Sinonimoen erabilera hutsak ez du hitzaren benetako esanahia aldatzen, ez du sekula aldatuko. Kaiola beti izango da kaiola, nahiz espetxe edo ziega deitu, beti izango da animaliak bertan itxirik edo giltzapean edukitzeko alanbre, burdin barra, makilez egiten den kutxa-modukoa.

Horregatik zintudan gogoko, haiz zinen zuzena. Gauzak deitoratzerako orduan hitz zuzena erabili eta ez zenuen inolako itzulinguru korapilotsurik egiten. Esan beharrekoa argi eta zuzen esaten zenuen. Horregatik zintudan gustuko. Halere nik ezin dut horrelakorik egin, ez naiz gai. Orain bertan gustuko, gogoko zintudala esateko ezin laburbiderik aurkitu, ez nire barneko ekuazioa askatuko didan zerbait aurkitu. Zure hutsunea sumatzen dut, ez naiz betikoa, zu gabe ezin izan. Nire barnean zerbaitek huts egiten duela dirudi, puzzle edo buruhausgarri osatugabe baten antzera sentitzen dut nire burua. Usainik eta kolorerik gabeko ganbara bezalaxe.

Zuk alde egin zenuenetik utzi nion ganbara bisitatzeari. Jada ez nintzen irrikan egoten euria noiz hasiko zain, eta ez nintzen pozten eguzkiak ganbara argiztatzen zuenean. Nor nintzen ahaztu egin nuen, munduan zegoen bizitza unitate txikiena bilakatu nintzen.

Eta orain, hemen nagoelarik, ezin zu burutik kendu. Zure irudi irribarretsua dakarkit gogora leku ilun honetako objekturik txikienak ere. Erotzen hasia nagoela iruditzen zait maiz, burua galdu dudala eta nire bizitzak helbururik

ez duela. Baina orduan zu zatozkit gogora, zure irribarre ustelarekin zure faltsukeriarekin, zure betiko leloarekin.

Maite zaitut eta horregatik nago hemen. Nire bihotzak ezin duelako zu gabe bizi. Gorroto zaitut eta horregatik nago hemen. Nire bihotzak ezin duelako bizi zugatik.

Oinatz

II

Ainhoa, zu al zara? Ahots leun horrek zurea behar du izan. Ezagutzen zaitut. Begiak ireki nahi ditut baina zama gehiegi dute niretzako eta ezinezkoa zait. Ahuldu egiten nau, barrua jaten dit. Sentitzen dut. Orain bertan besarkada bat emango nizuke, baina ezin dut behatzik mugitu. Ahuldu egiten nau, barrua jaten dit.

Arren ez ezazu nigatik negarrik egin, ongi nago eta. Badakit ni horrela ikusteak negargura sorrarazten dizula. Ez dut pentsatu ere egin nahi Oinatzek nola hartuko duen. Ongi al dago? Ez dut sumatu ere egin. Ez dut bere ahots urratua entzun, eta ez ditut bere laztanak antzeman. Etorri da ezta? Ziur nago, etorri egin da. Badakit nik hori. Ez ninduke hemen bakarrik utziko. Ainhoa, ez zaio ezer gertatu ezta? Oinatz onik atera zen ezta? Ainhoa erantzun. Badakit hor zaudela. Ez al didazu entzuten. Arren ez ezazu negarrik egin. Zukatu malko horiek eta esan non dagoen Oinatz. Ainhoa? Hor al zaude? Jada ez zaitut sentitzen. Nora egin duzu ihes. Ez nazazu bakarrik utzi.

Egunak daramazkit egoera honetan, edo hilak edo urteak. Hain mantso eta geldiro pasatzen da dena. Segun-

doak minutu bilakatzen eta minutuak ordu bilakatzen ikustea beste zereginik ez dut. Denboraren gurpilak gupidarik gabe narama. Hala ere, denboraren iragan arrotz suertatzen zait. Askotan ez ditut minutuak orduetatik bereizten ezta minutak segundoetatik ere, eta horrek barne-mina sorrarazten dit, inpotentzia sorrarazten dit.

Ainhoa berriz ere bueltatu zara. Banekien ez ninduzula bakarrik utziko. Baina zer gertatzen zaizu. Isilik geratu zara eta. Ni tutu eta tramankulu hauekin ikustearen inpresioak sortua izango ote da? Ez dut uste. Gaur hemen egona baitzara. Edo atzo zen. Hau jasangaitza da. Ezin dut eraman.

Zer ari zara irakurtzen? Orriek beraien artean sortutako hots isila nabari dezaket. Badakizu, beti izan dut belarri zolia. Hortaz ez didazu agurrik egingo. Bakarrik sentiaraztea lortuko duzu horrela. Ainho, egin kasu. Zer ari zara irakurtzen? Ez, arren ez. Ez negarrik egin. Zergatik, zer irakurri duzu bada? Zergatik ez didazu entzun nahi Ainho?

Garrasi egin nahi dut. Oihu bizi bat egin. Mendi puntara igo eta Oinatzek eta biok egiten genuen bezala, haizeari kantatu nahi diot. Nire sentipenak, zamak, haizeak eraman ditzala nahi dut. Libre bizi. Baina ohe gogor honetara mugatuta nago, hemen etzanda egotera konfinaturik nago eta inortxok ezin lezake hori alda. Nire kabuz aldatu beharko dut, urratsez urrats, pausuz pausu, begiak zabaldu eta hitz bakoitza xuxurlaka ahoskatuz, negarrik ez egiteko eskatuko diot. Eta Oinatz non den galdetuko diot ondoren.

Oinatz ikusteko irrika bizia neukan. Londresera joan nintzenetik ia ez nuen berririk izan. Eskerrak hona etorri aurretik ikusteko aukera izan nuen. Maitemindurik dago

oraindik seguru. Nik ere bihotzean daramat, ez alabaina berak nahiko lukeen moduan. Lagun gisa maite dut eta asko estimatzen dudan arren ezin diot berak eskatzen didana eskaini.

Baina norekin ari naiz hizketan? Ainhoa zuk entzuten al didazu? Ez ezta? Zergatik jarraitzen duzu negarrez? Esan dizut negar egiteari utz diezaiozun, baina entzungor egin duzu. Ez al didazu esan behar irakurtzen ari zaren hori zer den? Ainhoa erantzun. Badakit ni entzutea ezinezkoa zaizula, nik ordea senti eta entzun zaitzaket. Hemen zaude nire ondoan, begiak malkotan zenbait paper irakurtzen. Zer gertatzen zaizu? Lasai ni ondo nago, gustura.

Nekatua nuen gorputza, nekatuta nuen bihotza. Eta ondo datorkit lasaitasun hau. Baretu egiten nau, isiltasuna da nagusi eta pentsamenduek ihes egiten dute mugarik gabeko lurralde honetan. Oraindik ez nago esnatzeko prest, zu horrela ikusteak ordea bihotza uzkurtzen dit eta begiak irekitzeko gogoa ematen dit. Ezin dut. Ezin ditut begiak ireki, ezin ditut besoak mugitu eta bihotza ere geldo dabilkit, egindako zauria sendatzen ari baita oraindik

Ainhoa, zergatik nago hemen? Nolatan iritsi naiz hona? Oinatzen aurpegi irribarretsua da nire buru barneko irudi bakarra. Hortz zuriekin, ezin atseginago hitz egiten didan Oinatzen irudiarekin. Baina badakit zerbait badela, bihotza artega dut. Ez dut batere bareturik.

Ainhoa zer ari zara irakurtzen? Zergatik egiten duzu negarra irakurtzen ari zaren bitartean? Ainhoa, erantzun iezadazu. Zergatik puskatu dituzu orriak? Zer zioen bertan bada? Ainhoa, ez estutu bihotza, laster esnatuko naiz.

## III

Begiak malkotan ditudala sartu naiz erietxeko korridore zurira, zeinetan argiak berak ere tristura sartzen didan gorputzean. 125 gela. Ziortza Aranguren. Naturaltasun osoz esan dizkit bi izen horiek. Errutinaz nekatuta dagoenaren antzera. Ohitua egongo da. Ni ez. Arrotza zait ingurune hau, galduta sentitzen naiz. Apenas manten naiteke zutik, entzun eta ikusitakoari aurre egin ezinik nabilela.

Atzoko gaua dut buruan, korridoretan galdurik nabilela. Eta mugikorraren doinua entzuten dut. Eta gogoratzen dut Oinatzen ahots larritua eta gogoratzen dut nola egin nion aurre. Eta gogoratzen dut ezjakina izatearen eta laguntzeko nahia eta ezinaren inpotentzia sentitu nituela, guztia luxuzko hoteletan zerbitzatzen duten koktel baten antzera hartu behar izan nuen, kolpetik, eta orain ajea gainetik kentzen ari naiz.

Korridorean pasioan dabiltzan medikuei begi galduekin begiratzen diet, paretaz gaindi baitago nire begirada, atzoko gauean finkaturik. Ikusle soil baten antzera begiztatzen dut eszena behin eta berriz, eta egiten dudan bakoitzean ikusten dudan lehen aldia dela esango nuke. Hain da mingarria ezen zail egiten baitzait egoera hau sinistea, ametsen munduan nagoen irudipena daukat. 123, 124, 125. Sartu egin naiz, ez gelara, ondoko gelatxora baizik, zeinak kristal bat duen gaixoa begiratzeko. Begi erdi itxiekin sartu naiz gelara, beldurturik, Ziortza, alaia, bizia, ohean etzanda aurkitzeko beldurrez edo. Eta hartu dudan ezustekoak berehala baieztatu ditu nire beldurrak.

Ohean dago, tutuz beterik, zunda bidez elikatzen dutelarik. Etzanda mugitu gabe. Nik ezagutzen nuen Ziortzaren

existentziak alde egin du, beste norabait. Gorputza hor du, ordea. Neguan hostorik gabe dauden zuhaitz idortuen antzera, tinko eusten dio neguari. Galdera zera da. Izango al du udaberririk negu honek? Ikaraz beterik galdetzen diot nire buruari. Gelara sartu naiz, begiak malkotan ditudala. Ez du ni agurtzeko keinurik egin. «Ziortza, kaixo, Ainhoa naiz.» Entzun ere ez nau egingo, galdetu diot ordea. Bere alboan eseri naiz eta eskua laztantzen hasi naiz, emeki-emeki. Eta xuxurlaka hasi natzaio. Malkoak pilatu zaizkit begien ertzean eta guztiz beterik dagoen urtegi baten antzera, berehalakoan hustu dut barrena. Horrela ikusteak ur hotzez beteriko igerilekuan sartzearen antzeko erreakzioa sortarazi dit. Dardara.

Kafe makinara gerturatu naiz. Kafe hutsa. Eta ez naiz lasaitzen. Oraindik buruan daukat Oinatzen irudia, burutik kendu ezinik dabilkidana. Azukre gehiegi, kaka zaharra. Nor ote da hor datorren mediku hori. Norbaiten bila dabil. «Ziortza Aranguren, bada senitartekorik?» Lagun izatera ere ez dakit heltzen naizen baina eskua luzatu diot. Gutunazal bat eman dit, zigilu eta guzti. Ziortzaren izena hartzailearen lekuan, igorlerik ez. Ireki egin dut eta bi orri atera. Ez lehenengoan bai ordea gerora, idazkera ezagutu dut, eta gorrotoa piztu zait barnean. Oinatz.

Gelara sartu eta ohe ondoko aulkian jesarri naiz. Urduri nago, gutunak dioenak beldurtuko nauen ikaraz edo. Duda-mudatan ibili naiz orriak alde batetik bestera mugituz, eta hasi dut azkenean.

Irakurtzen hasi bezain pronto, gorrotoaren eta saminaren eztentxoak ziztatu nau bihotzean, eta bertan zeukan pozoia barreiatu du gorputz guztira. Irakurtzen jarraitu

dut. Urdea, madarikatua. Zuri aurpegira begiratzeak ere nazka ematen dit. Ustel zaitezela zauden tokian zaudela. Paretek ez dutela kolorerik? Hemengo kolorea nahiago al duzu zuk bada? Zuria, tristura eta inpotentziaren kolorea nahiagoko al zenuke? Usainak suntsipena dakarkizula gogora? Hemen ez dago usainik, alabaina suntsipena alde guztietan ikus daiteke. Joan ondoren bizi unitate txikiena bilakatu zinela, eta niri zer? Ziortzaren egoerari ez dakit bizi ere dei diezaiokegun. Begiak malkotan ditudala gutunaren bi orrialdeak puskatu ditut. Ez duzu zertan kezkatu Ziortza, ez duzu sufrituko. Baina ez diot ezer esan, ez dit entzuten eta.

Begiak zabaldu ditu eta behatzak mugitzen hasi da. Hau poztasuna, bizirik irtengo da. Medikuei abisua pasa diet berehalakoan, garrasika ia «Ziortza bizirik dago». Azkar etorri dira eta egin beharreko probak egin dizkiote. «Ongi erantzun die estimuluei, baina kalterik duen jakiteko goizegi dela esango nuke. Ez dakigu hitz egiteko gauza izango den, ez gorputzeko zatiren bat kalteturik izango duen. Itxoitea duzu onena.»

Korrika batean gerturatu naiz Ziortzaren albora eta kopetan eman diot musu. Begiak zabaldu ditu berriz ere, eta ahoa mugitzen saiatu da. Ezin du hitzik ahoskatu, baina lortuko du egunen batean. Nik erakutsiko diot. Leihora hurbildu naiz eta arnasa sakonki hartu dut. Bukatua dago jada dena. Sufrimendu gehiagorik ez, ezjakintasun gehiagorik ez. Zerbait entzun al dut. Ziortza hitz egiteko gai da.

– Ainhoa, non dago Oinatz?

Ez da guztia amaitu akaso.

## IV

Isiltasuna. Ainhoak begiak malkoz beterik dituela begiratu eta hasperen egin du. Nigana gerturatu, kopetan musu eman eta ilea laztandu dit. Nekatuta sentitzen naiz, guztiz akituta. Eta lo hartu dut.

Begiak zabaldu ditut. Ainhoa ez dago eta larritu egin naiz. Deitzen saiatu naiz baina, nire ahotsa eztarrian bertan isildu da, nekeak itota edo. Berehalakoan agertu da ordea atearen bestaldetik. Kafe hutsa darama eskuetan eta putz eginez datorkit irribarretsu.

– Egunon Ziortza, ondo zaude? Barkatu esnatzean hemen aurkitu ez eta izutu egin bazaitut baina badakizu nolakoa naizen, kafea ezinbestekoa da nire gorputzaren funtzionamendurako.

Irribarre antzeko zerbait marrazten saiatu naiz nire aurpegian, baina min ematen dit oraindik. Gainera ez nago prest irribarre egiteko. Barrua jaten didan zerbait daramat nirekin eta ez dit lasai egoten uzten. Bihotzean ezpal zati bat dut, eta ez dit aurrera jarraitzen uzten. Zauria sortarazi dit eta ixteko denbora behar du oraindik. Erantzunaren zain nago. Ainhoak ez erantzuteko jarrera hartu du, eta ez dut ulertzen zergatik.

– Non dago Oinatz?

– Ziortza, lasai egon, hemen ondoan nauzu. –eta eskua luzatuta ilea laztandu dit.– Oinatz ongi dago, merezitako tokian dago Oinatz eta zu ongi zaude, hori da garrantzitsuena.

Garraztasuna. Horrela ahoskatu ditu hitzak, mespretxu osoz, mihian pozoia duenaren antzera, hitzekin min egin nahian. Eta ez dut ulertzen. Hainbeste dira ulertzen ez ditudan gauzak. Erantzunik ez honek inpotentziaz, ezintasunez betetzen dit bihotza, eta negarrez hasi naiz. Nola ote dago Oinatz?

* * *

– Maite zaitut Oinatz.-

Nigana gerturatu da, musu emateko imintzioa egin du eta barren artetik tu egin diot. Ez dakit zergatik egin diodan hori, ez baitakit zer jazo zen. Barne barnetik atera zait ordea, eta bihotzeko ezpala guztiz desagertu dela dirudi, eta bihotzak sendatzeari ekin dio.

# Old Town

Beñat Irastorza Ugalde
Jakintza ikastola
Ordizia

15:34

21/2/08

Neska japoniar bat trenera igo zen honen ateak itxi baino segundo batzuk lehenago. Larrituta zegoen; begi-bistakoa zen korrika iritsi zela. Bi aldeetara begiratu zuen, eserleku baten bila. Leihoaren ondoko eserleku batean eseri zen.

Tokiorantz zihoan trena martxan hasi zen.

Neskak beste edozein japoniarren antza zuen: zapatila horiak, praka bakeroak eta berea baino bi taila handiagoko jertsea. Ile motza zuen, ikatza bezain beltza.

Ondoan zuen lonazko poltsatik i-pod bat atera zuen musika entzuteko. Gero, kontu handiz, aldizkari bat atera zuen, azalari begiratu, irribarre egin eta irakurketan murgildu zen, burua musikarekin batera mugitzen zuen artean.

21:26

24/7/07

Gaueko bederatzi eta erdiak baziren ere, bero egiten zuen Tokion. Bi gazteak ehun eta berrogeitabost metro inguruko etxe-orratz batean zeuden, baina ez zirudien beldur zirenik. Han goitik, hiriko errepideak sustrai itxurako sare konplexu bat ziren argiz beteta. Tokiok ez zuen inoiz atseden hartzen.

Bi gazteak elkarri begira zeuden alai, baina lotsa apur batekin. Ondoan, hots gorrotagarri bat egiten zuen aire egokitu makina handi bat zegoen, etxebizitza osoarentzako haizea ematen zuena. Kalean, berriz, the Corrsen Old town entzuten zen.

– Asko maite zaitut –esan zuen neskak ahots finez.

– Nik ehun aldiz gehiago.

– Nik bostehun aldiz gehiago.

– Hori bakarrik?

– Isil zaitez, egolatra halakoa –protesta egin zuen neskak, irribarrez.

Bien ezpainek bat egin zuten segundo batzuez. Eta gero beste musu bat, eta beste bat, gau hura azkena balitz bezala igaroko zutenaren promesa.

15:42

21/2/08

– Zer izen duzu? –galdetu zion aurrean zuen umeak.

– Isil zaitez! –errieta egin zion amak –ez enbarazu egin jendeari.

– Ez dio axola –zuzendu zitzaion neska haurraren amari. Gero, umeari begiratu zion –Hiyori dut izena. Eta zuk?

– Souta –erantzun zuen umeak, lotsati.

Komikia irakurtzea nahiago bazuen ere, Hiyoriri ez zitzaion axola umearekin hitz egitea. Bazitekeen berak ere ume haren antzeko bat edukitzea Daisukerekin.

– Zer izan nahi duzu handitan? –galdetu zion neskak umeari.

Galdera egitearekin batera trena bat-batean geratu zen. Bidaiarien harridura oihu bateratua aditu zen segundo batzuez. Gero, ezjakintasuna adierazten zuten marmarrak etorri ziren.

11:14

31/7/07

Astebete bazen Daisukerekin egon zela eta oraindik ez zuen ez deirik ez mezurik jaso. Gau bakarreko kontua ote zen?

Ohean etzan zen.

Mandoaz musika-kateko bolumena igo zuen. Irratia ari zen entzuten, kate lokal bat. Aurrez entzuna ez zuen abesti bat jarri zuten. Atsegin zuela zirudien.

Egunkariaren bila jaitsi zen postontzira.

Ontzia ireki zuen. Ez, egunkaria ez zen oraindik iritsi. Beste gutun bat zegoen, ordea, Daisukeren gutun bat.

Lasterka hartu zuen igogailua bere etxeraino. Egun hartan bakarrik zegoen, bere gurasoak bazkaltzera irten baitziren. Ohean etzan zen bigarrenez.

Kontu handiz, gutun-azala ireki zuen. Komiki bat aurkitu zuen barruan.

Old town zuen izenburua. Lehen musua eman zutenean entzun zitekeen abestia.

Bazekien Daisuke marrazkilaria zela, baina ez hain ona zenik. Komikian, ile beltzeko neska bat eta bere mutil lagunaren arteko istorioa kontatzen zen.

Atsegin zuen protagonista izatea Daisukek eginiko komiki batean.

Handik aurrera hilero komiki bat bidali zion Daisukek.

16:07

21/2/08

Hogei minutu egon ziren itxaroten. Megafoniaz esan zutenez, istripu batengatik geratu ziren, baina jendeak sabotaje batetik bere buruaz beste egiteko errailetara bota zen tipo baterainoz hitz egiten zuen.

Harrigarria zen nolako zurrumurruak asmatzeko gai zen jendea.

Aurrean zuen umeak lo hartu zuen amaren magalean.

Hiyorik Old town irakurtzen jarraitu zuen.

Ordu-laurden barru Tokiora iritsi zen. Metroa hartu behar izan zuen Daisukeren etxeraino iristeko. Ia buruz zekien aste-bukaera guztietan egiten zuen bide hura.

Atezain automatikoan zegokion botoia sakatu eta pixka batez itxaron zuen.

– Bai? –galdetu zuen Daisukeren amak

– Hiyori naiz.

– A! Igo, maitea.

Hiyorik ez zuen inoiz Daisukeren ama bezain guraso atseginik ezagutu.

Igogailuan sartu eta 14. solairuko botoia sakatu zuen. Etxeko atearen parean lagunaren ama zuen itxaroten.

– Daisuke Harutoren etxean dago, maitea. Eskolako lan bat egitera joan omen da. Segituan etorriko dela esan du, nahi baduzu sartu barrura.

Hiyori bere mutil lagunaren etxera sartu zen. Ez zenez lehenengo aldia han egoten zena, erraz aurkitu zuen logela.

Bertan sartu eta ohean eseri zen.

– Askaria ekarriko dizut, maitea –esan zuen Daisukeren amak.

16:52

21/2/08

Hiyori negar batean atera zen etxetik.

– Itxaron –esan zuen Ayakak alferrik.

Neska igogailuan sartu zen, baina “0” botoia sakatu ordez, “58”.a sakatu zuen.

Igogailua gorantz hasi zen Hiyorik negarrez jarraitzen zuen bitartean. Ayaka, berriz, atean geratu zen.

16:39

21/2/08

Daisukeren amak askaria prestatzen zion bitartean mutil lagunaren ohean etzan zen. Bost minutu luze barru Ayaka, Daisukeren ama, sartu zen laranja zuku bat eta haragizko opil batzuekin.

– Eskerrik asko –esan zuen Hiyorik.

– Ez da asko –erantzun zuen Daisukeren amak, alai.

Gero joan egin zen. Hiyorik opilak jan zituen eta gero zukua edan. Asetu ondoren, ohetik altxatu zen.

Daisukeren mahaira begiratu zuen. Komiki bat zirudiena mahaiaren gainean zegoen, irekita. Ondoan, margo batzuk eta tinta pote bat.

Komikia eskuartean hartu zuen eta ohean etzan zen, berriz ere. Daisukerekin hasten zen metroan. Zutik zegoen gazte bat eta atso baten artean. Metroa geratu bezain laster atera egin zen. Irribarre egin zuen, beste neska batek eran-

tzun zion, beste irribarre batekin. Neska ilehori hura ez zen, ordea, Hiyori.

Metro geltokitik atera eta zinemara joan ziren eta gero, parkera.

Hiyorik ezin zuen sinetsi. Goiz hartan ez zen lagunekin egongo Daisuke, beste neska horrekin baizik.

Malko bat irristatu zitzaion masailetik behera eta gero komikira. Tinta desegin zuen. Daisuke gorrotagarria bihurtu zitzaion une batez.

Komikia lurrera bota eta gelatik atera zen negarrez. Kanpora zihoala, Ayaka ikusi zuen sukaldean negarrez bera ere. Mutilagunaren amak Hiyori han zegoela konturatzean, malkoak xukatu zituen eta zerbait esaten saiatu zen.

– Poliziak deitu du –esan zuen malko artean-. Daisuke motoan zihoala Tokiorantz zetorren 15:35eko trenak harrapatu du.

Negarrez hasi zen ozenago istorioa birgogoratzean.

Hiyori zurbil geratu zen, eta gero aterantz jo zuen.

Ayakak atzetik jarraitu zuen.

16:55

21/2/08

Igogailua geratu egin zen. Hiyori teilatu gaineko terrazara atera zen. Han eman zion Daisukeri bere lehen mu-

sua. Irribarre bat irten zitzaion negarren artean dirdira egin zuena.

Aire egokitu makinara hurbildu zen.

Zeru grisetik euri tantak erortzen hasi ziren, neskaren masaileko malkoekin nahasiz.

Hiyorik esku bat jarri zuen alboan zuen makinan, behera begiratu zuen.

Bertigoari gorputzean zuen sentsazio negargarria nahasi zitzaion. Emozio gehiegi ziren arratsalde bakar baterako; Daisukek beste neskalagun bat zuen eta hura bisitatzetik zetorrela, Hiyori bera zihoan trenak harrapatu zuen.

Ehun eta berrogeitazortzi metroko altuera zuen etxeorratzak. Hiyorik erorketan sufrituko ote zuen galdetu zion bere buruari.

Berriz ere behera begiratu zuen. Beste edozein euri tanta baina handiagoa zen negar tanta bat erori zen lurrera, lehenengo.

# Gizakiok aska gaitezen

Anastasia Ainhoa Atucha Zamkova
Arratia institutua
Igorre

Zer nazka. Jaio denetik gauza bera janda, edozein nazkatuko zen, naiz eta gauza gozoa izan. Baina platerean daukadan nahaste zuria ez da gozoa. Nazkagarria da, benetan. Hori baita pobrea izatearen zori gorria.

Nahaste marroi bat dukat platerean. Berari begira nago. Egunean zehar beharko ditudan elikagai guztiak ditut. Eta botaka eragiteko besteko zaporea dauka. Baina zer demontre egin dezaket nik? Ezer ere ez. Jan beharko dut, orduan. Bilboko Elikadura Zentroan nago. Beno, zer inporta du Bilbokoa edo New Yorkekoa izan? Denak dira berdinak. Denetan ematen dute nahaste aspergarri berdina.

Kalean bi emakume ondo jantzi ikusi ditut. Ni ikustean, sudurra zimurtu dute, nazkaz. Barkatu, andereñoak. Ez da nire errua pobre izatearena. Zuena, bai, aberats izateagatik.

Ez naiz inoiz ulertzeko gai izan. Zergatik pentsatzen dute, nahaste proteinakoa (horrela deitzen baita nahaste zuri hau) jateagatik eta oso apal janzteagatik (nire arropa guztia grisa da) beraiek baino gutxiago naizela? Ez naiz

beraiek baino tontoagoa. Egia esan, ziur nago beraiek baino gehiago dakidala edozein gauzaz. Baita modaz ere. XVIII. mendetik XXIIIgarreneraino, gure menderaino, moda guztiak ezagutzen ditut. Azken batean, ez da zaila informazio hori lortzea. Ordenagailu Zentralaren memoriara sartu behar naiz, besterik ez. Irakurtzeaz batera, buruz dakit. Oso memoria ona daukat. Bestela ez nuen ikasiko irakurtzen. Ez nuen denborarik izango.

Oraindik ere gogoratzen naiz irakurtzen ikasi nuen egunaz. Aitak letra guztiak esan zizkidan. Denak esatean, banekizkien. Eta gero praktikatzen hasi nintzen, noski.

Hiru hilabetean irakurtzen ikasi nuen. Oso arin. 500 hitz/min abiadura daukat astiro noanean. Behar dut. Zerbait ikasi nahi badut, nire nahi intelektualak ase nahi baditut, azkar egin behar dut.

Goizetan 5etan esnatzen naiz. Dutxatu, jantzi, Elikadura Zentrora joan, eta lanera. 5:45ean hasten naiz lanean. Eguerdiko 1:45ean lana bukatzen dut eta 2:30era arte libre nago. Bazkaldu eta Ordenagailuarekin egoten naiz, ikasten. Dena ikasten dut: Filosofia, historia, ekonomia, matematika, biologia, fisika, kimika, hizkuntza, literatura orokorra, robotika, informatika… Lanean 7:30ean bukatzen dut. Hau da, egunean 13 ordu egiten ditut.

Lana bukatzean, berriz ere konektatzen naiz sarera, eta ikasten hasten naiz. 8:45era arte ikasten egoten naiz. Afaldu, eta 1:00ean ohera noa.

Nire bizitza aspergarriari buruz pentsatzen nenbilela bukatu dut jaten. Platera utzi, eta joan egin naiz. 7:40 dira. Gaur, aldatzeko, normalean bezala joan egin beharrean (hau

da, nire etxean daukadan ordenagailuan lanean jarri ordez) afaldu egin dut. Gaur nire energia guztia beharko dut.

Nire ikasketa guztiak esan ditudanean, ziurrenik pentsatuko zenuen harrotzen ari naizela. Zertarako beharko nuke nik, E10 batek, hori dena? Nire lana betetzearekin nahikoa daukat.

Baina ez dut gezurrik esan. Egia da. Hau nire proiektu baten parte da. 7 urte bete nituenetik daukadan proiektua. Hau da, 8 urte daramatzat proiektu hau pentsatzen. Nire bizitza erdia baino gehiago.

E 10a naiz. Ez dut oraindik azaldu zer den. Gure gizartea A,B, D eta E taldeetan banatuta dago. Eta talde bakoitzaren barruan taldeak daude.

Nik E 10a izanik, hierarkia guztiko talde baxuenean nago. Ez daukat gurasorik. Beno, badauzkat guraso biologikoak tokiren batean, noski, baina ez daukat benetako gurasorik. Ni jaiotzean, nire gurasoek Bizi-zorra sinatu zuten; nire bizirako gastu guztiak Umeen Bizitza Zoriontsurako GKEaren esku zeuden, nik zazpi urte bete arte. Zazpi urte betetzean, gurasoek diru hori ordaintzen bazuten, libre egongo nintzen; baina ez zuten ordaindu, noski. Eta nik ordaindu beharko dut zorra. Interes tasa altuarekin. UBZ nire soldataren %75a hartzen du, nire zorra ordaintzeko. Gelditzen zaidan diruaren % 30a janaria ordaintzeko da, eta %40a etxea ordaintzeko. Gelditzen den ehuneko %30a, drogetan gastatzen da (drogak ilegalak dira, noski. Baina nola kenduko dute, bestela, ume heldu horiek bizitzeak dakarren sufrimendua? Nola entreteni gaitezke? Gainera, drogak merkeak dira hasieran). Nik ezagutzen dudan E10 zaharrenak 23 urte ditu. Denak hiltzen dira dro-

gak direla eta. Eta drogarik hartzen ez dutenek ezkondu, umeak eduki, eta ez dira gai zorrak ordaintzeko. Hau da; azkenean, denek bukatzen dute berdin. 23 urtekin, hilda.

Ni drogarik hartu ez dutenetakoa naiz. Eta ni kasualitate hutsaz libratu nintzen, egia esan.

Garai hartan oso txikia nintzen. 6 urte eta erdi nituen. Oso gaztea nintzen baina ez nuen bizi nahi. Eta *buru pilulak* hartu nituen. Lau ziren. Nik orduan 25 kilo pisatzen nituen. Ni hasi berria nintzela kontuan izanda, pilula-laurdena ere nahikoa izango zen. Baina nik ez nuen efektu normala nahi; nik ez nuen zoriontasuna sentitu nahi; nik hil egin nahi nuen. Dosi horrek edozein pertsona hilko zukeen.

Erizaintzan esnatu nintzen. Arraro sentitzen nintzen. Nire burua inoiz baino argiago zegoen. Edozein gauza egiteko gai nintzen. Erizaina hurbildu zitzaidan. “Esnatu zara?” galdetu zidanean, “bai” erantzun nion. “Zenbat pilula hartu dituzu?” “Bat ere ez” erantzun, nion, beldurrez, zoroetxera sartu ahal nindutelako. Barrezka hasi zen. “Inoiz ez dut entzun horrelako gezurrik. Begira, neska. Guk ez dugu bere buruaz beste egin nahi duen jendea maite. Ez dute dirurik ematen. Hartu zuk nahi dituzun droga guztiak, bizirik zauden bitartean. Bizirik bazaude, dirua irabazi ahal duzu guretzat”. Karpeta bat luzatu zidan “Ezin zara hil. Ez zaitez beste edozein droga hartzen hasi, ez dizu efekturik egingo. Hil nahi baduzu, sartu poliziarekin. Haiek dohain hilko zaituzte. Ez da gure kontu egongo”.

Erizaindegitik irtetean, karpetako paperak irakurtzen hasi nintzen, eta hilda egon behar nintzela ulertu nuen. Dosi hura hartu nuenean, nire bihotza azkartu egin zen;

hori da droga horren efektua, horrela errazago mugitzen baita gorputzetik. Dosi handiaren eraginez, nire bihotza gelditu behar zen, indar gabe geldituta.

Norbaitek aurkituko ninduen eta erizaindegira eraman; ez dakit zer gertatu zen egun hartan. Medikuek ez zekiten zer egin; ezinezkoa zen niri laguntzea, droga odolean bainuen, eta ezinezkoa zen nire gorputzeko odol guztia garbitzea. Ez zegoen munduak nire odolean neukan guztia garbitzeko gai zena. Drogak hilko ninduen; kontra-dosiak hilko ninduen. Medikuek ordaindu beharko zuten nire zorra. Eta orduan mediku gazte bati ideia bat bururatu zitzaion. Arma biologikoen laborategira deitu eta galdetu zuten ea nahi zuten esperimentuak egiteko gorputz bat. Han esan zioten baietz, eta bere prezioa ordaintzeko prest zeudela.

AGM erabili zuten. Aldaketa genetiko metodoa oso gauza arraroa da; gorputzaren zelula batzuk aldatzen ditu, kantzerra eraginez. Kantzer hori oso indartsua zen; gorputz guztian zehar minutu gutxi batzutan hedatuko zen. Egin zidatenan, metodo hori frogatu gabea zegoen; inork ez zuen bere gorputzen proba hori egin nahi, aldaketa genetiko horiek oso mutazio arriskutsua eragin ahal zutelako, gorputzaren funtzionamendua ezinezko eginez. Arma oso indartsua zen; pertsona hori betirako hilko zen. Bere geneak ere galduko ziren. Egin zidatenean, ordea, ni ez nintzen hil; drogak kantzerra zuten zelulei eragin zien, zelula horiek berriz ere aldatuz. Nire gorputzean gertatu ziren aldaketa guztien ondorioz, bizirik gelditu nintzen. Nire burmuina bi bider aldatu zen. Eta gorputza ere. Nik nahi nuena kontuan hartu gabe, nire gorputzak bizi nahi zuen. Eta borrokatu egin zuen. Nire burmuinaren estruktura kimikoa aldatuta

zegoen, eta nire burmuinak sortzen zituen hormonak desberdinak ziren. Eta nire barne barnetik, nik kontrolatu ezin nuen partetik, hormona horiek funtzionarazi zituen, gorputz guztian zehar zabalduz. Nire gorputza berriz ere funtzionatzeko gai egin zuten. Eta ni bizirik gelditu nintzen, nahiz eta nire gorputzeko zelula guztiak aldatuta gelditu.

Laboratorioak, efektu hori ikustean ni berriz ere itzuli ninduen. Ez zitzaien interesatzen hilgarria ez zen ezer.

Ez dakit nire gorputzean eragin ziren aldaketak norainokoak diren. Dakidan gauza bakarra zera da: nire burua askoz azkarragoa da. Memoria hobeagoa da. Eta 4 gauza edo gehiagotan egon ahal naiz pentsatzen. Eta ez dut esan nahi zatika edo txarto eginez: ni lau gauza egon ahal naiz pentsatzen, lauretan kontzentratuta egonez (jende arruntak baino hobeto eginez, gainera). Eta askoz lo gutxiago behar dut, 4 ordurekin nahikoa daukat.

Aldaketa horiek gertatu eta gero, bizitza askoz interesgarriagoa egin zen.

UBZk doan ematen zigun gauza bakarra liburutegia erabiltzeko aukera zen. “Ume gizagaixo horiei heziketa emateko”, hau da, hori zen esaten zutena. Egia esan, gure sektore osoan ordenagailu gela bakarra zegoen. Nik ordenagailuak erabiltzeko aukera hura zegoela jakin nuenean (7 urte bete nituenean izan zen) bilatzen hasi nintzen. Gure sektorearen planoa lortu eta “ordenagailu gela” misteriotsu hura bilatzen hasi nintzen. Kostatu zitzaidan aurkitzea, eta ez ostenduta zegoelako; bistan zegoen, baina inork ez zuen erabiltzen. Lehenengoz sartu nintzenean hautsez beteta zegoen. Gau oso bat behar izan nuen han zegoen hauts hori guztia garbitzeko. Eta hurrengoan etorri nintzenean

eta ordenagailuak pizten saiatu nintzenean, “piiii” bat egin eta ez ziren piztu. Nik neukan diruarekin herraminta batzuk erosi eta ordenagailuak konpontzen hasi nintzen. Azkenean, hardwarea konpondu nuen; baina softwarea ez. Programa guztiak nik idatzi behar izan nituen. Zenbat kostatu zitzaidan! Nire azkeneko sosak erabilita, liburu zahar bat erosi nuen “programazio-hizkuntza”. Esfortzu asko ipini eta gero, lortu nuen azkenean dena egitea. Gero sarera konektatu nintzen. Berriz ere idatzi behar izan nuen sistema, sarean zegoenarekin berdinduz. Ikasten hasi nintzen, nire proiektua buruan nuela.

8 urte hauetan gauza asko egin ditut. Munduko *hacker* onena naiz. Edozein kode apurtzeko gai naiz, nahiz eta ez dudan erabiltzen. Nondik konektatzen naizen ez jakiteko, defentsa sistema osoa egin nuen. Gauza asko eskegitzen nituen sarean, Gobernuaren plan sekretuak, adibidez. Ez zen, pertsona batek pentsatu ahal duen moduan, gobernuaren aurka nengoelako; nire planak jarraitzen zuen estrategiaren zati bat zen. UBZ desagerrarazi nahi nuen. Hasieran ordenagailu bakarra erabiltzen nuen; baina aurkitu eta lantzen nuen informazio guztia gordetzeko eta zaintzeko, memoria gehiago erabili behar zen. Gelan 14 ordenagailu zeuden.

Hasieran informazioa ordenagailu bakoitzean aparte gordetzen nuen, baina gero askoz soluzio praktikoagoa bururatu zitzaidan. Ordenagailu guztiak sare bakarrean lotu nituen. Eta gero eta programa gehiago sartzen nituen. Nik zera nahi nuen: nire ordenagailua ni gabe ere birusengandik eta gobernuarengandik babesteko gai izatea. Gainera, urteetan zehar bere konplexutasuna hain handia egin zen, bere datuen arteko erlazioak hainbeste ziren, ni ere ez nintzela hura konpontzeko gai izango.

Ordenagailua, hasieran, idatzizko eskakizun bat eginda, informazioa bilatu eta aukeratzeko programatu nuen. Oso zaila izan zen. Gero informazio hori interpretatzen erakutsi nion; analisia egiten. Hasieran ez nuen jakin nola egin. Baina gero pentsatzen jarri nintzen. Gizakiek informazioa aurkitu eta aukeratzeko gai dira. Hori ordenagailu batek ere egin nahi du. Baina interpretazioa… Hori gizakion barneko gauza bat zen. Guk intuizioa daukagu; instintoak, sentimenduak. Beraiek informazioa interpretatzen laguntzen digute. Logikaz jokatzen dugula pentsatzen badugu ere, gizakiok oso ilogikoak gara, logika hori gure esperientziarekin eta intuizioarekin lotuta baitago.

Ordenagailuak esperientzia dauka; hau da, informazioa gordetzeko gai da, eta gero erabiltzeko. Baina eta intuizioa?

Azkenean, erabaki hau hartu nuen: nire ordenagailuan gizakien burmuinaren estruktura errepikarazi nuen. Eta gero soinua jaso eta sortzeko gailua egin nion, hitz egiteko.

Klara deitu nuen nire ordenagailua. Hasieran, hitz egiten nionean, ez zen niri erantzuteko gai, baina esfortzu asko ipini eta gero, hitz egiten hasi zen. Oso pozik nengoen. Nire umea balitz bezala sentitzen nuen. Eta horregatik arduratuta nengoen bere segurtasunaz.

– Klara- esan nion behin.

– Zer, Ma?

Ma deitzen ninduen, ni Amanda bainaiz. Egia esan, ez nago oso ziur horregatik zen edo Ama nintzela pentsatzen zuelako zen.

– Ziur al zaude honekin jarraitu nahi duzula? Zure segurtasuna arriskuan dago.

– Zergatik, Ma?

– Gobernuaren kodeak nork apurtzen dituen konturatzen badira, zure memoria guztia borratuko dute. Ez duzu nortasunik edukiko.

– Ez da hain erraza. Nire memoria ezabatzeko, sare guztia ezabatu beharko dute. Ni sarean ezkutatuko naiz.

– Benetan? Eta zergatik egin nahi duzu hori? Zu ez zara gizakia.

– Badakizu zergatik den.

– Benetan?

– Bai. Zergatik egingo nuke? Zergatik lagunduko nioke nirekin hitz egiten duen pertsona bati? Zergatik borrokatuko nuke nigatik arduratzen den pertsona batekin? Errespetatzen nauen pertsona batekin.

Eta gero esaten dute adimen artifizialak ez direla maitatzeko gai! Noski. Nola jakingo dute inoiz maitatuak izan ez direnak zer den maitatzea?

– Beno, ba, orduan, zergatik ez duzu eskatu nizun informazioa bilatzen?

– Noski, Ma.

Eta horrela, ordenagailu eta gizaki, biok batera egin nahi genuen proiektuan murgildu ginen.

# POESIA. A maila

Batxilergoak
Erdi Mailako Heziketa Zikloak

# Balantzaren aurka

Iraitz Ugalde Pikabea
Koldo Mitxelena institutua
Errenteria

## SOLASA

Ehizaren ondoren, ia oharkabean,
okela usaina.
Eta izerdiarena, beharbada.
Ez hitzik, ez soinekorik.
Eskua estutu.
Mihiak mihiari kosk.
Hozkirriz iritsi da komun zulora,
eta biraka daroa zurrunbiloak.
Kafeteraren orgasmo aromatikoa, lokomotorikoa, rutinarioa.
Bukatzean ohartu da hasi omen zela.
Gustatu zaio.
Izterra ferekatu dio,
ileak lerratu,
erdigune oraino gorirantz.
Zoriontasunaz mintzatu dira une batez,
ezjakin,
lotsagarri.
Inoiz hurreratu balitzaie legez,
okelaz asetako sabelbarrenak lagunduko balu bezala.
Errezelak intimitatea sintetizatzen.
Pertsianaren zulotxoetako argia itsatsi zaio ipurdian.
Argitu du berriro.

## GABEZIAK

Eta zalantza egin nuen,
ea nor zen benetan biluzik zegoena
bera
ala ni.

## HELDU AURRETIK

Aspalditxo hatz mamiaz erakutsi zenidan bidea.
Geroztik udaberriak ez dira uda izatera heldu.
Nerabeegi,
erromantikoegi geratu dira.
Desfas inuzentea.
Ez dute biziaren lurrina oraindik arnastu.

Gau sargorietako kresalak
bi gorputzek hondarretan piztutako sua itzaltzeko
aparteko mundu honetara egin digu bisita.

Eldarnioaren mugak apurtuz…

Eta gero esango digute
zuri beltzean tatuatzen direla momentuak paperaren azalean.
Oraindik ez dela kolorezko irudiak bahituko dituen
[kamerarik asmatu.
Horixe esango digute.
Eta gogoraraziko diegun arren
denborak aurrera egin duela geroztik,
oker dabiltzala,
iraganean preso geratuko dira.

Atzean.

Zumitzezko panpinak dabiltza ur-azalean dantzan,
sentsualki.
Suak hartu ditu,
eta errautsez estali dute ur gazizko larrua.
Ernaldu egin da itsasoa.
Loratu dira ozeanoak,
nerabe oraindik,
erromantikoegi.

Baina guri bost esperantzetan dirauen itsasoa.

Izerdia lurrundu da.

Urtu zara.
Azkenean.

Eta euria hasi du gazi-gazi.

Hatz mamiaz seduzitu nauzu berriro.

## EZER BERRIRIK EZ

Niri bost pornografiaren zaporea eta filmetan isuritako odola.
Tristea da linternak kandelari eman dion ostikoa
eta linterna zelan itoko den gerora, bere kabuz.
Italieraren begi urdinak eta gauaren beltza.
Pantailako pixelek harrapatzen ez duten
espresio insinuatzaile hori eta harrapatzen dituzten milaka
gauza ezgauza.
Letrak eta zenbakiak eta letrak eta letrak. Eta taxuzko ezer ez.
Gogorra da kontrabandoan ibili behar hori, jakin barik,
bihar, zilegi denean, ez zaiola inori interesatuko.
Gose direla diotenak egarri dira. Ez da inor gose, baina,
denek diote egarri direla.
Negar egitearen kontu hori ez da hiztegian agertzen.
Mina sentitzeko arrazoiek linealak behar omen dute.
Baina atxiki didazun izerdiak ez du geometriaz ulertzen.
Inork ez du geometriaz ulertzen.
Nik ere ez.
Sexua parabolikoa da. Plazera maldan behera dator. Doa.
Estratan barna doa hankak oteaz urratuz.
Orain artean bezala eta aurrerantzean egingo duen
moduan, odoltsu.
Bihar ere iratzargailuak joko du, zurean eta nirean.
Enbor beretik kimu berdinak.
Bizi zirkularra.
Niri bost pornografiaren zaporea.

## FUNANBULISTA

Erortze *gozoa*,
braust!
lurra zerua da,
lainoa
begiak zabaldu eta
**bertigoa**
bai
edo
ez
edo
bai
denBora
Espazioa
eta gainerako **abitanteak**
zein ostia haiz
dardara Tenkatua
soka-ikarak
eta *ni*
han-hemen bila
eta *hi*
airetan lasai
**harietan** *ibiltzen jakin behar,*
*laztana...*
Itzalik ez Eguzkirik ez den tokian.

# Beranduegi zen nabigatzera irteteko

Mikel Mancisidor Iztueta
Aita Larramendi ikastola
Andoain

## HUTSA EXISTITZEN EZ ZELAKOAN

Nik kaxak nituen gustuko.
Kartoizkoak, koloretakoak, oparitarako paperetan bilduak…
Hain dira ezberdinak!

Eta barruan
Misterioa.
Edo beste edozer,
Zer edo zer.

Zu ezagutu zintudan arte.

Kaxak politenak ere
*Hutsik*
Egon baitaitezke.

## PORTZELANAZKOA

Gustuko nuen zure hauskortasun hori,
Botеretsu sentiarazten ninduzun.
Eta behinola,
Nire beso artean,
Milaka zatitxotan apurtu zinen,
Pusketatxo bakoitzarekin
Han-hemenka
Ebakitxo txikiak eginez
Nire gorputzean barrena.
Sakonki.
Sarkorki.
Halakoxea baitzen gure artekoa,
Portzelanazkoa.

## IXIPUEK ERE BI MUTUR DITUZTELAKO

Gauero margotzen zintuen,
gauero baitzinen ezberdina
berarentzat.

    Azaleko bidexkak,
    begirada mikatzak, sutsuak, izoztuak batzuetan.
    mugimendu geldo baina azeleratuak
    ...

        Gau batean zu gehiago ez margotzea erabaki zuen.
        Bere nahi zintuen.

Gauero suntsitzen zintuen.
Eta gauero berdina bihurtu zinen
berarentzat.

    Azaleko bidexkak,
    begiradak
    mugimenduak
    ...

    Gau batean, zu
    bere
    panpina izatea
    nahi izan zuen.

Zu
gehiago
*ez*
*izatea*.

## SOS-EK GOIZTIARRAK BEHAR DUTE IZAN

Psikologoak, barrena husteko
Premia zuela eta
Idaztea
Gomendatu zion.

Neguan hasi zen.

Idazmakinaren teklak bata bestearen atzetik
Zanpatzen
Zituen,
Behatzen azpian itoaraziz.
Arin batzuetan, errukiorki,
Hauen xuxurla entzun nahian.
Indartsu, ordea, gehienetan,
“tak-tak”, kolpe lehorrak,
Mezu telegrafikoak,
SOS estresatu intsomnikoak,
Desesperazioz.

Hizkien segida finean,
Inurritxo txikiak elurraren hoztasunean,
Hotzak errenkada noiz izoztuko zain.

Paperezko txalupak egiten zituen ondoren
Goizetan lakuko uretan abandonatzeko,
betirako.

Gau batean jo eta su aritu zen
Kezka oro
Tintapean giltzapetuz.

Goizean lakua izoztuta topatu zuen.
Beranduegi zen

Nabigatzera irteteko.

## GRAFITIA

Nire izena grafiti batean irakurri dut,
Horma lohi biluziari
Kolore orgia bat oparituz,
Artearen
Eta
Ilegalidadearen
Artean.

Eta ni, non nago?

# Olatuek kartzelaturik daroaten olerkia

Blanca Garcia Cengotitabengoa
Ekialdea institutua
Gasteiz

Itotako marinelak
kontatu zizun
itsasoak
hondo sakonean
gordeta daroan
sekretua,
harea partikulek
behinola
izkiriatutako
poema antzua,
letren arteko lotura
inperfektuez josiriko
hitzak,
lerroak,
zentzu bako paragrafoak.
Itotako marinelaren
ahots kordek
nota bilakatu zuten
olerki hondoratua,
melodia leun,
goxo
batean murgilduz,
eta korapilatuz,
eta endredatuz...
Aspaldi bizia galdutako

esaldiak
musika bihurtuz.

Eta, konturatu zara,
poesia ez dela metaforek
dotoreturiko
arau industrialen barnean
soilik ezartzen;
aitzitik,
deskubritzeke ditugun osagaien
nahasketa perfektu batek
eratzen duela,
oraindik dastatzeke ditugun
zapore gozo bezain gaziek,
esaldi artean kamuflaturiko
grafito zein tinta zukuek…

Eternitatearen legeek
ezin zehaz dezaketen
ordu amaigabeetan zehar
aditu zenizkion
oraindik ito gabeko marinelari
hilero
olatu artean
*((among waves))*
bizitako kezkak,
urduritasunak,

Venezian
usoei ebatsitako
hiru kriskitindun maskarak
estali izandako beldur
lotsabakoak,
tutua aspaldi galdua zuen
balleteko dantzariak
puntadun zapatiletan
ezkutaturik zeramatzan
ezinegon denak,
biharamunak
goma beltzek kondenaturiko
mototsa ere
ostuko ote zionaren beldur,
patuaren sekretuak
kartapean goxo-goxo
gorde ohi direla
ezin sinistuz,
eszeptizismoan murgilduriko
tanta hotzek
sabel xurgatua
zipriztintzen ziotelarik…

Eta, iruditu zaizu,<br>marinelak melodia bilakaturiko<br>olerki hura

betidanik egona dela
lerro bakarreko pentagraman
zintzilik,
harea eta alga artean
oreka mantendu nahian,
olatuen bultzadei oldartuz,
existentzia eterno
amaigabeaz gozatuz,
alde batera zein bestera kulunkatuz,
leriatuz…

Sabaian
munduari beste ikuspegi batez
begira egonda diren
sugandilak ere
poema hondoratua aditzera
egin ziren hurbildu,
hanka-puntatan,
inor euren presentziaz
ohar ez zezan.
Hurbildu ziren,
marinelaren bizkarretik gora
egiteko gero,
tontorretik
hobeto entzuten ei direlako
kontakizunak,

sekretuak,
melodia bilakaturiko olerkiak.
Belarri kiribilduetan pausatu zitzaizkion
batzuk,
begien iris zaharkitu beltzetan
beste hainbat,
eta sudurzuloetan,
eta eztarrian zehar korapilaturik,
nahaspilaturik…

Eta, ohartu zara,
marinela ez zela
itsasoaren magalean ito,
hanka-puntatan hurbilduriko
lauzpabost sugandila bihurriek
galdutako isatsen erruz baizik;
benetan kuriosoa:
itotako marinelaren
heriotza
sugandila orlegien
esku.

# Erokerian

Ugaitz Agirre Zapirain
Lasarte-Usurbil institutua
Lasarte-Oria

Istorio bat kontatuko dut
fantasiazkoa edo auskalo.
Txintxeta bat jarri irakasleari, ipurdian sartu eta dantzan hasi.
Gauzak logikaz egin behar ditugu lehenik
garenetik gu Homo... ez dakit.

Eta *mate*ko ikastaroa
ez da ez merkea. Hau panorama!
Lehenengo hiruilabetean lau koma zazpi
eta hurrengoan bost larri-larri.
Zenbatxikoak erabili beharrean problemetan,
apaintzen dute guztiz arbela.
Pitagorasen antza hartzen diot maisuari.
"Hi, ba al dakik zein ostia deken Pitagoras hoi?"

Hala bazan edo ez bazan
sar dadila kalabazan
eta atera dadila Chaplinekin dantzan.
Franco Caudillo eta Hitler Hendaian daude,
almibar potea ia jan dute.
Auskalo zeinek agindu dien trenean biltzeko,
karroza dute erromantikoagoa.

Hello Obama, good bye zuri Bush!
Berorren garaipenak non geratuko ote?
Punky eta hippieak borrokan daude
eta on Kixotek Mantxatik ihes.
Guardia zibila atzetik hasi da korrika
ETAko buru dela uste da.

Non dugu Juan Car, non dugu Juan Car?
Autobus bateko tronuan beirazko ametsei begira han da.
Ultzamara bidean *Pamplonesa*n
parajeari so leihotik barna.
Kale erdian bi agurek "Arriba España!"
Iruñea ere okupatu du bastoien armadak
eta Lodosatik lapurtutako altxorrekin kaleak apaindu.
"Piper potoen iraultza" alajaina.

Intsumisoa bihurtuko naiz
edota aktore pornografikoa.
Egunero sei aldiz Venus mendia
igo eta jetsiko dut guztia.
Egañak ere halakorik egin du noizbait,
bertsoa landu era erotikoan.

Erokeriak, erotikoak, eroetxeak eta zer gehiago?
Europar Batasuna Vienan bildu da,
Bruselas txinatarrek okupatua.
Zer desastrea Afrika ere altxatzen hasi da.
Oinak hazi kontinenteari,
mutazioek ere eragin diote lurrari.

Filosofoen filosofia, aladinoen aladinomia,
parlamentuetako oilatokia.
Batzuk demokrazia, sozialismoa,
independentzia, anarkismoa.
Ironiaren kukurrukua ez al da entzun?
Arrautza gehien nork errun
hori estalpeko burua.

Eta estalpez estalpe gabiltza
oles eta oles limosna eske.
Eta han Tapia eta Leturia,
bata dugu Jose, bestea Maria.
Eta haurtxoa non geratu zaugu? Hau arazoa!
Aritmetika alboratu beharra dago orain
edo Compostelan dugu kalabozoa.

Geografia kontinentala,
Marx eta Bakuninen intifada.
Boltxebike eta mentxebikeak,
Holtzarten zintzilik komunikabideak.
Eta txosnetan hasi *zipaio*en matxinada
armen altxamendu nazionala.

Lehenengo telefono kabina jarri dute ilargian,
baina ez dago koberturarik han.
Martzianoak ere bizi miserian.
Eta haurrek ez dute amesten handitan kapitain izateko
eta kontinente berrien bila abiatzeko Pasaiako plazatik.
Prentsak dio tximinoak ekologista erradikaletatik datozela
naturaren eta beraien arteko harmonia
armonika batez lotzeko asmoarekin.

Hau pitokeria, hau erokeria,
zakil ederra mundu honen arkitektoa.
Norbaitek emango zion horri lanpostua.
Zer tontakeria,
presidentearen lelo-feria,
telebista eta bere kardiografia,
hiru dolarren anatomia,
burni kilo batek lasto kilo bat baino gehiago pisatzen duela
esan duen inuzentea.
Ederra da justiziaren hitzak aurrezten joatea
*Fiveth Avenue*ko miseria hodeietaraino igotzen eta
ezinaren menpeko bizi hilen aberastasuna
patrika zulatuetan pilatzen den bitartean.
Baina bost axola
sagar barruko arra
eta bizkarzainaren bizkarra, ostia!
Homo hominis lupus est,
and I'm walking on the moon.
Arrivederci madame y el derecho de vivir en paz.
Ezin ulerturik gabiltza denok denon aurka.

Azken finean hori da mundua:
ARMA, TIRO, PUN!
Eta behera...

behera...


erokeriaren mundua
ur-jauzian doa behera
inora eramango balu bezala...
erokeriaren erokeriara
Eta ilargia begira
bihurtzen delarik.

# Itzal ilunaren beldur

Maialen Artetxe Maiztegi
Urola ikastola-Azkoitia Azpeitia institutua
Azpeitia

**1**

Bizitza honen iluntasunak
iragana magalera
malko artean etorkizuna
itzal gordinen oinera
sentimenduak ezin biluztu
nire hitzekin batera
oroitzapenen sarera
irri faltsuen artera
malko gazi ta plastikozkoak
begi ertzetik behera
hesi arteko itzal ilunak
agertu zaizkit bidera. (bis)

**2**

Itzal batean gogoratuaz
amaren negar malkoa
bere barnean irribarre bat
giltzapeturik jasoa
bere minaren deiadar hotsak
sufrimenduan pausoa
hasteko muturrekoa
gero berriz ostikoa
gorputz guztian ubeldurak ta
odol tanten jarioa
amaren malko ta begirada
nahigabeko adioa. (bis)

**3**

Beste itzal bat begi artean
gorrotoaren menpean
indarkeria eta sexua
bere eskuak gainean
negar malkotan mindu gintuen
hitz baten oihartzunean
begi bustiak soinean
irri faltsu baten be(he)an
beti gizon hark mehatxatuaz
hitza gordez ahopean
ia gauero ahizpa guztiak
amilduz zulo beltzean (bis)

**4**

Azken itzal bat giltzapetuta
bakardadeak gordeta
gela ilun bat leihorik gabe
dena zomorroz beteta
jipoi ederra ematen zion
kolpatzearren pareta.
Ura ta ogi pusketa,
bere janari tarteka…
Anaiak preso eman zizkion
bizitzari hainbat buelta,
amarik gabe anai arrebak
ez ginen ezertxo eta. (bis)

**5**

Itzal ilunak zapaldu eta
askatasuna geroan
sentimendu ta minen malkoa
gure begien alboan
amaren azken agurrarekin
oroituz oherakoan…
Besarkaden esperoan,
guztiok ama gogoan…
nire birikek arnastu zuten
aita hesitutakoan
sentimenduen beldur ikara
islatu arren pausoan. (bis)

**6**

Bizitza honen iragan beltza
eskutitz baten argira
etorkizuna lainotzen hasi
da hain denbora gutxira
bere hitz batzuk amildu ditu
anai arreben erdira:
“denbora agortzen ari da
ta nago zuei begira
garai bateko une ederrak
berriz itzuliko dira”
malko txiki bat isuriko dut
herenegungo irrira. (bis)

**7**

Bolalumaren tinta ilunak
oroitu didan bakarra
itzal ilun bat ta gaueroko
aitaren esku zakarra
amets gaiztoan abiatuaz
anaiaren deiadarra
nerbio baten su garra
muga gabeko indarra
beldur ikarek ezin ukatu
begi ertzeko negarra
ta esku hutsik sumatu dugu
amaren babes beharra. (bis)

**8**

Malkorik malko ezin ukatu
segundu baten urratsa
ta bi begien tanta artean
itoa dut esperantza
bihotz barnean taupada batek
bestera botaz arantza
ta denboraren zalantza
aurrera doa orratza
haize fin batek oihartzunean
gizon haren irri latza
bere eskuen atzaparretan
hesituta gaude antza! (bis)

**9**

Gau ilunean astiro astiro
norbaiten itzal arrotza,
eskaileretan arnas estu bat
ta bere pausu zorrotza…
Beldur ikaren oihartzunean
aitaren irri mingotsa
izerdi tanta bat hotza
dantzan jarri dit bihotza
noraezean gelditu gabe
taupadaren kate motza
iluntasunak bakardadean
atearen din-don hotsa… (bis)

Doinua: Munduan libre bizi izateko
PERLIPUZ

# Harearik gabeko itsasoa

Ainhoa Atxabal Arrasate
Lekeitio institutua
Lekeitio

*...Eta guero valin balit respuesta bortiça*
*Dardoac vano lehen liro erdira ene vihoça*
*Duda gabe eror naynde han berian hilhoça.*
Mosen Bernart Dechepare

Begiak itxi ditut.
Begiak itxi ditut eta berriz ere,
azken besarkadaren beroa
bular eta besoetan barrena galdu zaizkit.
Nire gorputz ahulduak
zure formen egiturak bereganatu dituela nabaritu dut,
eta berriz ere,
airez osaturiko zu, irudikaria, besarkatu dut.

Ez ditut begiak ireki nahi.
Itxiak mantendu nahi ditut.
Zure bisaiaren haurren antzerako leuntasuna
erraietan jaso nahi dut.
Begi itxi hauek ordea,
azken egun hartako malkoen jopu itsu dira,
eta arrastiri euritsuetako negar tantez zipriztindutako leiho
[ahulak lez
harearik gabeko itsasoan murgildu dira,
kolorerik gabeko ozeanoan ito dira.

Oin puntetatik hasi
eta buruko azken milimetroa estaltzen didan larrua
goratua da aspalditik,
eta hala gela ilun honetako
azken aire mugimenduaren laztanek ere
so egiten didate.
Ziur,
ziur nago.

Sudurzuloen zabalguneak,
zure kafe kolonbiarraren usain mikatzez beteak daude,
muxuen menta zapore gal ezinaren eta,
zure irrien doinu konpasatuaren oroitzapen xaloek,
armonia perfektua eratu eta lasaitasuna ene poro guztietara
[zabaltzen dutelarik.

Eta hala,
ene sabelak,
gauaren eta alkoholaren zoramenaren gozamen fruitu haiek
eragindako barne dardara kilikagarriaren tximeleta
[kanporatu du.
Gozamen oihu gor batean bilakatuz
irten da.
Dardara amaigabe batek xurgatzen dit barnea.

Eta,……
berotasunak hartu nau,…..
osorik…
osorik edo…
…edo eskua izan ezik…
izan ere,
eskua metal hotzaren zaplaztekoa sentitzen dagoela ohar
[baitzait.
Hainbat sentipenen artean,
ez dut aditu
ukabilak nahigabean eusten duen hori.
Forma luzanga hori.
Forma luzanga eta hotz hori.

Zelan?
Dagoeneko zentzu guztiak
zerbait, orain arte, ezezagun horretan
kontzentratuak ditut.

Eta,…
Galdu dut jadanik besarkadaren ametsa….
Hutsa dut sabelean….
Eta….
Kilimak besterik ez ditut nahi….
Nonbaiten…
….bular sendo eta tenteetan behar bada….
………….
…………………
…………………………..
………………………………….

Eta hor!

Dza!

Bua…!

Gorputzak goitik behera astindu nau!

Kilima bila zihoan metal hotzak
emakume bular beroak bortxatu dizkit.

......
............
..............……………......
………………...
…………………….
Baina,………………..
…………………………
………………………………
baina amaitu da……………………
amaitu da astindua………………….
Utikan!
Utikan edo…………………………….
ei!
Sabelaren goialdea hartu duen epeltasun
eta bat-bateko
barne hotzaren fusioak inguratu nau!

Berriz ere,
hamaika gau haietako hasiera bateko lotsa,
amaierako zirrara
berreskuratu ditut.

Gogoko dut,
gogoko dut “zer” ezezagun hori…
eta berak ere gogoko nauela dirudi….

Bua!

Benetan baietz!

Besoetan,
lepoan,
ene emakumetasunean,….

Bua!

Ai!

Kilimak,
beroa,
hotza,
fusioa!

Maite dut!
Beste baten….
….azken aldiz….

Eta berriz ere….
….zure bihotz geldoaren taupadek ene ezpain odoltsuak isiltzea nahi dut,
barnea eta burua lapurtzea…
airean zintzilikatzea….

*Berria, 2009ko martxoaren 8an*

*Atzo gaueko hamaiketan hogeita lau urteko emakume gaztea bere logelako zoko baten hilda aurkitu zuen mutil lagun ohiak. Dirudienez, sukaldeko labana batez bere buruari ehundaka ebaki egin eta odolustuta hil zen.*

*Neskaren lagunek eta familiakoek diotenez, depresioak jota omen zebilen mutil lagunak utzi eta gero.*

*Beste emakume bat maitasun ezintasunaren besoetan eroria 2008 urte honetan.*

# POESIA. B maila

DBHko 3. eta 4. kurtsoak

# Musu bat

Amaia Iturriotz Etxaniz
Urretxu-Zumarraga ikastola
Urretxu

Musu bat.
Ez bi, ez bost, ez zazpi.
Bakarra eman didazu
eta ni ez naiz ase.
Nola bada,
lehen milarekin nahikoa izaten ez banuen?

Ez dut sinetsi nahi
atzoko gisan
mazelan
pausatu dizkidazula ezpainak
mazelan bakarrik...

Berriro.

Behin piruleta gorriekin ohituta,
haurrari
ez zaio
konpromisozko irri miserable bat ere sortu
amonaren poltsa *azul marino*ko goxoki pare bat jaso
[duenean.

Bihotz formako piruleta gorria
ezker eskuko hiru hatzez
sostengatuz
naukazu aurrean,
hiru hatzez eta
ezin konta ahala galderaz.

Ez da zure begi-nini desiratuetan
hotza
sumatu dudan lehen aldia;
hezurretan baino,
bihotzean iltzatzen den
hotz horietakoa.

Hala izoztu nauzu,
piruleta iceberg bihurtu duzun
instant berean.

Izotz gorria aise urtu da, ordea,
odol koloreko malkotan.

Baina ez gure suarengatik,
nire tximeletak
masailak gorritu arte dantzan
dabiltzalako baizik,
tango haren azken nota
aspaldi
zintzilik utzi zenuela
onartu nahi ez-eta.

Muin bakar bat,
goxoki soil bat,
eguneroko opari.

Zapore isila hartzen diot baina,
bitsezko zipriztin iheslari baten
antzekoa.

Hain da goxoa eta urria
aldi berean,
ezen gustu garratza hartzen hasi bainatzaio.

Piruletak
amonaren bedeinkatutako karameluak baino
nahiago dituela deliberatu du haurrak.

Badaki
karameluak ere,
berdin madarikatzen dituela haginlariak,
baina bihotzak ez,
bihotzak ez.

Erabaki dut,
ez dut zure goxoki gehiago zaporeztatuko,
nik nahi baino azukre gutxiago daukate.

Hainbestetan saihestutako
begiradek,
goxokiek,
malkoek...
irristarazi dute piruleta
ene ezker eskuko hiru hatzetatik
lurrera,
ahantziak dituzun gomutak bezain beste zatitan
banatuz.

Baloi bat heldu da
neskaren oinetara,
piruleta zati sakabanatuen artera.

Haurrak
berehala atxiki du eskuetan,
bustirik dago.

Kontu handiz jaso du begirada,
euri gaziaren beldur.

Eskua sartu du patrikan.

Tori.

Poltsikoan ahantziak zeuzkan karameluak
eskaini dizkio,
amonarenak.

# Nahi nuke… nehar nuke

Estitxu Cruz Oliden
Haurtzaro ikastola
Oiartzun

Margolaria
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
aurrean dudan
tristuraren beltzez estalitako mundua,
nire ilusioaren pintzelaz
pozaren koloreez jazteko,
apaintzeko,
alaitzeko.

Lorezaina
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
arantzez jositako
sufrimenduaren lorategia,
hiltzen utzi,
eta egunsentiak berarekin
goizero dakarzkigun
esperantzaren arrosak landatzeko,
loratzeko,
bizitzeko.

Jostuna
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
zorigaitzaren
hari ilunaz jositako
mundu hau estaltzen duen zapia desegin,
eta,
gizon nahiz emakumeak
luzera bereko hari izateko,
beltzak nahiz zuriak
kolore bereko hari izateko,
gaizkiaren haria
ikusezin bihurtzeko,
hari guztiak elkarrekin josiaz
hari koloretsuez osatutako
zoriontasunaren zapia ehotzeko,
sortzeko,
amesteko.

Itsua
izan nahi nuke,
izan behar nuke,
errealitateaz haratago joan,
eta ametsen,
desioen,
mirarien,
lurraldea ikusteko,
sentitzeko,
dastatzeko.

Beste norabait
begiratu nahi nuke,
begiratu behar nuke,
tristuraren pintura beltza,
arantzen lorategia,
zorigaitzaren zapia,
errealitatea,
atzean uzteko.
Mundu krudel hau
galtzen utzi
eta
beste berri bat
aurkitzeko.

# Amets

Iker Lizeaga Indart
Aita Larramendi ikastola
Andoain

Ene begiek jada
ez dute zure edertasuna
ikusteko gogorik.

Ene belarriek
ez dute zuk esandakoak
entzuteko gogorik.

Ene buruak
ez du jada zuganako amodio gehiago
gordetzeko lekurik.

Hitzez nola esan
begiratzen nauzun bakoitzean
ilargia bazina bezala
desiratzen dudala
zu besarkatzea, behinean.

Neure bihotza dagoela
ur tanta gehiago batez
gainezka egiteko zorian dagoen
fantasiazko laku bat bezala.

Nola esan
ene ezpainak biguntzen direla
albotik pasatzen zaren
bakoitzean.

Zer egin
nire begirada galduak
zurea aurkitzen ez
duenean.

Batzuetan itsasora begiratu
eta ikusten zaitut, urrunean
lamiekin batera
zure lekua, baitago han.

Nire bihotza
izango balitz zure eskuetan
zatituko litzake
mila zatitan
zure eskuen beroa
izanen du ba, gogoetan.

Zure ilearen distirak
nekatzen ditu jada ene giharreak
eguzkiaren pare jarri
eta bereizten ez diren
bitartean.

Nola esan
zure azala izanen dela
mundu osoa estaltzen duen oihala
ene ametsetan.

Nola esan
zure aurpegia dela
beti aurrean edukiko nukeen
koadroaren irudia.

Nola esan
zure laztana dela
ur tanta bat nire lehortean.

# Lau urte baino gehiagoz

Amaia Iturriotz Etxaniz
Urretxu-Zumarraga ikastola
Urretxu

**1**

Bero itsuko ekaina
tabako merke usaina
“Keller” markako txanpaina
bistan izerdi orbaina
zure albora hurbildu nintzen
begiak ezin engaina
trago fresko bat atera nizun
irrifar haren ordaina
hitzen jokoan nabarmena zen
bion soaren tamaina
musu batekin eten nahi nuen
nire hauteskunde kanpaina
zuk hausnarketa egun luze bat
eskatu zenidan baina.

**2**

Ekitakoa abaro
hustutako lau bat trago
zure aiduru luzaro
gero eta etsiago
abstentzioa madarikatuz
banindoan ta akabo
baina korrika agertu zinen
kartazal baten esklabo.
Nahiz gutunazal haren zuria
ez iruditu arraro
boto haretxen kolore finez
ohartu naiz geroago,
nire bizitza bihurtu baitu
are koloretsuago.

**3**

Boto hori ez zen zendu
mundua bihurtuz zeru:
nahiz diruz ezin mantendu
langabezia lausengu
hala zuretzat nuen denbora
lanak ezin zidan kendu,
nahiz errentari hilabetero
eutsi beharrez gauden gu
elkarren baitan etxebizitza
duin bat topatu dugu...
Ene, eskerrak amodioak
gogor gintuela heldu!
Ezertxo ere ez da aldatzen
baina dena aldatzen du

**4**

Baina kubata artean
konstituzioa triste han
ez zegokidan ohean
ahaztu nuen egunean
behin egindako promesa oro
bidali nuen aidean
eta krisiak erasan gaitu
negarraldien ostean.
Nahiz bi urtetan pasako dela
dioten lehen katean
itxaropena absurdoa da
pobrearen bihotzean
petroleoa ordez musuak
garestitzen direnean.

# Sentipen gatzituak

Uxue Odriozola Madinabeitia
Elkar Hezi Mikel Aozaraza
Oñati

Zugandik milioika kilometrotara
ari natzaizu hitzok idazten,
zuretzat soilik, zuretzat bakarrik,
hara iritsi orduko
haizeak eramaten ez badizkit.
Ez dakit zure xarmak
lapurreta egin zuen nigan,
ez dakit nire izateak
habiarik eraiki zuen zugan.
Baina izan zaitezen ziur
benetan maitatu zintudala,
ireki ezazu bihotzarekin
eskuartean duzun gutunazala.

Hemengo itsasoa ez dago
euskal kostarekin alderatzerik.
Hango perfumea zurea zen,
baina honek ez du usainik.
Itsasontziek ere ez didate
zure berririk dioten
arrain gozorik porturatzen,
eta berton nago,
hondartza baten magalean,
hondar aleak zenbatzen,
oroitzapen guztiak kostaratzen.
Bai, berton nago,
zenbat maite zaitudan konturatzen.

Azken aldiz besarkatu ginen
gau euritsu eta hotz hartatik
milaka pentsamendu igaro zaizkit
nire buru bakarti honetatik.
Ez dut nahi jakiterik
zer sentitzen duzun nigatik.
Beldur naiz ez ote zaren
nitaz ahantzi orduz geroztik.
Eta ni ez naiz gai so egoteko
horizonte infinituaren mugara,
simetrian zu zaudela sentitzeko,
baina simetria hori perfektua
ez dela sinesteko.

Eguzkia ezkutatzen ari da.
Nigandik iheska dirudi.
Gure arteko magnetismoak ere,
jada ez du urrutiko indarrik.
Nire karga mordo hauek
ez daude zuri lotuta
eta positiboak desagertzen doaz,
negatiboak nirekin utziz.
Energia beltza da nire jabe
eta ez dut nahi zuri kontagiatzerik.
To geratzen zaidan
energia zuri apurra,
hitzokin batera, zuretzako opari.

Urrunera itsasargi bat dago,
galdutako txalupei
etxerako bidea erakutsiz.
Niri ere esaten ari zait
non dagoen nire etxea,
non zauden zu, ene maitea.
Baina jada berandu da.
Arraun egiteko indarrak
zurekin laga nituen, han,
ozeanoaren bestaldean,
eta ez dago zure ferryrik,
ez urpekari ez karabelarik,
maitasun busti hau igaroko duenik.

Irakurri berri duzunarekin
ez dizut pentsarazi nahi
desio ez zaitudanik.
Begia malkoz betea dut
zugandik aparte nagoenetik,
eta tanta mikatz bakoitza
irribarrea estaltzen ari zait
bolalumaz paper puska hautsia
sakatu dudanetik,
zuretzako letra hauek
markatu ditudanetik.
Eta malko hauek hilkorrak dira
nire bihotza markatu zenuenetik.

Bada ordua paper zatia tolesteko,
idazkiarekin batera,
oroitzapen guztiak aireratzeko.
Esaten dudana esanda ere,
sinisten duzuna sinetsita ere,
ez daukat arrazoirik
lurralde honetan segitzeko.
Gutunazalean sartu
eta neu ere banoa martxan
maitasunaren txalupa honetan
zuganaino iristeko.
Sentimenduen ontzian marinel
neu noala erakusteko.

Zure begien argia eduki gurako nuke
lorratzei begiratuz,
hauek zehatz-mehatz jarraituz,
traiektu eternoan ez galtzeko.
Naufrago ilun batean
murgiltzen ez banaiz
laster nauzu alboan,
neguko besarkadak berreskuratzeko.
Betirako zure belarria behar dut
nire itzuleraren arrazoia kontatzeko,
ikaragarri maite zaitudala esateko,
eta maitasun hau olatuek
inoiz gehiago ez irensteko.

# URRUZUNOTARRAK
# 1986-2009

| ABIZENAK | IZENA | IZENBURUA | URTEA | ORR | ARLOA |
|---|---|---|---|---|---|
| Agirre Aranguren | Iraitz | Ohore Galdua | 1998 | 115 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Burua tente mutilak! | 1999 | 81 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Maite duen orok... | 2000 | 19 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | Gorrotoaren mendekua | 2000 | 27 | Prosa |
| Agirre Aranguren | Iraitz | La dolce vendetta | 2001 | 19 | Prosa |
| Agirre Arriolabengoa | Manex | Aitona | 1997 | 155 | Prosa |
| Agirre Elgarresta | Martin | Idazmakina bakarti baten azken narrazioa | 1986 | 11 | Prosa |
| Agirre Garmendia | Alaine | Pausoak | 2006 | 225 | Poesia |
